



UBANE MADERA

Zeziaga ixtera doa, 104 urte beteta

Dendan eta goiko solairuan duten generoa saldutakoan itxiko dute | 16

Debagoieneko artzainen lehen azoka martxoan Arrasaten | 6



Ford Mugarri kategoriaz igotzetik gertuago | 25



Bergarako pilotalekua gainezka 'Ai amatxo!' musikalarekin | 29

Eguzkitan zein euripean, Aratusteak geldiaraziko dituenik ez!



Parte-hartze handiarekin, Debagoieneko herri denetan izan dira Aratuste ospakizunak asteburuan. Bihar gehiago | 12

Jugoslaviatik etorritako koadrilak Aretxabaletan igaro du aurten Aratuste-domeka. Dela hegan edo traktore gainean etorrira, bidaia luzeak ez zien parrandarako gogoia zapuztu. | JOSETXO ARANTZABAL

Udalek ahalik eta lasterren kitatuko dute zorra

4,2 milioi euro itzuli behar dizkiote Ogasunari | 2



Euro pila. | GOIENA

Oñatiko Udalak gaueko farmazia zerbitzua Arrasaten zentralizatzearen kontra egingo du | 18

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

ASTE BURURAKO PLANIK BAI ?



Txartela, beti aldean

► Zoaz 9. orrialdera.

Ahalik eta lasterren kitatuko dute zorra udalek

- ▶ Ogasunari 4,2 milioi euro itzuli behar dizkiote udalek
- ▶ Ahalegina egingo dute dena aurten ordaintzeko

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoieneko udalek ere gerrikoa estutzen jarraituko dute aurten: Foru Aldundiak egubakoitzean jakinarazi zuen Udal Finantzaketa Foru Fondoaren 2011ko behin betiko likidazioa, eta Debagoieneko udalek ia 4.300.000 euroko zorra dute Foru Aldundiarekiko. Udalak diruz elikatzeko erabiltzen den diru-kutxa horretara esandako kopurua itzuli beharko dute, eta horren erdia hilaren 25ean itzuli behar dute.

Zerga-bilketa aurreikuspenak ez dira bete Euskal Autonomia Erkidego osoan: joan den martitzenean batu zen Euskal Finantzen Kontseilua, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru diputazioen kidezarekin, eta Carlos Agirre Ekonomia eta Ogasun sailburuak zenbaki borobilak –eta gorriak– eman zituen: hiru ogasunek 11.480 milioi euro batu zituzten, aurrekontuetan zegoen baino 1.000 milioi gutxiago. Gipuzkoako Ogasunak 3.596 milioi batu zituen, 2010ean baino 84 milioi gutxiago eta aurreikusi baino 343 milioi gutxiago.

Horrek kate-erreakzioa sortu du: Euskadiko ogasunek dirua itzuli behar diote Eusko Jaurlaritzari. Zehazki, Gipuzkoakoak 2.612 milioi bueltatu beharko dizkio; Bizkaikoak, 3.975, eta Arabakoak, 1.328. Hala, krisia erakunde publiko guztiek duten neurrian, Aramaioko Udalak ere jasan du diru-murrizketa: Arabako Toki Erakundearen Finantzaketa Foru Fondotik %14,7 diru gutxiago jasoko du. Arabako Udaleko iturriek diotenez, murrizketa hori zetorrela kontuan izan zuen Udalak diru-aurreikuspenak egiteko orduan.

Debagoienekoak ondo daude Gipuzkoako udal guztiak ez daude egoera berean. Debagoieneko udal gehienak diru guztia aurten bueltatzeko moduan egongo dira.



"Gastu arruntetan desoreka izango dugu"

JESUS ELORTZA
BERGARAKO ALKATEA



"Teknikoki ezinezkoa zen itzulketarepea luzatzea"

MIKEL BIAIN | OÑATIKO ALKATEA



"Garitanok urrian aurreratu zigun zuloa egongo zela"

BEÑAT HERCE
ESKORIATZAKO ALKATEA

Hori da ondoen dabilzan udalek egingo dutena. Beste bi aukera eman zien Ogasunak: mailegulerroa eskaini zien; eta, oraindik horrekin ere ordaindu ezin dutenendako, finantza-kudeaketa bateratua egitea eskaini zien. Foru Aldundiko iturrien arabera, aukera hori "arazo estrukturalak dituzten udalendako" izango da bereziki: alegia, urtero edo oso maiz zorrak kitatzeko arazoak izaten dituzten udalendako.

Hirugarren proposamen bat Donostia, Irun, Hondarribia eta Errenteriako udalek egin zuten: dena aurten itzultzea, lau epetan, %25eko deskontuarekin. Eta Elgetako Udalak beste proposamen bat egin du: orain %50a itzultzea eta gainerako erdia bi zatitan, bat 2013an eta bestea 2014an.

"Zenbat eta lehenago, hobe"

Debagoieneko udalek, orokorrean, zor guztia aurten kenduko dute. Errealitate hori gustukoa ez, baina halabeharrez aurre egin beharrekotzat hartu dute. Horren barruan, denetarik dago: Mikel Biain Oñatiko alkatea, adibidez, dio "likideziaz ondo ibiliz gero", ez duela aparteko eraginik izango diru-kutxan; aldiz, Jesus Elortza Bergarako alkatea onartzen digu "diru-murrizketa inportantea" dela eta, Bergararen kasuan, milioi bat euro pasa bueltatu beharrek "gastu arruntetan desoreka" sortzen duela.

Oñatiko alkate Mikel Biainek Goiena *Magazinea*-ko Ekonomia saioan esan zuenez, "ordaindu beharreko diru bat da eta, zenbat eta lehenago ordaindu, hobeto. Beste urte batzuetan, Foru Aldundian zegoen hondarrak aukera eman zuelako, beste epe batzuetan bueltatzea eskaini izan da. Baina 2009an, 400 milioiko hondarra zegoen eta, gaur egun, 20 milioikoa dago; hortaz, tekniko ki ez da posible Aldundiak epe hori luzatzea".



Arrasate

ZORRA
1.520.468,57

AURREKONTUA
12.445.006,73

LIKIDAZIOA
10.871.605,76

EKARPENA
52.932,40

Bergara

ZORRA
1.012.356,18

AURREKONTUA
8.288.509,85

LIKIDAZIOA
7.240.607,69

EKARPENA
35.545,98

Aretxabaleta

ZORRA
459.058,09

AURREKONTUA
3.758.130,06

LIKIDAZIOA
3.282.996,09

EKARPENA
16.075,88



DEBAGO

ZORRA
4.274.18

Udal Finantzaketa Foru Fondoari itzuli beharrekoari udalek egiten duten ekarpen berezia. Otsailaren 25ean, zorraren erdia ordainduko dute: 2.136.100,43 euro.

Antzuola

ZORRA
147.987,46

AURREKONTUA
1.211.433,78

LIKIDAZIOA
1.058.274,27

EKARPENA
5.172,05



Elgeta

ZORRA
76.636,76

AURREKONTUA
627.564,12

LIKIDAZIOA
548.222,26

EKARPENA
2.705,10

Udalak sarri batzartuko dira Aldundiarekin

Joan den egubakoitzean, Foru Aldundiko Ogasun diputatua, Helena Franco, alkateekin batzartu zen berriz, Udal Finantzaketa Foru Fondoaren gainean jarduteko. Sarritan batzartu dira prozesu osoan zehar Foru Aldundiko eta udaletako arduradunak, eta dinamika hori ohitura bihurtu nahi du Bilduko foru gobernuak. Horregatik, batzar horretan bertan, udal ordezkariak landu zuten: "Aurretik, Foru Aldundiak ez zuen alkateekin batzartzeko ohiturarik, eta orain, hori aldatu nahi dugu eta formula berriari ekin zaio", azaldu dute Foru Aldundiko iturriek.

Hortaz, egubakoitzeko batzarrean, Foru Aldundiko arduradunek formula hori planteatu zieten alkateei eta, "operatiboa" izan dadin, ordezkariak modu bat zehazten hasi ziren, ezinezkoa delako aldi oro alkate guztiekin batzartzea. Lantzen dabilzan formula alkateek interlokutore batzuk aukeratzeko da.



Oñati

ZORRA
750.703,68

AURREKONTUA
6.146.981,18

LIKIDAZIOA
5.369.828,83

EKARPENA
26.448,67



LEINA

6,5

ITZULTZEKO
34.990.473,72

LIKIDAZIOA
30.566.687,82

EKARPENA
149.599,4

Eskoriatza

ZORRA
280.065,93

AURREKONTUA
2.292.545,30

LIKIDAZIOA
2.002.702,71

EKARPENA
9.776,66



Leintz Gatzaga

ZORRA
26.909,83

AURREKONTUA
220.302,70

LIKIDAZIOA
192.450,21

EKARPENA
942,66



Aurtengo likidazioari gehitu behar zaio, gainera, beste ordainketa bat: 2009ko likidazioari dago-kiona. Arrasateko alkate Inaxio Azkarraga-Urizarrek azaltzen digu: "2009an, Udalak itzuli beharrekoa oso kopuru altua izan zen (3.077.493 euro) eta orduan Udalak eta Aldundiak adostu zuten itzulketa hiru urtetan egitea. Arrasaten, esaterako, oraindik azken zatia ordaintzeke dago". Dena dela, Arrasateko Udalak 2001ko zor guztia aurtentzako duela ere gaineratu du alkateak.

Bueltatu beharreko zenbateko justua joan den astean jakinarazi zitzaizen arren, udalek jakinean zeuden zuloa handia izango zela. Eskoriatzako alkate Beñat Herceek Goiena telebistan esan zuen arabera, "urrian, Martin Garitanok batzarrera deitu gintuen eta, behin-behineko datu gisa, esan zigun foru fondoa %8 eta %11 artean txikituko zela". Antzuolako alkate Ima Beristainek dioenez, "egoera kontuan hartuta zegoen eta Udala nahiko ondo moldatuko da zorrari aurre egiteko".

Herri batzuetan, urteko aurrekontuak onartu dituzte. Baina ez dute horiek aldatu beharrik izango. Eskoriatzaren kasuan, adibidez, "%8 eta %11 arteko murrizketa aurreikusen zenez, diruaren zati bat gorde egin genuen eta, aurreikuspen txarrenak ez baziren betetzen, diru hori gastatzeko izango genuen. Azkenean, bete egin dira eta diru hori zorra kitatzeko erabiliko dugu".

Kultur ekintzetan, jaietan...

Horrenbestez, udalek diru gutxiago izango dute gastatzeko. Kontua izango da orain zertan igarriko den hori.

Bergarako alkate Jesus Elortzak dioenez, "diru-murrizketa garrantzitsua" da eta "aurtengo aurrekontuetan desoreka" eragingo du. Izan ere, Bergarako Udalarari milioi bat euro baino gehiago

ESANAK



"Aldundiaren aurreikuspenek 92 milioi euroko akatsa zuten"

MARKEL OLANO | EAJ



"Arazo estrukturalak ez dira ondo bideratu"

REBEKA UBERA | ARALAR



"Ez dugu onartuko udaletan eskua sartzea"

RAFAELA ROMERO | PSE-EE



Gipuzkoako Foru Aldundia. | GOIENA

ordaintzea tokatzen zaio, eta horrek "ikaragarriko zuloa" sortzen du udal diru-kutxan: "Dirua kendu beharko dugu nahi ez dugun esparru askotatik: kultur ekintzak, jaiak...". Horregatik, Bergarako Udala oraindik "aztertzen" dabil dirua bueltatzeko dituen aukerak. "Dena aurtentzako badugu bueltatzen, horrek interesak ordaindu beharra ekarriko digu; beraz, ahal badugu, dena aurtentzako bueltatuko dugu", esan du Elortzak.

Kontuan hartu behar da otsaila ez dela batere garai ona: udalek dirua batzeko duten modua zergak eta tasak dira, eta otsailean oraindik oso zati txikia dute batuta.

Udalek ukitu gura ez duten aurrekontua gizarre gaia da. Azkarraga-Urizarren hitzetan, "Udalaren apustua argia da oinarri sozialeko programei, ekimenei, laguntzei eta lanei eustearen alde", eta hala, Ongizateak aurrekontuaren hirugarren partida handiena du (%7,39). Beste kasu batzuetan ere -Oñatin edo Eskoriatzan, adibidez- gizarre gaiei lehenatsuna eman zaie.

Zergak erreformatzea

Aurtengo zuloa kentzearekin ez dira estuasunak bukatuko, hala ere. Beñat Herceek Goienari esan zion moduan, Foru Aldundiak udalei aurreratu die "2012rako egin den aurreikuspena ere zalan-tzan jartzen dela, azken hiruhileko zerga-bilketak dezente egin duelako behera, eta ondorioz, 2012rako onartutako aurrekontuetara begira zuhurtziaz hartzeko datua izango da".

Krisia luzatzen doan neurrian, Gipuzkoako administrazioek behar duten dirua batzeko beste modu batzuen gaineko eztabaida hasi da. Hala, joan den egunean udal finantzaketaren gainean hitz egin zuten Batzar Nagusietan, Martin Garitano eta Helena Franco han zeudela. Ogasun diputatu Helena Francok ohartarazi zuenez, "diru-bilketa beste modu batzuetara handitu beharko da, zergak erreformatuz, adibidez".

Eusko Jaurlaritzak aspalditik dabil zergen gaineko eztabaida eskatzen, eta horren barruan landu nahi du iruzurraren aurka egitea. Ahaldu nagusiak, bere aldetik, baztertu egin zuen egunean zehar-kako zergak handitzea.

Sozietateen Zerga erreformatzea da Diputazioan orain hurrengo egin beharreko lana. Abenduan, Bilduk, PSE-EEk eta PPK alde bozkatuta, Batzar Nagusiek ponentzia bat sortu zuten hori lantzeko.



GAES
Entzumen Zentroak

11 EUROPEAR KANPAINA
ENTZUMEN ARAZOEI AURRE HARTZEKO

urtarrilaren 9tik martxoaren 16ra arte

ZURE ENTZUMENA ZAITZEN LAGUNDU NAHI DIZUGU

590€
-tik hasita

Aprobetxa itzazu ordaintzeko erraztasunak eta eraman ezazu zure audifonoa

* Kontsultatu modeloak zure GAES zentroan. Ezingo dira pilatu beste eskaintza edo promozioekin.

Otalora Lizentziatua, 18 behea • Tel. 943 71 27 93 • ARRASATE | Zurradero, 10 • Tel. 943 76 94 55 • BERGARA

Aramaioarren berezko legea ezagutzera herritar ugari hurbildu ziren egubakoitzean

Patxi Uribarren euskaltzainak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak eman zuten hitzaldia

AMAIA TXINTXURRETA | ARAMAIO
Euskal foru-zuzenbideak Aramaion duen eragina aztertzeke eta herritarrei eskubide berezi horren berri emateko, egubakoitzean ekitaldia egin zuten kultura etxean. Herritarrek, gainera, interesa erakutsi zuten gai horren gainean, izan ere, aretoa bete-betea egon zen.

Ekitaldiari hasiera emateko, Bizente Goikoetxea abesbatzak bi abesti kantatu zituen. Gero, Ramon Ajuria alkateak ongietorria eman zien bertaratutakoei eta, horren ostean, etorri ziren Patxi Uribarren Aramaion jaiotako euskaltzainaren hitzak eta baita Andres Urrutia euskaltzainburuaren azalpenak ere.

Euskal foru-zuzenbidea
Urrutia euskaltzainburuak azaldu zuen gaur egun foru zaharretik gelditzen dena dela Euskal foru-zuzenbidea eta une honetan batez ere Bizkaian eta Nafarroan dagoela indarrean, baita Aramaion

ere. "Esaterako, tronkalitatea, herentziak eta andre-gizonen arteko harremanak foruen bitartez arautzen dira. Horrela da Aramaion, Bizkaiko foru-zuzenbidea aplikatzen delako".
Ondorioz, besteak beste, senar eta emaztearen artean testamentuaren bidez ahalik eta gehien



Patxi Uribarren Aramaion jaiotako euskaltzaina azalpenak ematen. | JOSETXO ARANTZABAL

eman diezaiokete elkarri, hori da tronkalitatea: "Horrek guztiak, Aramaiori nortasun berezia ematen dio".
Urrutiak gaineratu zuen Aramaio herri bakarra dela Araba osoan euskalduna dena eta gainera foruduna. Azaldu zuen baita ere kontzeptu horiek aramaioa-

rren historian guztiz "errotuta" daudela.

Aramaion aplikatzen den Euskal foru-zuzenbidearen etorkizunaz galdetuta, Urrutiak esan zuen gaur egungo beharretara egokitzen baldin bada, posible dela etorkizunean horrek irautea eta talde bat badabilela egokitze lanetan.

Saharako errefuxiatuen egoera gertuago MUko ikasleen eskutik

Errefuxiatuen kanpamenduetan ateratako argazki erakusketa zabalik egongo da otsailaren 29ra arte

MAIDER ARREGI | ARETXABALETIA
Arkupeko erakusketa aretoan, Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan ateratako argazkien erakusketa dago hilaren 29ra bitartean. Argazki horiek MUko ikasleek atera zituzten, iazko Aste Santuan bertan egon zirenean; eta ikasle horietako hiruk gidalagun izan zuten Mohamed Salem -giza eskubideen aldeko ekintzailea- eta beste

hainbat saharar Arkupen elkartu ziren barikuan. Erakusgai dauden argazkien gaineko azalpenak eman zizkieten bertaratutako herritarrei. "Eskolako umeek ikasteko izugarritzko gogoia dute eta inor ez da geratzen eskolara joan barik", nabarmendu gura izan zuten.

Bestalde, lurralde okupatuetan bizi direnek ere laguntza behar dutela azaldu zuten.

MOHAMED SALEM | GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO EKINTZAILEA

"Ezingo nintzateke hemen bizi nire herria sufritzen dagoen bitartean"

Mohamed Salemek Sahararen egoera gerok eta larriagoa dela kontatu digu; asko sufritzen ari den herria dela eta sahararrei adierazpen askatasuna bortxatuta dietela.

Egoera honen aurrean, zer?

Idea ezberdinak izan ditzakegu, baina denok independentzia nahi dugu gure herriarendako; kausa bakar baten alde egin behar dugu, egunetik egunera manifestatu eta independentzia horren alde borroka egin. Marokok giza eskubideak bermatu behar ditu; munduak orokorrean, jakin beharra dauka zer gertatzen den okupatutako Saharan. Erreferendum duina egingen utzi eta guk erabaki behar dugu zer nahi dugun gure herriarendako.



MIRARI ALTUBE

arduraduna. Ezingo nintzateke hemen egon jakinda nire herriak sufritzen jarraitzen duela. Proiektu honek aurrera jarraitu behar du beste saharar batzuei laguntza emateko eta haiek ere hemengo osasun sistema edukitzeko.

Osasunez nola zaude?

Askotan egon naiz preso eta epe luzetan. Ez naute inoiz atxilotu delitu bat egiteagatik; soilik, sahararra naizela defendatzeagatik. Gose greba asko egin ditut, tartean, 52 eguneko bat. Horrek eragina izan du nire osasunean, kalteak eragin dizkirate gose greba horiek. Eskerrak hemen sendagileak ikusi nauela eta espezialista baten laguntza izango dudala laster.

Asilo politikoa eskatzea pentsatu al duzu?

Askori hemen bizitzea gustatuko litzaiguke. Baina han lanean jarraitu behar dut, borrokan. Nire familia ere han dago eta ni naiz nire familiaren



Herriko plazara herritar asko gerturatu zen moxal pintxoak probatzeko asmoz. | MIREIA BIKUÑA

Moxal okelaz egindako mila pintxo

Herriko moxal oso bat dastatu zuten zapatuan

MAIDER ARREGI | OÑATI

Harrera ezin hobea izan zuen moxal okelak. Ohitura handiegirik ez dagoen arren, jendea moxal okela jatea gustatzen zaio la kontatu zigun Mikel Igartua Gipuzkoako Mendiko Zaldien Elkarteak (GIMEBEL).

"Moxal oso bat jarri dugu bi eratan sukaldatuta: 600 pintxo okela gisatu eran; eta 400, xerratan", kontatu digu Igartuak. Askok bietatik probatu zutela ere esan zigun: "Jendea okela gisatua gustatu zaio, baina, bigarren bueltan, xerra moduan probatu dute". Arrakasta ikusita, orain harategietan nola saltzen den ikusi beharko da: "Hemendik

aurrera ea zer gertatzen den; jendea gustatu zaio baina ea orain harategietan erosten duten".

Tarsicio, Garai, Antton eta Odriozola harategietan salduko dute moxal haragia. Harakinen esanetan, okela "osasungarriagoa" eta "xamurragoa" da.

Oñatiko ardoa

Zañartuko txakolinak eta Gargaltza haundi, Anduaga, eta Azkarraga Errotako sagardoek ere harrera ezin hobea izan zuten. Pintxo eta edaria euro baten truke eskaini zuten. Antolatzaileek ez dute baztertzen berriro ere moxal jaia egitea.

Eduardo Zubiaurre | Gipuzkoako Enpresen Konfederazioko (ADEGI) presidentea

"Lanean, denok ikasi beharko dugu gauzak beste modu batera egiten"

- ▶ Eduardo Zubiaurrek lan-erreformaz hitz egin zuen Goiena telebistan
- ▶ "Aro berri, baikor eta eragingarria" irekitzen duela deritzo ADEGIk

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

ADEGI Gipuzkoako Enpresen Konfederazioko presidente Eduardo Zubiaurrek Goiena *Magazinea*-n esan zuenez, "lan-erreformak enpresan ipintzen du fokoa, eta egoerari egokitzen uzten dio".

Lan-erreforma "aurrerapauso" gisa baloratu duzue ADEGIk eta Confesk-ek. Zergatik?

Enpresak luzaroan eskatzen genuen erreforma delako. Espainian zegoen lan-araudia eta lan-harremanak oso zurrinak ziren; berritu egin behar ziren, lehiakortasun egoera berrira egokitzeko. Zurruntasun hark aldatzen doazen egoeretara egokitzeko izugarriko eragozpenak zekarzkie enpresari, egokitzapenak zirenak zirela: lan-baldintzak, lan-orduak edo aldaketa funtzionalak.

Fokoa enpresan ipintzen du lan-erreformak, eta hainbat bitarteko ematen dizkie, arrazoiak daudenean, era azkar, ekonomiko eta eragingarrian aldaketak egiteko eta berriz bere funtzioa betetzeko: lana eta aberastasuna sortzea.

Neurri horiek lehenago hartu izan balira, oraindik krisian geundeke?

Krisiak arrazoi asko ditu, eta ahulenak gehien sufritzen du. Zorionez, Euskal Herrian eta Gipuzkoan hobeto egin diogu aurre krisiari, lanpostuak hobeto babestu ditugu; baina arazoak zituzten enpresak -txikiak, erakuntzarekin lotura handia zutenak, Espainiako merkatura saltzen dutenak- benetan arazo larrietan egon dira eta zailtasunak izan dituzte neurriak hartzeko; malgutasunik ez zuten eta dena zen baimen administratibo bidez, adostasun bidez, epaileen bidez, modu luze, garesti eta iskanbilatsuan.

Hemen bertan beste eredu bat dugu: kooperatibetan beste arau batzuk, beste lan-harreman batzuk dituzte, eta gai izan dira malgutasunez egoera berrira egokitzeko, azkar, merke eta iskanbila barik; lanposturik ez deusezteko eta berriz erraz kontratatzeke. Zoritxarrez, hori ez da enpresa pribatuan gertatzen.

Europako beste herrialde batzuek hartuta dituzte antzeko neurriak. Hemengo ezaugarriak hango berberak direla uste duzu, erreformak bere helburua bete dezan?

Antzeko ezaugarriak dira. Europan, malgutasunezko lan-harremanak dituzte, eragile sozialen eta administrazioen arteko konfiantza oinarrituta, eta horrek eraraztu egiten dio enpresari baliabideak izatea. Hori ikasi behar dugu guk. Lan-erreforma-



Eduardo Zubiaurre, Goienan. | LEIRE KORTABARRIA

"Kooperatibak malguagoak dira, eta krisiari hobeto moldatu zatziaio"

rekin, aro berri bat dator, eta denok ikasi beharko dugu gauzak beste modu batera egiten: modu egonkorragoan kontratatzen, enpresan ados jartzen, erabakiak azkar hartzen; eta enpresek ere beste modu batera kudeatzen ikasi beharko dute. Guretzat oso aro baikorra, zuzena eta eragingarria izango da, errazagoa izango delako modu samurrean eta egonkorrean kontratatzea.

Flexisegurtasuna delakoa lor daiteke?

Badira lauzpabost urte ADEGI hori sustatzen dabilela. Danimarkan egon ginen, han orain mende bat jarri zutelako martxan, eta eredu hori beste herrialde askotara dago moldatuta. Flexisegurtasunak dio oreka bat dagoela: enpresari malgutasuna ematen zaio era azkar baten egoera eze- gonorretara egokitzeko eta berriz

Lan-erreformari kritikatzeko diote kaleratzea errazagoa eta merkeagoa izango dela. Zer diozue?

Izan daiteke. Garrantzi handiagoa ematen diogu guk enpresari hainbat bitartekari ematen diolako aldaketa funtzionalak egiteko: lan-orduak, soldatetan; EREetan, zergatik ez... Zoritxarrez, denondako lanik ez duenean, erabakiak hartu behar izaten dituen, errazago eta baimen administratibo barik epe motzean halako erabakiak hartu ahal izango ditu. Gakoa dago enpresa ez ixtean, enpresa delako, bere onera itzultzen denean, lanpostuak sortuko dituen. Bermatu behar dugu kritik enpresak bizirik irten daitezen.

Lan-hitzarmenak negoziatzeko modua zeharo aldatzen da, ezta?

Lehenatasuna ematen dio enpresari, bai. Orain arte, lehenatasuna sektoreko hitzarmenak zuen, eta horren azpian egon zitezkeen enpresakoak, estatukoak... Aurreantzean, beste hitzarmen batzuk egon arren, enpresako pertsonak ados jartzen badira, hitzarmen horrek izango du lehenatasuna. Hori ere ona da, adostasunak enpresa jakin baten egoerara egokituta egongo direlako.

Otsailean bertan, Gipuzkoa berriz krisian sartuko dela eta aurten 1.300 lanpostu galduko direla esan zenuen. Berretsi egiten duzu hori?

Gipuzkoako enpresek urtarrileko inkestan berretsi egin digute egoera okertzen ari dela, eskaera-zorroak txikitzen doazela, euren bezeroak ere arazoekin dabilzela, eta logikoa da, Europa osoa atzeraldian egongo delako aurten: Espainia oso atzeraldi gogorrean dago; Italiaren BPG %2 txikitu da; Alemania eta Frantzia oso gutxi hazi dira... Hortaz, gu ere atzeraldian egotea ez da harritzekoa.

Espainiako Gobernu berriaren neurriek lagunduko dute?

Espainiari Europak egin dion diagnosa eta eskatu dizkion neurriak hor egon dira luzaroan; aurreko gobernuak esan asko, baina egin, oso gutxi egin zuen, eta aurtengo gobernuak etxeko lanak oso argi ditu eta borondate hori badauka: defizita kontrolatu nahi du; finantza sistema osasundu beharra dago; lan-merkatua, energia, ikerketa, garapena, heziketa... beste erronka batzuk ditu, baina gobernu hau gehien goan dago eta, borondate edo beharra daukala, gutxienez ekimenez ari da bide zuzenetik.



Greba orokorra deitu dute martxoaren 29rako

L.K. | ARRASATE

Egubakoitzean, 11:00etan erregistratu zuten Bilbon eta Iruñean ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS eta EHNE sindikatuek martxoaren 29rako greba orokorrerako deialdia.

Lan eta negoziazio kolektiboaren erreformaren kontrako protesta da; joan den astean Espainiako gobernuak onartutako erreformen kontra, hain justu. Era berean, "Euskal Herriko giza eta lan eskubideak defendatu" gura dituztela esan dute.

ELA eta LAB sindikatuen arteko desadostasunen ondorioz euskal gehiengo sindikala urtarrilean apurtutzat eman zuten arren, aurrerantzean ere batera jardungo zutela esan zuten orduan ere, eta honakoa horren froga da.

Adolfo Muñoz ELAko idazkari orokorrak *El Diario Vasco* egunkariari esan dio gaur greba "erantzukizun sindikal" kontua dela eta "prebentiboa" ere izan daitekeela.

Urtarrilean, lehenengo

Krisia hasi zenetik euskal sindikatuek egingo duten laugarren greba da. 2009ko maiatzaren 21ean egin zuten lehenengo. Handik urtebete eta gutxira izan zen bigarrena, 2010eko ekainaren 29an. Oraingoan bezalaxe, lan merkatuaren erreformaren aurka protesta egiteko zen.

Orain azkenekoa 2011ko urtarrilaren 27an izan zen, Espainiako Gobernu berriari egin zioten lehenengo. Gizarte zerbitzuen murrizketen eta pentsioen erreformaren aurka. PPko gobernu berriaren neurrien aurkako hainbat mobilizazio egin dituzte azken asteotan ere.

Eroskiko bazkideek %5 gehiago lan egingo dute, soldata izoztuta

Eroskiko 8.500 langile-jabeek %5 ordu gehiago lan egitea eta soldata bere horretan uztea erabaki dute. Horrenbestez, 2009 aurreko egutegian zeuden baino 87 ordu gehiago lan egingo dituzte: urtean 1.837 ordu, hain zuzen ere. Eroskiko errektore kontseiluak proposatu du neurria. Helburua da kostuak txikitzea eta lehiakortasuna handitzea.

2010ean, 2009an baino %10 gehiago lan egitea eta soldata izoztea erabaki zuten. Iaz, 2009an baino %5 gehiago lan egitea onartu zuten. Aurten, gauza bera erabaki dute. Hau da: 2010etik hona lan-ordu erantsi horiek gutxitu egin dira.

Debagoieneko artzainen lehen azoka egingo dute martxoan Arrasaten

Jardunaldi gastronomikoen X. edizioaren harira antolatu dute ekimena

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Berrikuntza askorekin datoz Debagoieneko X. jardunaldi gastronomikoak. Horien artean martxoaren 17an Arrasaten egingo den Debagoieneko artzainen lehen azoka dago. Eskualdean gazta ekoizten duten artzainak elkarlanean hasiak dira ekimenarekin, eta azoka hori da elkarlan horren lehen pausoa. Artzainez gain, Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideak izeneko proiektu turistikoarekin ere lan egiten hasi dira jardunaldietako antolatzaileak. Horren harira, bihar, martitzena, Bergaran egingo duten jardunaldien aurkezpenaren ardoa eskaintzearekin batera, ardo kutxak eta egonaldia zozketatuko dituzte.

Bestalde, gastronomia eskaintza turistikoarekin lotzeko asmoz, promozio berezia jarriko dute martxan. Hain justu, jardunaldi gastronomikoko menua dastatzen duen bakoitzari 2x1 delako txartela emango zaio, eta aukera izango du hainbat bisita gidatu debalde egiteko: Elgetako gerra zibilaren ibilbide tematikoa, Oñatiko Arrikruz kobak, Arantzazuko santutegia eta parketxea, Leintz Gatzagako gatz museoa eta *Iturriko gatzak mahaiari gozo daude* hor sartuta.

Ardikiak eta gazta

Otsailaren 25etik apirilaren 15era izango dira jardunaldi gastronomikoak; Aste Santua barne.



Jardunaldietako hainbat parte-hartzaile, martitzenean Mankomunitatearen egoitzan egindako aurkezpenaren. | M.B.

Oraingoan, bailarako bildotsa, gatzatua eta Idiazabal jatorrizko gaztarekin egindako menuak dastatu ahal izango dira. Honako jantziak parte hartuko dute: Arrasaten, Hilarion, Hamalau eta Santa Ana; Bergaran, Lasa eta Zumelaga; Elgetan, Maialde hotela; eta Oñatin, Etxe-Aundi, Goiko Benta eta Soraluze. Beti-ko moduan, menu bereziak eskai-

ESANAK

"Bertako sasoiko produktuak menuetan sartzen ditugu"

GABINO IARTZA | HILARION JATETXEA

niko dituzte, bertako produktuekin osatutakoak. Horren harira, hau esan zuen Arrasateko Hilarion jatetxeko Gabino Iartzak joan den astean egindako aurkezpenaren: "Esfortzu berezia egiten gabilta Debagoieneko sasoiko produktuak menuetan sartzeko".

Menuak dastatzeaz gainera, produktuen jatorria, elaborazio

prozesua ezagutzeko eskaintza zabala prestatu dute. Besteak beste, Antzuolako Lapatza base-rira eta Aretxabaletako Mendibitzu eta Gomiztegi bisita gidatuak gertatu dituzte. Martxoaren 10ean Aretxabaletako Areantzako Kanpai Eskola eta Bergarako Larrañaga, Muxika eta Raixabal gozogileen lana ere ezagutu ahal izango da.

X. edizioa: berrikuntzak

AURKEZPENA Bergarako Munibe plazan egingo dute aurkezpen ekitaldia bihar, 19:00etan. Garaiko produktuekin pintxoak banatuko dira, Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideak eskaintako ardoarekin.

AZOKA Martxoaren 17an Arrasaten egingo den Debagoieneko artzainen lehen azokan zazpi gazta ekoizle parte hartuko dute: hain justu, Oñatiko Aldai, Azkarreta, Gomiztegi eta Urriagain; Aretxabaletako Etxezuri eta Mendibitzu; eta Antzuolako Pikunietak.

AUZOLAGUN Auzolagun enpresak ere parte hartu du eta martxoaren 31n enpresa bisitatu ahal da.

'2X1' Gastronomia eskaintza turistikoarekin lotzeko asmoz, 2x1 promozio berezia jarriko dute martxan bisita gidatuetan.

Hamar hilabeteetan 60.000 litro oliotik gora jaso dira edukiontzietan

Eko3r enpresa eta Debagoieneko Mankomunitatea pozik daude emaitzekin

M.B. | ARRASATE

Joan den urteko urtarril amaieran etxean erabilitako olio birziklatzeko edukiontzia bilerako herri guztietan jarri zituztenetik aurtengo urtarrilera arte, 60.709 litro olio jaso dituzte. Eko3r enpresak emandako datuak dira horiek; hain justu, zerbitzu hori eskaintzeaz arduratzen den enpresa. Horrekin batera, gaineratu nahi izan dute beste 400 litro inguru daudela momento honetan makinetan; hain justu ere, urtarrileko hilabeteetan birziklatutako pote asko daudela bertan.

Debagoienean, guztira, etxean erabilitako landare-olioa batzeko 32 edukiontzi daude: hamaika Arrasaten banatuta daude; zazpi, Bergaran; bost, Oñatin; hiruna, Aretxabaletan eta Eskoriatzan; eta bana, Elgetan, Antzuolan eta

Leintz Gatzagan. Guztietatik, olio gehien jaso dituen Oñatiko Olakua auzoan dagoena da: 3.918 litro batu dituzte han.

Herri txikietan gehiago

Eko3r enpresako Eñaut Ruiz de Egin pozik dago orain arte jasotako litro kopuruarekin; datuak positiboak direla, eta, horren harira, nabarmendu du pertsona bakoitzeko litro pasatxo jaso dela. Horrekin batera, gaineratu du biztanle gutxiago dituzten herrietan olio gehiago jasotzen dela. Honakoa esan du: "Herri txikietan gehiago birziklatzeko joera dago; kontzientziario kontua da hori".

Debagoieneko Mankomunitatean ere pozik daude zerbitzuarekin. Jasotako olio kopuruarekin pozik daudela eta zerbitzuak modu egokian funtzionatzen duela nabarmendu dute; lehengo Puntu Berde Mugikorrarekin alderatuta, orain gehiago jasotzen dela adierazi dute Mankomunitatekoek.

DATUAK HERRIKA

HERRIA	LITROAK
Antzuola	2.292
Aretxabaleta	6.748
Arrasate	19.292
Bergara	14.266
Elgeta	1.014
Eskoriatza	4.259
Leintz Gatzaga	213
Oñati	12.625
GUZTIRA	60.709

LEINNeNeko ikasleen 'Un nuevo mañana' saritu dute

M.B. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko (MU) Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza gradu (LEINN) ikasleek irabazi dute MUK bultzatutako Madream 2012 ideia-lehiaketa, Madrilgo Ramiro de Maeztu Institutuko gazteekin batera. Lehiaketaren helburua da gazteek euren negozio-idea aurkeztuz jarrera ekintzailea erakustea.

Gizarte-eragin handieneko proiektuaren saria irabazi dute etxekoek, *Un nuevo mañana* proiektuarekin. Berezko metodologia erabiliz, preso ohiei gizar-teratzen laguntzea du helburu. Horretarako, presoei buruzko hainbat datu hartu ditu kontuan. Saridunek hiru hilabeteko doako egonaldia irabazi dute Madrilgo HUB berrikuntza-zentroan.



Mondragon Unibertsitateko ikasle irabazleak, saria jasotzen. | MU

Miren Artetxe | Garabide elkarteko proiektu koordinatzailea

"Hedabideak dira gure komunitateak munduari begira duen leihotxo"

- ▶ 'Euskararen berreskuratzea. Hedabideak' liburuxka aurkeztu dute
- ▶ Hizkuntzen biziberritzean hedabideek duten garrantzia jaso dute

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Garabide elkarteak *Euskararen berreskuratzea (III) Hedabideak* liburuxka aurkeztu du egunotan. Hendaiako Miren Artetxe dabil azken lau hilabeteotan Eskoriatzan egoitza duen elkarteko proiektuak koordinatzen eta bideratzen. Hain zuzen, Hego Amerikako hainbat komunitaterekin dabilta lanean hizkuntzen berreskurapenean.

Hizkuntza gutxituen biziberritzean hedabideek izan dezaketen eragina aztertu duzue liburuxka horretan. Euskaraz lan egiten duten hedabideen gaineko hausnarketa da?

Liburuxka horrek bi hartzaile potentzial ditu: batetik, hizkuntza gutxituen berreskurapenean lanean dabilzan eragile edo erakundeak. Batez ere, Hego Amerikako komunitateak; eta bestetik, euskaldunak. Eta bi hartzaile dituenez, bi aspektu hartu dira kontuan: batetik, euskal hedabideen laburpentxo bat da; eta bestetik, jakinda zein ibilbide izan duten hedabide horiek, hau da, arrakastak eta hanka-sartzeak, hizkuntzaren berreskurapenean eragina duten gakoak jaso dira, beste komunitate batzuek erabili ahal izateko.

Eta ondorioztatu duzue hedabideek zeresan handia dutela hizkuntzen berreskurapen prozesuetan.

Liburuxkaren bukaeran sintesia egin dugu hamar bat punturekin. Ondorioetako bat aipatzearen, esan behar da hedabideak direla gure komunitatearen leihotxo, bai munduko kontuak sartzen zaizkigun leihoa, bai gu munduaren aurrean aurkezteko leihoa. Gure gutasunaren eraketan daukan garrantziagatik eta gure eza-gutza eta gure hizkuntza besteei erakusteko modu bat delako daukate, hain zuzen, garrantzia.

Hizkuntzen berreskurapenean beste gakoetako bat izango litza-teke hizkuntza estandarra; hori sortzeko ikusi da garrantzia dutela hizkuntzak eta hedabideek, gizartean mamitzen diren hitz berriak hedabideen bitartez zabaltzen direlako. Eta gurekin lanean dabilzan hegoaldeko komunitateek ikusi dute komunikabideen esparrua estrategikoa dela; Ekuador-ko kitxuek, esaterako, apustu garrantzitsua egingo dute horiek garatzeko.

Hedabideen garapen hori hamarraldi bakoitzeko beharrei adi egonda eta aukerak aprobetxatuta lortu dela diozue.

Hemengo esperientzien berri ematen dugunean, badirudi euskaraz bizi izatea normala dela gurean, eta ikastolen edo komunikabideen



Garabide elkarteko Miren Artetxe, Eskoriatzan duten egoitzan, hedabideen gaineko liburuxka esku artean duela. | M.A.

hasierako egoerak ezin ditugu erakutsi. Baina euskaldunok adi egon garela transmititzen saiatzen gara gurekin lanean dabilzan komunitateei, adi momentuko aukera eta zirrikitueta; izan ere, gizarteak egin du lanik handiena, ezereen zain egon barik.

Euskarak badu etorkizunik globalizazio aro honetan?

"Norberaren hizkuntzan bizi ahal izateak indarra ematen du"

"Gure ezagutzak besteei erakusteko modua dira hedabideak"

Baietz esan beharko. Hizkuntza gutxituen alde egiten dugu lan eta sinesten dugu hizkuntza bakoitzak ordezkatu ezin den aberastasuna duela eta dibertsitate horren alde borrokatu beharra dugula; eta sinesten dugu hizkuntza bakoitzak etorkizuna izan behar duela. Baina hori baino gehiago da, guk garapenerako lankidetzan egiten dugu lan hizkuntza gutxituak dituzten komunitateak indartu nahian, eta iruditzen zaigu hizkuntzak elkartasuna sortzen duela bakoitzaren komunitatean, autoestimuan eragina duela eta norberaren hizkuntzan bizi ahal izateak indarra ematen duela edozein erronkari aurre egiteko.

Liburuxka hau proiektu zabalago baten zatia da, Euskararen Berreskuratze bilduma. Proiektu horretan geratuko da jasota orain arte euskalgintzan egindako lan guztia?

Ez. Mila gauza egin dira han eta

hemen, eta ezin dena jaso. Lehenengo lana izan zen gakoak sintetizatzea, gure hizkuntzaren biziberritzean izandako gakoak: hedabideak, hizkuntzaren estandarizazioa, hezkuntza, kultura produktzioa... Eta hasi ginen monografikoak argitaratzen. Iaz hizkuntzaren estandarizazioaren gainekoa egin genuen, bigarrena

"Euskaldunok momentuko aukerei adi egon garela transmititzen diegu"

"Hezkuntzaren gaineko lanarekin proiektua borobilduko dugu"

hedabideen gaineko hau da, eta aurten egin gura da hezkuntzaren gainekoa. Horrekin borobildu egingo genuke proiektua. Hortik aurrerakorik ez dakigu.

Hezkuntzari eskainitako monografiko horretan zer jasoko duzue?

Sintesi lan asko daude eginda hezkuntzaren gainean. Lehenengo fase batean gurako genuke lan egiten dugun komunitate horiekin adostu: zein interes duten, zein arlo landu gura duten... Izan ere, euskaldunendako badaude mila lan eginda.

Hego Amerikako zein komunitaterekin zabilta lanean?

Hainbatekin ibili gara azken urteotan eta egun gabiltza: Guatemalan, maia kaktxikelekin; Ekuadorren, kitxua komunitatearekin; Bolivian, kitxua eta aimarekin; Txilen, maputxuekin; eta Mexikon, naualt eta maia komunitateekin.

Hortaz, helburua ez da bakarrik euskararen berreskurapenean egindako lana jasotzea, komunitate horien dako lana ere bada, ezta?

Horixe; gure esperientzia jasotzen gabiltza, gero, haiek gura dutena hartzeko hortik. Guk ezin diogu inori esan zer egin edo nondik jo; guk geure akatsak eta arrakastak ditugu eta horrekin goaz haiengana. Baina argi dugu gure adibidea mugatua dela, eta gogoeta egiteko bidea bakarrik dela.

Eta komunitate horiek zer diote?

Esperientzia interesgarria da haiendako, ikusten dutelako mende-balekoak izan arren indigenak garela eta gure hizkuntza eta kultura zapalduta daudela. Gure ikuspegitik hizkuntza da gure izaeraren eta euskalduntasunaren muina. Haiendako, ostera, ez da horrela; kitxua izatea, esaterako, ez da bakarrik hala berba egitea, jantzeko era bat da, estetika bat, mundua ikusteko era bat... Kaktxikela izatea, ostera, artoa landatzeko era bat da, harremanak izateko era bat... Hizkuntzaren diskurtsoarekin joaten gara gu, eta haiek beste ikuspegi bat dute; hizkuntzari bakarrik ez dietelako begiratzen.

Hortaz, geuk ere asko daukagu ikasteko komunitate horiengandik.

Bai, horixe, baina ez dugu sinesten ezer ikasteko dugunik. Haiengandik jaso genezake: bizitza ikusteko era, denbora eta espazioa ulertzeko era, ondo bizi izatea zer den...

Garabideren proiekturik ezagunenetakoa Truke Programa da. Arrakasta izaten segitzen du?

Bai, lau Truke Programa egin dira eta iaz, lehenengoz, luzatu egin zen iraupena. Hiru astean behar-rean hiru hilabetean egon ziren gure artean, hemengo esperientziak ikusi ondoren euren esperientziara aplikagarriak izan zitezkeen gakoak identifikatzeko. Horregatik, aditu titulu bat antolatu zen Huhezirekin elkarlanean. Hona datozen kideek izugarriko indarra hartzen dute.

Eta gero jarraipena egiten diezue han dituzten proiektuei?

Bai, noski. Iaz 18 lagun egon ziren gure artean eta bi egunetik behin egiten dugu berba guztiekin. Aurten, gainera, inpaktu txostena egingo dugu orain arte egindako lana jasotzeko.

ZABALIK

OSKAR ELIZBURU
http://goiena.net/iritzia/

Ikusi dozu!

Otsailaren 14an, San Balendin egunian, ikusi genduan. Kultur Aten emon zebe hainbeste maittasunez egindako *Euskaraz bizi nahi dut* bideua, Mondrauen eta mondrautarrok egindakua. Maitteminduen egunian, euskeriarekin maitteminduta gaudenondako oparixa izan zan, ikustekua!

Gure herriko euskalgintzak antolatuta bazeban be, parte hartzia izan da, orainguan, inportantiena.

Euskaraz bizi gara herritar askok eta askok erakutsi dau bideo eder eta alai horretan.

Eta mordua izan giñala ikusteko aukeria eukiko dozue danok; izan be, Goienatik hasi eta bestelako komunikabide guztixetan, elkartietan eta erakundietan dauzkagun komunikazio leku guztixetan ipiñiko dogu danon eskura.

Asko gara euskaraz bizi nahi dogunok, eta hori erakusteko eta benetako aukeria eukitzeko bidia zabaltzeko lehen pausua izan da hau.

Lehen pausua antolaketa-proiektu berrian (lehendik be pausua ugari emonda daukagulako euskeriaren normalizaziñuan).

Lehen pausua esan dotenian, hasieria dalako diñot, euskaraz bizi gura hori ikusgarri egin behar dogulako, toki guztixetan igarri behar dalako.

Bakoitzak, eguneroko horretan guztixetan, erakutsi behar dau gure bideuan erakutsi doguna: asko garala, oso desberdinak, gustu eta ohitura askotakuak... baina egunerokuak egiten, pozik eta naturaltasunez, euskeria erabili nahi dogula. Eta hori egin leikela eta egingo dogula esan dogu, euskaraz bizitzeko bidia zabaltzeko gure apustua hor daguala.

Etorriko dira bestelako deiak, baiña bakoitza hasi deila bere ingurutik eraitten; indarra eta gogua erakusten badogu, gerora, eskertu egingo doskue.

Ikusi dozu!

"Euskeriarekin maitteminduta gaudenondako oparixa izan zan"

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

Emakumezkoak bakarrik

Familiak antolatuta egingo den afari batera gonbidatu naute berriki. Atentzioa afari hori neskendako bakarrik antolatu izanak eman dit, "neskak bakarrik" esan baitute hasieratik. Hala, familiako mutilak kanpo gelditzen dira. Eta ez dut ulertzen. Ez pentsa, kontrakoa ere gertatu izan zait: lagunarteak mutilendako bakarrik den bazkaria antolatzea, alegia. Komentarioa egin eta erantzuna ere jaso izan dut: "Asper-tu egingo zinateke, ez zenuke ondo pasako". Koadrilan gertatu izan zaigu neskak bakarrik elkartzea, baina hala suertatuta, ez alde aurretik horrela erabaki dugulako. Argi dago kontu hone-tan zerbaitek ihes egiten didala.

KALE INKESTA

Ze iritzi duzu haur lapurtuen ustezko sarearen gainean?

IZASKUN URIBESALGO
ARRASATE

"Ez diot jarraipenik egin auziari. Hala ere, uste dut historiak gordetzen duenez informatu behar dela. Elkar kolaboratu behar dute erakundeek".

FUENSANTA ROMERO
ARETXABALETA

"Oso gogorra iruditzen zait hurrekin gertatu zena. Ikertu egin behar dela uste dut. Pena da dagoeneko nagusiak direla asko".

ANA GIJARRO
ESKORIATZA

"Uste dut oso gaizki egin zirela gauzak. Gainera, bere garaian ikertu beharko litzatekeela uste dut. Errudunak zigortu egin beharko lirateke".

ANDONI LOPEZ BENGEOA
ARRASATE

"Nik bi seme dauzkat eta alde horretatik oso tristea iruditzen zait. Delitua preskribatuta egongo da baina uste dut ez lukeela egon behar".

HANDIK ETA HEMENDIK

'Sautrela' ez da desagertuko, keba

Gorka Bereziartua
http://argia.com/boligrafo-gorria/

"Sautrela ez da desagertu" irakurri genuen atzo *Hitzen Uberan* webgunean. "Ez dugu horrelako erabaki bat hartu. Batzuetan 26 atal egin dira urtean, beste batzuetan 33. Aurten, 13 dira egingo ditugun atalak". Aurrera begirako zehaztasunik ez Joselu Blancok. Datorren urtean beharbada 6? Agian 3? Akaso 0? Baina zer diok? *Sautrela* ez duk desagertu: tabako bila joan duk, berehala zetorrek bueltan. Seguru ia urtero emitituko dituztela programa berriak aurrerantzean ere: ia emitituko dituzte 2013an, ia emitituko dituzte 2015ean... Ez dute *Sautrela* telebistatik kendu nahi, ez, ez, eta ez. Solo ke, *El Conquistador del fin del mundoren* arrakasta ikusita eta Célinen nobela gomutan, *Gauaren muturrerainoko bidaia* izeneko saio berriari ekingo diote aurki.

Hemen behean, programa pilotua. [Sarean lotura]

Ez gaitzateleta engaina, *Sautrela* desagerrarazi nahi dute. Telebista programak ezin dira izan talde armatuen zelula lokartuak

bezalakoak, orain gordean, orain aktibo, hiru hilabetez emititu eta gero ikusiko dugu ea muniziorik badagoen zuentzat. A, ba ez, sentitzen dugu, Patricia Gaztañagaren komandoak baliabide gehiago behar ditu. Logistika arazoak dira, *e-ko-no-mi-ko-ak...* Badakizue gauzak nola dauden, tele-terrorismoak ere garai zailak bizi ditu eta ekintzaile espezializatuenak bakarrik *liberatu* ditzakegu.

Gainontzekoei, ba, deituko dizuegu hauetako batean *si eso*. Saioa egin duten profesionalak telefonoaren ondoan egongo dira zain. Bai. Eta bitartean, hodeiak bazkalduko dituzte.

Gaiak daukan dimentsioa dauka. *Sautrela* euskal literaturarentzat eskaparaterik onenetakoa da; eta halere, isil-isilik geratuko gara, "audientzia txikia zeukan", "ez zegoen sosik, zer nahi duzu ba", konturatu gabe horrelakoak direla benetako erabaki politikokoak EITBn.

Kulturari eskainitako espazioak kentzeak kalte handiagoa egiten baitio "herri proiektu"-ari informatiboen ildo editorialak baino.

PS: Udazkenean ere kontu honekin bueltaka ibili ginen, sosegatuago, akaso.

Ñabardurak

Pello Urzelai
http://berria.info/blogak/pello/

Zer esanik ematen ari da Espainiako Barne ministro Jorge Fernandez Diaz, adierazpenak direla medio.

[...]
Rosa Diezen hitz gogorreki aurre egin behar zien Barne ministroak.

Ika-mika horretan, ETaren arazoak gaur egun "dimentsio politikoa" duela aitortu zuen ministroak.

[...]
"Garaipen politikoa" lortu beharraz ari zela zehaztu nahi izan du.

Azalpen eta ñabarduren gainera, aitortpena gelditu da.

ETaren fenomenoari dimentsio politikoa onartzea gatazkaren izaera politikoa zati bat onartzea baita. Zeharka bada ere.

Hitz hartze parlamentario batean adierazitako hitz batzuetatik ezin da ondorioztatu PP gatazka politikoa onartzeko bidean dagoenik, ezta dimentsio politikoa lehenesteko prest dagoenik ere.

Pentsa liteke, ordea, diskurtsoa egokitzen hasi dela, errealitateak behartuta.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Goiatz Arana
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

IRABAZLEA

KANTARIKO WII KONTSOLA

LEIRE CALVO MENDIA

(ARETXABALETA)

ZORIONAK!



HURRENGO IRABAZLEAK
Eta hurrengo astelehenean, otsailak 27, kafetera eta "Aita zombia naiz" filmaren kamisetak eta sarrerak. Adi egon!

OTSAILEKO SARIAK

SARRERAK

Aita Zombia Naiz filmerako gonbidapena.
Bidali KLUBA ZONBIA
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



2012 Goya Sarietan
ANIMAZIOZKO PELIKULA
ONENA kategorian finalista
suertatu da.



* Bi pertsonarendako gonbita.
Ezinbestekoa da leihatilan trukatzeko nahi den egun eta emanaldirako.

KAFE-MAKINA

Nescafé Dolce Gusto Krups kafe-makina.
Bidali KLUBA KAFETERA
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



Krups kafe-makina
• Presioa: 15 bar
• 1,3 litroko ur-ontzia, ateratzekoa
• Bi urteko garantia
Neurriak: 21,4 x 31,5 x 33



SARRERAK

Eureka! zientzia museorako
gonbidapenak.
Bidali KLUBA EUREKA
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



* Bi pertsonarendako gonbita.
Irabazle suertatu ondoren hiru hilabeteko epean joan beharra dago.

Parte
hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.com

2012an atera etekina txartelari



AQUARIUM
Donostia, 943 44 00 99
• Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)



ARGIA
Lasarte-Oria, 943 37 15 45 - 943 37 34 03
• %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan



AVIA MECA GASOLINDEGIA
Arrasate, 943 79 13 39
• %2 gasolindegian erregaia erositako.
• %2 dendako produktuetan



BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta, 943 79 98 21
• -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.



GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA
Eskoriatza, 943 71 43 41
• %50 deskontua lehenengo kontsultan.



ESKO SPORT KIROL DENDA
Eskoriatza, 943 71 52 96
• -%10 produktu eta zerbitzu guztietan



GAES ENTZUMEN ZENTROA
Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
• %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



GUZTIZ EDER EDERTZE ZENTROA
Oñati, 943 78 01 46.
• Termason (zelulitisaren aurkako tratamendua, tinkatzea eta birmoldatzea). Hamar saio hartuz gero, %10eko deskontua.
• Aurpegiko azala berritzeko eta orbanak kentzeko, Glycobest inhibitzaile despigmentatzaile programa: %7ko deskontua.
• Argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan %5eko deskontua (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).



IKER SUKALDEAK
Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
• Sukalde osoa erositako mikrouhin-labea opari.



LASTAI
Gasteiz, 945 35 85 59
• Helduentzako atsedean arloan, %5eko deskontu gehigarria.
• %5eko deskontua haur-kotxe eta automobilerako segurtasun-aulkietan.
• %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobilerako segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehungaietan.
• %10eko deskontua denboraldiko haur-arropen.
(Beharpenetan eta eskaintza berezietan izan ezik)



LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Bergara, 943 76 31 71
• -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterondoak (besapekoak opari).
• -%20 elikagai-intolerantzia proban.
• -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
• -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
• Bazkidearentzat eta lagunarentzat



JAIXAK
Bergara, 943 76 31 45
• %10eko deskontua 20 eurotik gorako erosketetan.



MULTIOPTICAS
Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
• %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA
Aretxabaleta, 943 08 21 89
• -%15 zerbitzu guztietan.



RENAULT AUTOBERRI
Arrasate, 943 71 24 72
• -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
• -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
• Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
• Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.



TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA
Donostia, 943 46 44 00
• Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)
• -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)
• -%10 zubi eta oporraldietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
Donostia, 943 01 24 78
• %10 deskontua museoko eta Donostia planetariumeko sarreran eta astronomia jardueretako kuotan.

goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Mikel Arantzabal | Herri Batasuneko zinegotzia Aramaion (1991-1995)

- ▶ Zerbitzuen batzordeko zinegotzi izan zen lau urtez
- ▶ Aurretik Bergaran ere izan zen zinegotzi
- ▶ Udalean emandako lau urteen oso oroitzen politak ditu

"Zerbitzuei dagokienez behar asko zituen Aramaio; garai hartan gauza asko egin ziren"

MIREN ARREGI | ARAMAIO

Angiozarkoa sortzez, 1984a ezkerro bizi da Aramaion Mikel Arantzabal. Bergaran egon zen zinegotzi, eta gero Aramaion. Aramaion Herri Batasunetik Zerbitzuetako zinegotzi eman zituen lau urteak ekarri ditugu gogora.

Nolatan animatu zinen zerrendetan izena ematera?

Aurrez Bergaran izan nintzen zinegotzi. Herri txikietan, gainera, badakizu zer gertatzen den. Toki guztietan bezala, jendea behar izaten da zerrendak osatzeko, eta, esperientziaduna izanik, galdezka etorri zitzaizkidan. Nik ez nuen zalantzarik izan.

Zein zengiroa Udalean garai hartan? Eta zein zen testuinguru politikoa?

Oso oroitzen onak ditut. Elkarren artean oso ondo konpontzen ginen, ez genuen inolako arazo pertsonalik. Noski, bereziki gai politikoekin kontrako iritziak izaten genituen, baina hori ere naturaltasun osoz eramaten jakin genuen. Herriko kontuei zegokienez, berriz, oso ondo konpondu ginen.

Jose Ramon Uribe zen alkate orduan. Zerbitzuen batzordea, baina, zuen esku zegoen.

Bai. Eak zeukan alkatetza eta gu ez geunden Udal Gobernuan, baina batzordeak banatu egin ziren zinegotzi guztien artean. Gure proposamena izan zen ordezkari politikoak aukeratzeko erabiltzen zen lege bera aplikatzea batzordeekin ere. Guri batzorde bat tokatzen zitzaigun, eta Zerbitzuena hartu genuen.

Zein behar zituen orduan Aramaio zerbitzuen alorrean?



Mikel Arantzabal, Barajuen auzoko tutu edukiontzia ondoan. | MIREN ARREGI

Beharrak asko ziren eta egin ziren proiektuak ere bai. Esaterako, garai hartan, auzoetara iristen zen ura ez zen edangarria. Herri-gunean bazegoen kloratzaile

le bat, baina auzoetan ez. Ez zen erraza, kloratzaileak behar ziren auzoetarako eta argindar hartu-neak behar zituzten horiek. Inbertsio handia egin genuen ura toki

guztietan edangarria izan zedin, eta lortu egin genuen. Baina ez hori bakarrik; izan ere, zaborra jasotzeko auzoetan zeuden edukiontzia haizeteetatik babestu



Mikel Arantzabal eta Aitor Axpe, 1994ko osoko bilkura baten. | M.A.

"Ez dut ahaztuko udaletxean ikurrina ipini genuen eguna; oso polita izan zen"

"Argindarra herrian sortzeko ahalegina egin genuen; ez genuen lortu"

genituen harrizko itxitura batzuen bitartez. Oraindik hor daude. Auzoetan suteei aurre egin ahal izateko tutu malguak ere ipini genituen. Asko kostatu zitzaigun dirulaguntzak lortzea, baina, azkenean, hura ere egin genuen.

Zer bait gelditu zitzaizun egiteke?

Orain dela urte mordo argindar etxe bat egon zen Aramaion. Bertan sortzen zen herrirako argindarra. Nire helburuetako bat izan zen hura martxan ipintzea. Sistema hidraulikoa zen. Jari ginen harremanetan Euskadiko Energia Estrategia erakundearekin, ikerketa mordo egin genituen eta ahalegin handiak hura martxan ipintzeko; azkenean, baina, ezin izan genuen. Pena horrekin gelditu nintzen.

Badakit zuretzat bereziki polita izan zen momentu bat badagoela.

Ikurrina udaletxean ipini genuen eguna. Udalean sartu berriak ginen. 1991ko irailaren 11 zen, eta Euskadi mailan hainbat herritan udaletzeko balkoietan ikurrina ipintzeko mozioak aurkeztu ziharduten. Herri Batasuneko bi zinegotzi geunden orduan eta gure proposamena izan zen ikurrina ipintzearena. Eak bat egin zuen gure eskariarekin eta ipini egin genuen. Oso momentu hunkigarria izan zen!

Zer eman zizun pertsonalki Udalean egoteak?

Oso gustura egon nintzen. Horrenbeste murgildu nintzen herriko lanetan, konturatu orduko bukatu zen agintaldia. Noski, dena ez da polita, eztabaida asko izaten baitira. Orokorrean, baina, oso oroitzen onak ditut.

MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA



HERRIAK



Eraikinaren irudi zaharra, lorategia aurrean zuela. | AITA MENNI



Eraikina atzetik ikusita. 1948. urtean ateratako argazkia da. | AITA MENNI



1.948. urteko ikuspegi orokorra. | AITA MENNI



Eraikina botatzeko lanak aurrera doaz. | AMAIA TXINTXURRETA

ARRASATE

Aita Menniren eraikin "sinbolikoa" desagertzeaz

- ▶ 1900. urteko Jesusen Bihotz Sakratua eraikina botatzen hasi dira
- ▶ Askotariko patologia psikiatrikoko emakumeak artatzen zituzten bertan

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Mende bateko historia duen eraikina botatzen dabiltza Arrasateko Gesalibar auzoan: Aita Menni ospitaleko Jesusen Bihotz Sakratuaren eraikina. Pena handia dute Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ostalarien Kongregaziokoek emakumeen ospitaleko "lehen eraikina" zelako. Horren harira, kongregazioko Ama Nagusi Sor Rosak honakoa esan digu: "Guretao sinbolikoa da eraikina; balio sentimental du, gure printzipiotara lotuta dago. Baina eraikina zahartuta zegoen".

Ama Nagusiak oroitzapen politak ditu: "Hiru solairuko eraikina zen. Asistentzia-zerbitzu guztiak zituen, hala nola, Ospitaleratze unitateak eta kanpora irten ezin ziren gaixoendako errehabilitazio tailerrak. Guztion-

dako gelak eta jantokiak, banako gelak eta terapia gelak ere bazituen; horretaz gainera, atzealdean bi lorategi eder ere bazituen".

Gesalibarren zegoen bainu etxearen jabe ziren Mendiatarrek, 1897an izandako Canovas del Castilloren hilketaren ondoren bainu etxeak jasandako beherapenagatik, instalakuntza guztiak salgai jarri zituzten. San Juan de Dios

Ordenaren ordezkari eta Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ostalarien Kongregazioko fundatzaile Benito Mennik salgai zegoela jakitean erostea erabaki zuen, ospitale psikiatrikoa zabaltzeko asmotan. 1898ko ekainaren lehen Santa Agedako osasun etxea inauguratu zuten; jarraian, Mennik emakumeendako unitatea egitea erabaki zuen, eta 1900. urtean

buruko gaitzak zituzten emakumeak hartu ahal izateko eraikina egiten hasi ziren. Aramaio ibaia-aren gainean kokatuta, askotariko patologia psikiatriko gaixoak artatu zituen.

Ogia ospitale osorako

Beharrak hala eskatuta, instalakuntzak gehitzen joan ziren hurrengo urteotan San Benito Pabilioia

eraikiz. Lanak ez ziren hor amaitu Arrasatek Aramaioa doan errepidearen bi aldeetan eta 1921n, errepide azpian tunel bat egin zen bi aldeetako pabilioiak lotuz, batzuetatik besteetara errepidea gurutzatu beharrik ez izateko. Handik gutxira, beste pabilioi bat egin zen; gaur egun okindegia bezala ezagutzen zena eta hori botatzea ere aurreikusita dagoena. Horren ekipamenduen artean gaixoendako sukaldia zegoen han, eta besteak beste, ospitale osorako ogia egiten zen.

Bihotz Sakratuaren eraikina funtzionamenduan izan zen errepidearen beste aldean eraikin berria eraiki arte; hain justu ere, 2002. urtera arte. XX. mende hasierako eraikin bat gaur egungo legeek eskatzen dituzten neurrietara egokitzea ez da samurra, mugatuta dardelako, eta hortaz, eraikin berria egitea erabaki zuten. Hori amaitzean, zerbitzu guztiak hara eroan ziren, eta eraikina hutsik geratu zen.

Eraikinok bota, hondakinak erretiratu eta lurra garbitzeko prozesua bi hilabetez luzatuko dela dio obra buruak; Trapagarango Lezama enpresak dihardu han lanean. Horren harira, honakoa esan digu: "Eraikina polita izan arren, barrutik egur guztia ustelduta dauka". Obrak amaitzean hutsik geratuko da lurzorua; oraingoz ez dago inongo asmorik.

Hiru solairuko eraikinak atzealdean bi lorategi eder zituzten

Orain dela hamar urte ospitaleratze unitateak eraikin berrira eroan zituzten

Obrak amaitzean hutsik geratuko da lurzorua; ez dago inongo asmorik

Aratusteek kolorea eta alaitasuna ekarri dute gurera

- ▶ Aurten ere parte-hartze handia egon da eta herritarrak paperean guztiz sartuta ibili dira
- ▶ Gaur egungo albisteetan inspiratuta, parodia ugari mozarroak izan dira bailarako herrietan

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Aratuste jaiek alaitasuna eta umore ona ekarri dute beste urte batez gurera. Bailarako herriak kolorez jantzi dira egunotan eta sekulako mozarro eta karrozak ikusi ahal izan ditugu han eta hemen. Herritarrak paperean guztiz sartuta ibili dira, gainera.

Saltzaile ugari Aretxabaletan
Kintoen txino dantzarekin hasi zen giroten atzoko goiza Aretxabaletan. Euriari aurre eginez, kaleak karrozaz eta jendez bete ziren. Aipatzekoa da saltzaile ugari izan zirela: batetik, Aretxabaletako futbol taldeko kideek tonbola bat jarri zuten herriko plazan eta jokalaria sariz mozarrotuta herritarren artean zozkatu zituzten; bestalde, mozarro festarekin bat egitea atsegin duen herriko sakristauak ere ez zuen hutsik egin eta barkillo saltzaile moduan irten zen.

Ijitoen ezkontza batekin ere gozatu ahal izan zuten aretxabaletarrek, eta ezkontza bakarrik ez, Fragaren hileta-elizkizuna atzeratu eta PP-ko kide batzuk ere izan ziren Fragaren gorpua bertan zutela. Azkuna eta Kuku-tza gaztetxearekin ere egin zuten parodia beste batzuk.

Bestalde, Julian Iantzi *El conquistador del fin del mundo*-ko partaideekin izan zen, Patagoniatik zuzen-zuzenean Aratusteekin disfrutatzen etorrira (ume eta guzti irten zen koadrila). Esan zigun aztertzen dabilzala hurrengo edizioa Urkulu aldean egitea.

Patxabaleta izeneko disko-teka ibiltari batek eta beste batukada koadrila batek musikaz girotu zituzten kaleak, baita sevillarren karrozek eta mexikarren kantinek ere.

Piratek hartu zuten Arrasate
Biteri plaza jendez lepo zegoela, pregoia txikiteroz mozarrotutako koadrilak eman zuen zapatuan Arrasaten. "Bilbotarrak, aupa Aste Nagusia!" oihukatu zuen batek eta Aratusteak ondo pasatzeko esan ostean, ardo tragoxka bat hartu eta kantuan hasi ziren. *Urdanga Arin* izeneko sagardotegi bat ere aurkitu genuen. Eta *OtsailaFest* aitzaki hartuta, beste koadrila bat tiroldar moduan jantzita irten zen kalera.

Hala ere, Arrasaten gehien errepikatu zen mozarroa, duda barik, piratena izan zen. Kanean jende asko ikusi ahal izan genuen horrela jantzita eta piraten hiru

itsasontzik desfilatu zuten herriko kaleetan.

Bitxikeri moduan esan genezake gazte talde batek garai bateko Seber Altubeko *La Rox* kioskoa zabaldu zuela. A ze nolako oroitzapenak arrasatearrei ekarri zizkienak! Bestalde, Akelarre jantzita zihoazenen benetako ahuntz bat eraman zuten bizirik karroza barruan, baina bazkal orduan ahaztu zuten lau hankakoa; ahuntza bakar-bakarrik gelditu zen karrozan.

Umore ona denean

Eskoriatzan sekulako giroa izan zen egun osoan, eta parte-hartzea sekulakoa; mozarrotu gabekoak gutxi batzuk izateraino. Bergaran, arratsaldetik aurrera berotu zituzten motorrak. Eta Leintz Gatzagan, arrakasta izan zuen aurten estreinakoz egin den herri bazkariak.

Bihar gehiago

Aratusteak, baina, oraindik ez dira bukatu. Bihar, besteak beste, Oñatiren txanda izango da: asteburua dantzan eman eta gero, mozarrotu egingo dira.



XVII. mendetik etorritakoak gustura ibili ziren Arrasateko kaleetan barrena. Bertan koadrila



Mortadelo eta Filemon txantxa giroan ibili ziren Aretxabaletan. | J. ARANTZABAL



TXIKITEROAK
ARRASATE

"Aurtengo Aratusteei guk emango diegu hasiera eta festarekin hasteko gertu gaude. Ez dugu mozarrotzeko imajinario handiegirik eduki baina helburua ondo pasatzea da. Abesti batzuk kantatuko ditugu guztion artean, ardo pixka bat ere edango dugu txikitero onen moduan eta festa eta festa egingo dugu gaurko egunez. Eguna ondo hasi dugu baina nork daki nola bukatuko dugun!"



URDANGA ARIN SAGARDOTEGIA
ARRASATE

"Sagardotegi eder bat ekarri dugu Arrasatera. Hotz egiten du eta berotzeko ezinbestekoa da zerbait edatea, beraz, Urdanga Arin izeneko sagardotegi jarri dugu. Zergatik izen hori? Gaur egun oso ezaguna egiten ari delako. Sagardoa, txorizoa, txuleta... denetarik daukagu gurean eta gaurko egunak ematen duenaren arabera erabakiko dugu sagardotegi Arrasaten mantendu edo ez".



PIRRITX ETA PORROTX
ARETXABALETA

"Ezagunak gara eta haur asko hurbiltzen zaizkigu galdezka, baina esan beharrean gaude gaur ez gara hona etorri ikuskizunik eskaintzera. Aretxabaletako Aratusteak oso entzunak eta ospetsuak dira eta ondo pasatzera etorri gara; ohiko legez, hori bai, dantzan eta kantuan aritzeko asmoa dugu. Ikaragarri ondo pasatzen gabiltza, izugarri giro ona dago".



a onenaren saria irabazita, domekan Aretxabaletan izan ziren. | AMAIA TXINTXURRETA



Kolore biziko tximeleta. | J. ARANTZABAL



La Rox bere postuan. | AT



Gehisaz jantzitako umea. | JA



Jan baino gehiago egin zuen argazkiko koadrilak; tartean, herri kirolak. | JA



Aqui no hay quien viva telesailako Recio arrain freskoa saltzen, Aretxabaletan. | JA



musika talde ezaguna Aramaion izan zen. | IRATI GOITIA



Alixiak Eskoriatzan aurkitu zuen herrialde harrigarria. | GOIATZ ARANA



EZKONTZA IJITOA
ARETXABALETA

"Oso egun garrantzitsua da gaurkoa, izan ere, senitarteko bat ezkontzen zaigu. Gu izatez aretxabaletarrak gara, baina hemen daude Irungo, Albaceteko, Mendiolako edota Donostiako lehengusuak ere; denok elkartu gara. Etxean genuen urre guztia daramagu soinean, gaurko egunak merezi du-eta. Primeran gabilta Aretxabaletan".



ESKO HIPPY-EN KOMUNA
ESKORIATZA

"Lehenengo aldiz hartu dugu parte desfilean eta oso esperientzia polita izan da. Inoiz baino jende gehiago animatu da, gainera. Ez dut uste saria irabaziko dugunik, izan ere, batzuek izugarrizko lana egin dute eta gu azken unean ibili gara dena prestatzen; akaso, hurrengo urtean. Bazkarian ere izan gara eta izugarrizko giro ona egon da, oso ondo pasatu dugu".



POL-POL ESPEDIZIOA
BERGARA

"Everest-a da igotzeko gelditzen zaigun mendi bakarra. Aurten inoiz baino hobeto gaude prestatuta eta hiru edo lau egunean gailurra egiteko asmoa dugu. Zortzi laguneko talde indartsua dugu. Egunero hiruzpalau aldiz igotzen gara Aizkorriera eta dagoeneko prest gaude. Hemen kokatu dugu gure kampamendu nagusia eta bertan egingo dugu lo gaur; aklimatazio kontua da".



Ia herri guztia mozorrotu zen Leintz-Gatzagan. | MAIDER ARREGI



Itsasotik zuzenean etorritako marinelak, Arrasaten. | JA



Jugoslaviatik komun-ontziak eta guzti etorri ziren. | AT



Antzuolan dantza saioa egin zuten atzo; goian, sorgin dantza egiten. | IG



Musikari koadrila bariku iluntzean Elgetan. | JA



Neskatala kizkurtuta. | JA



Eskoriatzako plaza jendez lepo, Egan taldearen kontzertuaz disfrutaten. Bazkal ostean, desfile jendetsua egin zuten oso. | JOSETXO ARANTZABAL



Zugarramurditik, akelarrea. | JA



Erretiratuak Benidormera. | JA



Aurtengo kintoak txino dantza egiten, Aretxabaletan. | JA



Gladiadoreak argi, ezpata eskuan hartuta. | JA



Dotore ileorde eta txapelaz. | JA



200 oñatiar inguru ibili ziren dantzan, zapatuan, herriko kaleetan. | JA.



Aretxabaletako sakristaua eta konpainia, barkilloa saltzen. | JA.



Bikotea bilatzeko, askok eman zizkioten zazpi buelta Urkiolako harriari. | AT.



Ikasle koadrila beteranoa, estudiantzeko gogo plantak egiten. | AITOR AGIRIANO.



Panpinak, animaliak, marrazki bizidunetako pertsonaiak... denetarik zuten UDAkoek tonbola erraldoian. | JA.

Mozorro onenak saritu dituzte

Urtero moduan, mozorro lehiaketak egin dituzte Debagoieneko hainbat herritan. Datozen erroetan daukazue sarituen izenak.

ARETXABALETA

Helduen mailan hauek dira irabazleak, hurrenez hurren: Tonbola, *Barbie*, igeriketa sinkronizatua, barkillo saltzailea eta Mortadelo eta Filemon. 16 urtetik beherakoen sailean, berriz, hauek irabazleak: *Rocky*-ak, erromatarrak, Mourinho eta Guardiola, saskibaloiko kantxa eta *Cambio de guardia*.

ARRASATE

Koadrila onenaren saria *Bella Époça* taldeak irabazi zuen. Karroza onena, berriz, bikingoena izan zen. Nesken sari berezia paraxut jantzitako bikotearendako izan zen eta mutil bereziaren saria Michael Jackson-i bizia eman zion Oier Arregik eraman zuen. Taberna dotoreena, berriz, Osorik taberna izan zen kobazuloz apainduta.

ESKORIATZA

Helduen mailan 300 euroko bi sari banatu zituzten eta Ipuin klasikoak eta Esko Tour taldeak irabazi zituzten. 200 euroko beste bi sariak hauendako izan ziren: Alixirendako, bata, eta Amets bizia taldearendako, bestea. 100 euroko sari bat, berriz, Iker presidente koadrilarendako izan zen eta beste 100 eurokoa Once taldearendako. 16 urtetik beherakoen mailan, berriz, hiru talde hauek irabazi zituzten afari meriendak: Pitufilandia, mariñelak eta txiringitoak.

ARAMAIO

Helduen artean lehenengo saria Manteilatuko taldeak irabazi zuen eta bigarrena KISS musikariak. 14 urtetik beherakoen arteko lehenengo saria, oster, *Monster High* taldeak eskuratu zuen eta bigarrena, berriz, Robotlandiak eraman zuen.

Aurtengo Aratusteetan parte-hartze handia egon da eta balorazioa oso positiboa da

Orokorrean, Aratusteak ospatu dituzten herrietan parte-hartze altua egon da eta balorazioa positiboa da.

Aretxabaletan, urtero moduan, kalitate handiko karroza eta mozorroak izan dira eta jendetza ikaragarriak hartu du parte bai desfilean, eta baita ikusle moduan ere.

Arrasaten, zapatuko herri bazkarian 700 lagun inguru elkartu ziren eta Harristi komisioko kideak balorazio oso positiboa egin zuen. Eskoriatzan, 250 lagun inguru izan ziren bazkarian eta inoiz baino koadrila gehiago aurkeztu zirela lehiaketara esan zigun Arantxa Unzueta Kultura teknikariak: 16 urtetik beherako zazpi talde eta helduetako 17. Aramaio herri bazkarian, berriz, 60 lagun inguru elkartu ziren eta mozorrotzerako orduan herritarren artean parte-hartze altua egon zela adierazi zigun Lierni Altunak. Leintz Gatzagan, aurten estreinakoz egin zuten zapatuan bazkari herrikoa eta 45 heldu eta 18 ume eta gazte izan ziren bertan. Gurel elkarteko Imanol Saez de Viterik esan zigun giro ederra izan zutela eta herritarrak oso pozik egon zirela. Bergaran ere herritarrak oso gustura pasa dituzte Aratuste jaiak eta herritar ugari ibili ziren mozorrotuta zapatuan. Koadrila askok, gainera, karroza oso landuak atera zituzten kalera. Oñatin, 210 herritar inguru animatu ziren Oñatz dantza taldekoekin dantza egitera eta Arkaitz Bengoa kidea oso pozik gelditu zen ikusitakoarekin.

Elgetan eta Antzuolan ere herritarrak mozorrotuta ibili ziren eta horiek ere giro onean igaro dituzte aurtengo Aratusteak.

Piratak, pottokiak, mendizaleak eta sevillarrak izan dira aurtengo mozorro errepikatuenak

Asteburuan herri guztietan ikusi ahal izan ditugu pirataz mozorrotutako pertsonak. Arrasaten, esaterako, hiru karroza egin zituzten piratek eta beste hainbeste itsasontzi irten ziren desfilean.

Aretxabaletan, Bergaran eta Antzuolan, besteak beste, kolore urdineko pottoki ugari ikusi ahal izan ditugu: batzuetan, neska-mutil koadrila gazteak izan dira horrela jantzita irten direnak; beste batzuetan, berriz, karroza eta guzti atera dira nagusiagoak. Aretxabaletan, adibidez, auto batek egiten zuen tira pottokien karrozatik eta Durana kalean autoaren atzeko karroza kendu egin behar izan zuten autoak ezin zuelako pisu hori eraman. Hala ere, pottoki guztiak gustura ibili ziren.

Egunotako eguraldia dela-eta, batek baino gehiagok aukeratu zuen mendizale bezala bero-bero jantzita irtetea eta bailarako herri gehientsuenetan ikusi ditugu horrela jantzitako gazte eta helduak.

Bestetik, dagoeneko klasiko diren mexikarrak eta sevillarrak ere izan ditugu bailaran. Bateko zein besteko musikaz girotutako karrozak izan dira han eta hemen, eta horietako dantzak ikasita, jendaurrean erakutsi dituzte debagoiendarrek.

Asko errepikatu diren beste mozorro batzuk hauek izan dira: indioena, bakeroena, mexikarrena, bikingoena, sorginena eta etxeko txikiaren artean berotan joateko pentsatutako animalien mozorroak errepikatu dira gehien.



Casa Ceciaga 1907. urtean; argazkian, Ceciaga familiakoak, izeba baten jaunartzean. | CECIAGA



Loli Ceciaga, Marimar Martin, Rosarito Ceciaga eta Ines Gardoki, ugazaba eta langileak. | U.M.

"Korapiloa daukat tripetan, baina agur esateko unea da"

- ▶ Ateak itxi behar ditu Ceciaga dendak 104 urteko ibilbidearen ostean
- ▶ Dendan eta goiko solairuan duten generoa saldutakoan itxiko dute

UBANE MADERA | ARRASATE

"Nire bizimodua hau izan da. Eta asko gustatu zait, jendearekin egon... euren kontuak hona kontatzera etorri izan dira. 'Nora joan? Ba Ceciaganera!'. Hau izan da doako psikologo zerbitzua, emakumeendako batez ere. Etorri dira gurusoak, gazteak, birramonak... Beti esaten dut: lehenengo patukoak egiten ditugu, gero amantalak ikastolarako, gero baserriar jantziak, gero Maritxurakoak... eta hurrengo belaunaldiarekin ere berdin", kontatu du Rosarito Ceciagak.

Izan ere, 55 urte egin ditu lanean, 40 pasa Loli ahizpak, "egunero-egunero-egunero". Domeketan bakarrik ixten dugu. Eta ordutegia ere lehengoa dugu: 09:00etarako zabaldu, ze lehen mezutako jendea etortzen baitzen. Hala segitu dugu eta orain ere jendea 09:00etan etortzen da; arratsaldean 16:00etan zabaltzen dugu, itxi arte".

Erretiroak agindutako itxiera

Orain, berriz, behin betiko itxiko dituzte ateak, erretiro eta osasun kontuek aginduta. "Korapilo handia daukat. Hasieran pentsatu genuen

100 urte betetzerakoan ixtea, baina gustura geunden, eta aurrera. Iaz, baina, gizonak iktusa izan zuen, eta, ondo dagoen arren, laguntza behar du. Bestalde, nik zapatuan 71 urte egin behar ditut, eta pentsatu genuen aurten dela ixteko momentua" dio Rosaritok.

"Malko asko jausiko dira, dagoeneko negar egin dugu dendako izkinan", aitortu du Lolik.

Orain, saltokiarekin zer

Behin itxita ez dakite zer gertatuko den saltokiarekin. "Seme-alabek euren lana dute. Ikusi dute hemen

zenbat lan egin behar den, eta ez dute gura. Orain arte ez dugu jakinarazi itxi egin behar zela. Proposamenetara zabalik gaude".

Mertzeria baino gehiago

Ez dakigu ze etorkizun izango duen saltokiak, baina iragan luze askoa duela bai. 1907ko Santamasetan zabaldu zuen Julian Ceciaga *Kirten*-ek, alabendako. "Santamasetan zabaldu zuten, egun hartan baserrietatik jaisten ziren-eta, urteko erosketa egitera. Kopinak, jantziak, kuku-ordulariak, alfonbrak, gortinak... geneuzkan. Orain 60 bat urte hasi ginen mertzeria moduan. Oihalak ere saltzen ziren orduan, jostunak zeuden-eta lanean. Gero, konfekzioa hasi zenean, mertzeria moduan segitzea erabaki genuen". Hori izan da Ceciagaren arrakasta: "Denetik izan dugu: ume, gazte, emakume, gizonendako... kuleroak, galtzontziloak, sujetadoreak..."

Orain, beraz, burukomin handia izango da arrasatear eta inguruko askorendako non erosi Santamasetako jantziak, barrukoak... Itxi baino lehen aprobeztatu behar.

Rosarito eta Loli Ceciagaren esker ona, familiari, lankideei eta bezeroei

Casa Ceciaga-ko oraingo aurpegia garen hauek omenaldia eskaini nahi diegu istorio honi bizitza eman zioten (eta dioten) guztiei.

Hasteko, gure aitona-amona Julian eta Rafaelari, familiako enpresa sortzeagatik. Ondoren, gure izeba Enkarna eta Esperantzari, hasierako dendaren jarduera anitza jaso eta mertzeria sortu izanagatik.

Gure guraso Heriberto eta Eugeniri, dendaren atzeko aldetik beraien esfortzu isilarekin familia osoarentzat lan egiteagatik. Maritxu Lasagabasterri, denon laguntzaile zintzoa izateagatik.

Tia Juanita eta Begoñari, ahal izan zigutenean laguntzeagatik.

Gure enkarguak josi eta brodatu dituzten jostunei. Gure hornitzaileei...

Urte guzti hauetan gure bezeroei arreta ona eskaini dieten "neska" guztiei eta bereziki Kontxita eta Mertxe Zarragoari, Rosiri, Marisari, Rosa Mariri, Pretriri, Mertxe Plazaolari, Natiri, Josune eta Nagoreri eta oraindik gurekin jarraitzen duten Ines eta Mari Marri.

Eta nola ez, Arrasateko eta Debagoieneko gure bezeroei euren konfiantza eta estima eskaintzeagatik.

Ceciaga baino lehen, zer?

Julian Ceciaga *Kirten*-ek zabaldu zuen Ceciaga denda, alabendako, 1907. urtean. Hura baino lehen, baina, beste negozio batzuekin ere ahalegindu zen gizon ekintzaile hura:

ZINEMA Arrasateko lehen zinema ekarri zuen. Zaldibar parean ipini zuen, Carmetal fabrikari. Baina jendeak diru nahikorik ez, eta porrot egin zuen.

DILIGENTZIA Pertsonak eta jeneroa (batez ere lastoa) garraiatzeko dilgentzia muntatu zuen gero. "Batez ere, lastoa garraiatzen zuen, Gatzagatik-eta, baina pertsonak ere bai. Adibidez, Angiolillo urkatu zutenean jende mordoan eraman zuen hura ikustera, Bergarara". Baina gaixotasun batek zaldi guztiak akabatu zizkion.

GASOLINDEGIA Herriaren erdigunean gasolindegia zabaldu zuen horren ostean: "Baina gorriak izatearren kendu egin ziguten", eta negozio hura ere galdu egin zuen.

CASA CECIAGA Alabek hasi eta familiako andreak eraman zuten. "Eskerrak, aitajaurari negozio guztiak okertu zitzaizkion-eta".

OHARRAK

ARGIA EGUNA BERTAN BEHERA

Etziko, eguaztena, antolatuta zegoen Argia Eguna bertan behera utzi dute. *Lucio* dokumentala eman eta ostean tertulia egitekoak ziren, AED elkarteak bideratuta. Bada, elkartetik jakinarazitakoaren ara-

bera, dokumentalaren banaketaz arduratzen den produkzio-etxearekin arazoak izan dituzte, eta *Argia*-ri lana zabaltzeko baimena ukatu diote. Hala ere, AEDk esan du ekimenak aurrera egingo duela, martxoan.

ASFALTATZE LANAK

Eguraldia lagun bada, gaur, astelehena, asfaltatze-lanak hasiko dituzte. Egutegia honako hau da: lehen egunean San Frantzisko eta Azoka kaleak; hurrengo bi egunetan Zarugalde kalea, Muxi-

barko biribilgunetik Udalakoraino. Zirkulazioa txandaka bideratuko dute. Eta gero, azken hiru egunetan Arrasate pasealekua eta Gazteluondo ingurura joango dira lanera. Arrasate pasealekuan, San Viatortik Kurtzetxikiko biribilgu-

neraino konponduko dute. Eta Gazteluondoren hainbat puntutan lan egingo dute, baina kalea guztiz itxiko dute. Hala, zirkulazioari dagokionez, Maalatik sartzen diren autoek Erdiko Kale eta Olartetik irten beharko dute.



Eduardo Malagon EHUko irakaslea (eskuman) krisiaren gainean hizlari izango da Bergaran martxoaren 15ean. | GOIENA

Bizikasiren eskutik, ekitaldi ugari martxoko lehen hamabostaldian

Ikastaro ezberdinak izango dira martxoko hamabostaldiaren ardatza eta, era berean, hainbat hitzaldi iragarri dituzte Miguel Altunako aretoan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Bizikasik ekitaldiz jositako hamabostaldia iragarri du martxorako. Arantzazu Inarra, Elikagaien Zientzian eta Teknologian lizentziatuak eta Maria Angeles Ortiz, Farmazian lizentziatuak *Udaberria prestatu: sendabelarrak eta elikadura* hitzaldia egingo dute hilaren 1ean Miguel Altunako aretoan.

Programa zabala prestatu dute Bizikasikoek eta ikastaroak izango dira hamabostaldiaren ardatza: Automobilaren gidatze ekonomikoa; Lan bilaketarako joera berriak;

Android aplikazioak edota web-guneen diseinua, besteak beste. Martxoaren 14an, terapia alternatibo eta osagarrietan unibertsitate-aditua den Mari Angeles Trillok *Osasuna XXI. mendean* gaia jorratuko du. Proba psikoteknikoetan aritzeko teknikak jorratuko dituzte hilaren 15ean eta Eduardo Malagon EHUko Ekonomia eta Enpresa Ikasketen Eskolako zuzendariordeak krisiaren gainean jardungo du.

Argibideak 943 76 93 94 telefonon edo info@bizikasi.com.

Equoren hitzaldia egunean

Bestalde, Equo alderdiak hitzaldia iragarri du eguenerako, hilaren 23rako. Bergarako Udal Hauteskundeetan alderdiko zerrendaburu izan zen Josu Garañonandiak *Oparitu zuhaitz bat* izenburuko hitzaldia egingo du kultura etxean, 19:30ean. 2007an saritu zuten Irati Hemen proiektuko aplikazio bat da *Oparitu zuhaitz bat*. Hitzaldiaren bigarren zatian, Fiare banku etikoaren jarduerak azalduko ditu Equo alderdiko kideak.

Sozialistek elkartasuna adierazi diete jeltzaleei

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Azken osoko bilkuraren ostean, Bildu eta Aralarren Udal gobernuko zinegotzien eta EAJkoen arteko "tentsio-giroa" dela-eta, Bergarako sozialistek "elkartasuna" adierazi diete jeltzaleei. Bestalde, urtarrilaren 30eko azken osoko bilkuran pertsona batzuek "EAJrendako iraingarriak ziren pankartak" atera zituztela eta halako jokabideak "ulertezinak eta justifika ezinak" direla diote, "bizi dugun askatasun giro" honetan. "Herritarren ordezkarien kontrako irain hauek ez dira toleragarriak" diote sozialistek.

Panpinak faroletan

Era berean, herriko faroletan agertu diren plastikozko panpinen gainean eta fatxadetan agertu diren *Torturari stop* irakur daitekeen pankarten gainean ere badihardute Bergarako sozialistek eta diote pankarta horiek "beste garai batzuk gogorarazten" dituztela eta horrek ez diola "inori mesederik" egiten. Azkenik, sozialistek eskatzen diote alkateari "lehenbailehen borra ditzala herrian agertu diren pintadak", eta "ken ditzala pankartak eta plastikozko panpinak", hauek "iraingarriak" direlako. Eta, eskatzen dute, "kontrol handiagoa" agintarien aldetik, "saihesteko azken osoko bilkuran gertatutakoa" eta kalean "pankarta eta pintada umiliagarriak" agertzea.

Erreal-Zaleak: sagardotegira irteera otsailaren 26an

Bergarako Erreal-Zaleak lagunartek sagardotegira irteera iragarri du otsailaren 26rako. Egun horretan Mallorca hartuko du Realak Anoetan, 18:00etan.

Partiduaren aurretik Astigarragako Petritegi sagardotegian bazkalduko dute lagunarteko kideek. bergaratik 13:00etan aterako da autobusa.

Bazkariko prezioa 30 eurokoa da eta partidurako sarre-
rak 20 eurotan izango dira eskuragarri. Izen-ematea Zurraderoko Matxiategi elektrizitate dendan (943 76 19 94) egin daiteke, eguenera arte, otsailaren 23ra arte.

'Nutrizioa haurtzaroan' ikastaroa martxoko eguaztenetan

Udalak 2-3 urteko haurren gurasoei zuzendutako nutrizio ikastaroa antolatu du martxorako. Eskolak eguaztenetan izango dira, 18:00tik 19:30era, gaztelekuan. Bergarako Mireia Alberdi dietista-nutrizionista izango da irakaslea, eta parte-hartzaileek ondorengo gaiak jorratuko dituzte: elikadura osasuntsua, haurren loditasuna, ohiturak finkatzearen garrantzia, elikagaien ezaguerriak, jangela zerbitzua, errazioak, litxarrerriak, janari azkarra... Ikastaro teoriko-praktikoa izango da, sukaldea ere erabiliko dutelako. Izen-ematea kultura etxean, otsailaren 24ra arte. Argibide gehiago: 943 77 91 60.

Bergararekin harreman estua zuen Akarregi pilotaria hil da

E.M. | BERGARA

"Bergaran lagun mordoa zeuzkan Jose Luis Akarregik eta esan daiteke gure herrian egin zela pilotari profesionala. Partidu mordoa jokatu zuen bere sasoiari Udal Pilotalekuan. Horixe adierazi digu Bixente Jauregik. Lekeitiarra sortzez, Eibarren bizi zen Akarregi eta otsailaren 7an hil zen, 88 urterekin.

Txapela janzterik izan ez bazuen ere, hiru aldiz iritsi zen Akarregi buruz buruko finalera:

1946an Atano III.aren aurkakoa galdu zuen Eibarren (22-16) eta 1950ean eta 1951n Miguel Gallastegi nagusitu zitzaion bizkaitarrari, 22-15 Eibarren eta 22-16 Donostian. Bergarako pilotazaleek gogoan dute Ignacio Altuna Txara-k Akarregiren aurka 1941ean jokaturako bi partiduak. Ondarroan zein Bergaran Txara nagusitu zen.


Akarregiren aldeko hileta elizkizunak otsailaren 8an izan ziren, Eibarren.



Pol-Polekoak Ernion, hotzari aurre eginez

Pol-Poleko eta herriko eskoletako neska-mutiko eta gurasoak Erniora irteera egin zuten aurreko domekan. 80 bat lagun elkartu ziren. Iturriotzetik irten eta Iturburuko gainera (Trintxera) arteko ibilaldia egin zuten, Zelatunen atsedean eginda. Ernioaren magalean, Zelatunen (goiko argazkian), bost gradu zero azpiko tenperaturari egin behar izan zioten aurre. Eta Ernio gainera igo barik geratu ziren; izan ere, behe lainoak eta izotzak arriskutsu egiten zuen gailurreraino igoera eta ondorengo jaitsierak. Umorez hartu eta izotz gangar ikusgarriekin, putzu izoztuekin eta elur labainarekin jolastu zuten gaztetxoek.

POL-POL



Akarregi eta Ignacio Altuna Txara Bergaran, 1941ean. | BIXENTE JAUREGI

Gaueko farmazia zerbitzua zentralizatzearen kontrako errekurtsioa ipini du Udalak

Otsailaren 6ko data duen alkate dekretua egueneko osoko bilkurara eroango dute, aztertzeko eta bozkatzeko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Urte hasiera ezker Oñatiko farmaziek ez dute gaueko guardia zerbitzurik betetzen. Osasun Sailburuordetzak hala erabakita zerbitzu hori Arrasaten zentralizatu dute.

Bada, Oñatiko Udala ez dago erabaki horrekin ados, eta erabakiaren kontrako errekurtsio administratiboa ipini du. Gaueko guardia zerbitzua berriro Oñatira eroateko azken aukera urratu gura du.

Era berean, Udalaren ordeko izango diren abokatu eta prokuradoreak izendatu ditu.

Otsailaren 6ko data duen alkate dekretuaren berri emango dute egueneko osoko bilkuran.

Idatzia abuztuan jaso zuten

2011ko abuztuan jaso zen Udalean Osasun Sailburuordetzako farmazia zuzendariak zentralizatzeko proposamenari buruz bidalitako idatzia. Gaueko guardia zerbitzua zentralizatzearen kontra ezer

adierazi gura bazen, hartarako gonbidapena egiten zuten. Oñatiko Udalak desadostasuna adierazi zuen, baina Debagoieneko beste udal batzuek epea kanpo bidali zuten erantzuna.

Eusko Jaurlaritzak idatzi bakarra jaso zuen –Oñatikoa–, eta gainontzeko udalak zerbitzua zentralizatzearen alde zeudela interpretatu zuten. Hori horrela, gaueko guardia zerbitzua Arrasaten ipintzea erabaki zuten. Urtarrilean hasi ziren.

Bosgarren edukiontzia

Bestalde, egueneko osoko bilkuran, bosgarren edukiontzia jartzeko EAJk hartutako erabakia bertan behera uzteko proposamena egingo du Bildu Udal Taldeak. "Zaborraren bilketa zerbitzuari buruz herrian abian ipini den eztabaida prozesua aurrera eroateko traba egiten" duela argudiatuz, gaia tokiko gobernu batzordean eztabaidatu dute.

Edukiontzi marroia ipintzeko erabakia 2011ko martxoaren 31ko

osokoak hartu zuenez, indarrrik gabe uzteko erabakia ere osokoan hartu beharko dute: eguean, hilaren 23an, 19:30ean.

Gaueko guardiak berriro Oñatin egitea eskatuko dute

OHARRAK

PLASTIKO BILKETA

Urteko bigarren plastiko bilketa egingo dute hilaren 28an. Plastikoak aurreko eguean utzi behar dira ohiko lekuetan. Oñatin, lau lekutan: Zañartun, Zuazola inguruan; ETEO zaharren atzealdean; Murgian, Asentzio ermitaren alboan; eta Olabarrietan, autobus geltokian. Batuko dituzte: baserrietako plastiko beltzak eta zuriak eta belar-boleta-koak.

TRASTE ZAHARRAK

Hileko eguen guztietan batzen dituzte etxean pilatutako traste zaharrak. Interesatuak 943 71 19 38 zenbakira deitu behar dute abisua eman eta trasteak zein lekutan utzi behar dituzten jakiteko. Trasteak 20:00etatik 22:00etara arte utzi behar dira aurrez zehaztutako lekuan.

DEIALDIA

Odol-emaielen taldeak martxoaren 9an egingo du hurrengo ateratzea: 18:00etatik 20:00etara, Txantxiku Ikastolan.

GARBIGUNEA

Urrutzuko garbigunea zabalik da astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara eta zapa-uetan 09:00etatik 13:30era.



Indiarrak, sorginak, pailazoak, hippyak... horiek guztiak batu ziren iaz Aratuste-martitzenean. | MIREIA BIKUÑA

Aratuste-martitzena: mozorroak kalera ateratzeko eguna

Umeendako emanaldia, disko festa eta txokolate-jana egingo dituzte

M.B. | OÑATI

Aratuste-martitzenarekin bukatuko dituzte herriko Aratusteak. Garizuma hasi aurretik, kolorez jantziko dituzte kaleak ume eta helduek. Mozorrotzeko azken

aukera izango dute herritarrek. Elkar Hezi eta Txantxiku Ikastolako neska-mutikoak oportetan daude, baina Errekalde Herri Eskolakoak ez. Bihar ospatuko dituzte Aratusteak eskolan. 11:00e-

tan eskolako jolaslekuan jaialdia egingo dute. Euskal jaiak hizpide hartuta adinka mozorrotuko dira: Maritxu Kajoi, San Fermin, San Juanak, Corpusek, Zeledon, Donostiako estropadak...

'Gramola' umeendako

Arratsaldean herritar guztiek bat egingo dute kiroldegian. Txorrorro taldeak *Gramola* izeneko ikuskizuna egingo du Zubikoako frontoian, 16:30ean. DJ talde batek disko-makina dantzaz ipintzea lortuko du umeen laguntzarekin. Ikuskizun parte-hartzailea da; hori horrela, kiroldegian dauden neska-mutikoek Txorrorro taldekoekin igoko dira taula gainera. Musika, dantza eta barreak izango dira protagonista.

Ikuskizuna bukatzen denean, guztiak Herriko Plazara joango dira. Ordurako prest izango dute Parrokiako Misio Taldekoek txokolate beroa (18:00). Txokolatearekin bizkotxoak salduko dituzte. Elkartasunezko meriendarekin jasotako dirua Misio Taldeak Balin egiten diharduen proiekturako izango da.

Disko festa

Txokolatea jaten duten bitartean, txorimaloak agertuko dira plazan (18:30). Oñatzeko kideen laguntzarekin eta txistulari bandakoekin musikarekin kalejira egingo dute. Umeek eta gurasoek parte hartuko dute txorimaloekin.

Kalejira plazan bukatuko dute, eta orduan hasiko dute disko festa: 19:00etan. Irratietan gehien entzuten diren kantuek eta kantariak girotuko dute plaza.

Aratusteak bukatuta, mozorroak gordeko dituzte, Errosaixo Bixamona egunerara arte.

Azkoagain erabiltzeko alokairua eta ordenantza

M.B. | OÑATI

Udaleko Kirol batzordearen proposamena onartuta, Azkoagain futbol zelaia alokatzeko tasak eta erabilerarako ordenantza onartu ditu udalbatzak.

Abuztuan itxita

Aloña Mendiko taldeek eta eskola kiroleko programan diharduten taldeek dute futbol zelaia erabiltzeko lehentasuna. Hori

horrela, alokairua ordu eta egun batzuetara mugatuko da: urtarriaren 2tik maiatzaren 31ra arte eta irailaren 1etik abenduaren 31ra arte ezin izango da aste bukaeretan alokatu, baina bai astegunetan, goizez; abuztuan itxita egongo da; eta ekainean eta uztailean ordutegi berezia izango du. Gainera, kiroldegiko bazkide izan edo ez, alokairu tasa ezberdina izan-

go da. Argia ere orduka alokatu beharko da.

Eskaera, kiroldegian

Futbol zelaia alokatu gura dutenek, berriz, Zubiko kiroldegian egin behar dute eskaera, erreserba-eguna baino astebete lehenago. Udalak ez du bere gain hartzen Azkoagainen gerta daitekeenaren erantzukizunik; ezta kirolean gertatutako istripuen erantzukizunik ere.

Murgia auzoko ermitaren alboan umeendako jolaslekua ipiniko dute

M.B. | OÑATI

Murgia auzoko alkateak egingo du eskaera aintzat hartuta, umeendako jolaslekua ipiniko dute han. Hain zuzen ere, Asentzio ermitaren aurrean dagoen plazatxoan ipiniko dute, iturri ondoan.

Udalak Olabarrieta eta Zubillaga auzoetan jolasparkeak ipini zituen enpresari eskatu dio

aurrekontua. Hori horrela, Jolas enpresak ipiniko ditu zabuak eta txirristak 3.728 eurotan.

Murgiako jolaslekuarekin osotzen dihardute etxeko txikiendako guneak. Horietako bi, gainera, estali egingo dituzte. 2012ko aurrekontuetan partida bat dauka Udalak lan horiek egiteko, baina oraindik ez dute zehaztu zeintzuk izango diren.

ESKORIATZA

Udal liberatuen soldatek eztabaida piztu dute

Herderen eta Urtzelaren soldatak batuta, 2.600 euro garbi irabazten dituzte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Joan den eguen iluntzean egindako osoko bilkuran, udalbatzak luze jardun zuen kargu publikoen liberazioaz. Jatorria Ezker Anitza taldeak aurkeztutako mozioan zegoen. Horretan, liberatuen soldata Udalhitzeko 25. mailatik 17. mailara jaitea proposatzen zen; hain justu ere, soldata gordina 52.052 eurotik 38.846 eurora jaitea. Mozioak Ezker Anitza, EAJ eta PSE-EE taldeen babesa jaso zuen, Elizateko ordezkarien

abstentzioa eta Bilduko enbako kontrako botoa.

Ezker Anitzako Juan Luis Merinok azaldu zuen aurtengo aurrekontuak aztertzerakoan konturatu zirela soldata %33 pasatxo igotzen zela. Horren harira, honakoa esan zuen: "Larregi iruditzen zitzaigun; diru-kutxan eragina zuela uste genuen, eta errespetuzko mozio serioa aurkeztu genuen, Udalak bere gain har zezan 17. mailako kopurua, eta gainerakoa Bilduk ordain zezan, bestelako

alderdi politikoek egiten duten moduan. Eztabaida piztu da; Udal Gobernuaren aldetik errebisionismoa egon da kontrakoa kaltetuz. Hori da ezker abertzalearen estrategia. Gertatzen zena agerian utzi nahi genuen bakarrik".

Aho batez uztailean

Beñat Herce alkatea ez zetorren bat Merinok esandakoarekin, eta bere argudioak azaldu zituen: "Uztaileko osoko bilkuran onartu genuen kobratzen jarraitzea

aurreko lanean kobratzen genuen berdina. Hori errespetatu egin dugu, eta nik berdina kobratzen jarraitzen dut; hain justu, 2.000 euro garbi hilean, 14 pagarekin. Leire Urtzelai %20 dago liberatuta eta 600 euro kobratzen ditu, hilean, 14 pagarekin. Hori kobratzen gabiltza korporazioan sartu ginenetik; aho batez onartu zen proposamen hori".

Alkateak gogorarazi zuen beste proposamen bat aurkeztu zela osoko bilkura berean Ezker Anitzak aurkeztuta; aipatu zuen horrek proposatu zuela alkateak irabaztea Udalean gehien kobratzen duen langilea baino euro bat gehiago. Honakoa esan zuen: "Ezetz esan genion, hori zelako, bi liberatuen soldata batuta, 8.000 euro gehiago irabaztea". Horrekin batera, esan zuen 2008. urtetik udal ordezkariak ez dituztela kilometrajeak eta dietak kobratzen. Horregatik, aipatu

zuen ez zuela ulertzen zertara zetorren mozioa.

Aitor Urrutia jeltzaleak ere mozioaren alde bozkatu zuen, eta honakoa esan zuen: "Momentu honetan, eta ikusita, gainera, Udal honetan ere langileei aparteko orduak gura dizkietela kendu, ez zaigu etikoa iruditzen horrelako igoera egotea; larregikoa da eta ados gaude 17. mailan egotea, 25. mailan baino gehiago".

PSE-EE taldeko udal ordezkari Jose Luis Canterok ere bat egin zuen Urrutiak esandakoarekin: "Neurri gabeko igoera da Eskoriatzako egoera ekonomikoa ikusita. Ez dugu zalantzan jartzen soldata hori kobratzeko alkateak duen gaitasuna herria hori kobratzeko kapaza baldin bada. Horren harira, ez dakigu egoera ekonomikoak nondik joko duen, eta hortaz, ez dut uste herria hori ordaintzeko moduan dagoenik".

Aratusteen harira, umeak izango dira biharko protagonistak

Bihar Aratuste-martitzena egingo dute herrian. Urtero moduan, goizean, herriko ikastetxeetan gertatutako mozerroak jantzi eta kalera irtengo dira neska-mutikoak; plazan jaialdi erraldoia izango dute gertu. Tailerrak eta bestelakoak izateaz gain, txistor-jana ere izango dute.

Arratsaldean, osteran, hitzordu bikoitza dute: 17:15ean, kukumarroak irtengo dira kultura etxetik; han batzen direnen atzetik ibiliko dira horiek ordu erdiz. Jarraian, 18:00etan, Mikel Egiluz disko-jartzailearekin kantuan eta dantzaz egiteko aukera izango dute umeek eta helduek.

Euskal presoen bizi-baldintzen alde egin du udalbatzak

Eskoriatzako Presoen Aldeko Taldeak aurkeztutako mozioak Bildu eta EAJ taldeen babesa izan zuen

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Presoen Aldeko Taldeak eskatuta, udalbatzak Gorka Azpitarte herriko euskal presoaren aldeko mozioa onartu zuen egunean. Bildu eta EAJ taldeek horren alde bozkatu zuten, PSE-EE kontra eta Elizateak eta Ezker Anitzakoa abstenitu egin ziren.

Horretan, Udalarari, Poitiers-Vivonneko espetxean gertatzen ari diren gertaeren jakitun izanda, bertan Gorka Azpitarte eskoriatzarra eta bere kideak jasaten ari diren etengabea zigorrak neurriak direla adieraztea eskatzen zen, eta euskal preso bizi-baldintza duinak errespetatuak izan daitezken eskatzea. Horrekin



Hilaren 11n espetxe atarian egindako agerraldia. | ESKORIATZAKO PRESOKEN ALDEKO TALDEA

batera, Udalak espetxeko zuzendariari bilkura horretan onartutakoaren berri eskutitzez ematea eskatzen zen, modu horretan Azpitarte eta gainerako preso bizi-baldintzen inguruko bere kezka azalduz eta bizi-baldintza duinak exijituz.

Inkernun eskutitzak

Asteotan Azpitarteren alde hainbat ekimen egiten dabilta; hilaren 11n Poitiersera egindako martxaz gain, Inkernun espetxeko zuzendariari eskutitzak bidaltzeko kanpaina egiten ari dira. Tabernan daude betetzeko orriak; hain justu, norbanakoek bidaltzeko eskutitzak.

ARETXABALETA

Ustekabe txaranga, buruhandiak eta Txinen hilketa, Aratuste-martitzenean

Txinen hilketara beltzez jantzita joatea eta kandela eskuan eroatea eskatu dute

M.B. | ARETXABALETA

Asteburu potoloaren ondotik, Aratusteak ospatzen dihardute Aretxabaletan. Bihar, martitzena, 11:00etan, kalejira egingo dute Eibarko Ustekabe txarangarekin; eta arratsaldean, fanfarre berak dantzaldia egingo du plazan, 16:00etan. Eibarko Musika Eskolako 16 gaztek sortu zuten taldea 2000. urtean. Hamar urte pasatxoko ibilbidean, Euskal Herri osoan jai asko alaitu dituzte, erreperitorio zabala eta landua eta saio bereziak eskainita, eta horixe da, hain justu, gurera ekarriko dutena.

Dantzaldiaren ondotik, 17:30ean, buruhandiak ibiliko dira herriko kaleetan bueltak gora eta behera, txaranga ondoan izango dutela. Eguna eta, bide batez, aurtengo Aratusteak agur-



Egubakoitzean Leizarrakoek egindako ikuskizuna. | MIRARI ALTUBE

tzeko, Txinen hilketa egingo dute 20:00etan. Santa Ageda neska-mutilek zerraldia eroango dute Mitarte kaletik Herriko Plazaraino. Herritarrei lutoz jantzita

joatea eta kandela eskuan eramatea gomendatzen zaie.

Egubakoitzean hasi ziren Aratusteak, Leizarra musika eskolako Aratuste jaia ikuskizunarekin.

Sare sozialen gaineko hiru ikastaro egingo ditu Loramendik KZgunearekin elkarlanean

KZgunearekin elkarlanean sare sozialen gaineko hiru ikastaro egingo ditu Loramendi Euskara Elkarteak datozen egunotan. Gaur, astelehena, Skype erabiltzen ikasteko aukera egongo da Markole auzoan dagoen KZgunean, 16:00etatik 18:00etara; bihar, martitzena, Facebook, 18:00etatik 20:00etara; eta otsailaren 28an, Twitter, 16:00etatik 20:00etara. Izena emateko KZgunera joan behar dute interesatuek, edo 943 25 23 51 telefono zenbakira deitu edo tutor.aretxabaleta@kzgunea.net helbidera idatzi. Argibide gehiagorako Loramendi Elkartera deitzea -943 77 09 70 edo 685 75 67 29 telefono zenbakietara- edo idaztea -loramendielkarrea@gmail.com- ere badagoela gogorarazi dute ikastaro horietako antolatzaileek.

Agipase elkarteok 'Familia eta hezkuntza' berbaldia egingo dute hilaren 22an Arkupen

Aretxabaletako Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatuta, Gipuzkoako banandutako amen eta aiten Agipase elkarteok etorriko dira otsailaren 22an. *Familia eta hezkuntza* izeneko hitzaldian, familiaren, hezkuntzaren eta berdintasunaren gainean luze jardungo dute elkarte horretako ordezkariak, eta bertaratzen direnen galderak erantzungo dituzte.

Hona hemen erantzungo dituzten hainbat galdera: *Emakumeak eta gizonak, berdinak eta ezberdinak gara, baina zertan? Zer esan gura du genero arteko berdintasunak? Oraindik badago egitekorik? Berbaldia Arkupe kultura etxean egingo dute, 18:30ean hasita.*



Lurgorri zentroko erabiltzaileak eta langileak, joan den eguneko ospakizunaren ostean. | LIERNI ALTUNA

ARAMAIO

Eguneko zentroak urtebete: langileen eta erabiltzaileen arteko 'familia', oso pozik

Eguenean Lurgorri zentroko langileek ekitaldia antolatu zuten, sorpresa modura, erabiltzaileendako; dantza eta abesbatza izan ziren, giro paregabea

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Lurgorri eguneko zentroak urtebete egin du dagoeneko eta bertako langileek ospakizun berezia prestatu zuten joan den egunerako, bertako erabiltzaileen harri-durarako. Izan ere, sorpresa modura antolatu zuten ekitaldia, familia txiki bat direla erakutsita. Langileek dantza egin zieten, eta gero, Bizente Goikoetxea abesbatzako kideek hainbat abesti eskaini zizkieten. Udal ordezkari batzuk ekitaldian izan ziren, Edurne Uribarren-Iturrieta Ongizate zinegotzia tartean: "Ekitaldi hungigarria izan zen, batez ere koruaren saioa, eta erabiltzaileen artean guztiak izan ziren berba politak", adierazi digu. Luncha ere egon zen.

Zortzi lagunendako lekua dago eta egun, zazpi erabiltzaile ditu. Haien beharrak asetzeko bi lan-

gile dabilta lanean, Karmele Barrutia eta Leire Pagaldai. Erabiltzaileak 12:00etatik 18:00etara egoten dira, eta zentroan bertan bazkaltzen dute, eta baita merienda hartu ere. Horrez gain, hainbat

jarduera egiten dituzte: gimnasia, irakurketa, eskulanak... Ez dute aspertzeko astirik izaten.

Memoria tailerra, aurrera

Bestalde, eguneko zentroan ematekoak diren 60 urtetik gorakoendako memoria tailerreko izen-ematea otsailaren 22ra arte luzatu zuten, bost pertsona bakarrik zeudelako. Bada, Uribarren-Iturrietak jakinarazi duenez, azken egunetan beste seik eman dute izena. Beraz, jende falta ez da aitzakia izango tailerra egin dadin. Etzi, hilak 22, da azken eguna izena emateko.

Amaitzeko, Udalak gogora ekarri du Martxoaren 8rako kartel lehiaketan izena emateko azken eguna otsailaren 23a dela: "Animatu parte hartzera", adierazi du Ongizate zinegotziak. Izan ere, sari potoak daude.

ESANAK

"Ekitaldia hungigarria izan zen; hitz politak ziren guztiak erabiltzaileen artean"

EDURNE URIBARREN-ITURRIETA | ONGIZATE ZINEGOTZIA

ANTZUOLA

Euskaltelek zuntz optikoa instalatuko du datozen hilabeteotan

Udalak herritarren laguntza eskatu gura du proiektu hori guztien artean aurrera eramateko

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Euskalteleko langileak lanean hasiko dira Euskaltel enpresaren zuntz optikoa herrian instalatzeko. Asmoa da ondorengo hilabeteetan egitea lanok. Aurretik, baina, herriko datuak jaso behar dituzte auzoetan eta zenbait etxebizitzatan. Gainera, etxeen argazkiak aterako

dituzte eta planoak ere egingo dituzte. Kasu batzuetan, jabe-kideei galderak egin beharko dizkiete.

Lan hori egingo duten Euskalteleko langileek Antzuolako Udalaren eta Euskaltelen identifikazioa eramango dute.

Hala, herritarren laguntza eskatu gura du Udalak teleko-

munikazio proiektu garrantzitsu hori aurrera eramateko.

Odol-ematea gaur

Odola emateko deialdia eguraldi txarragatik eta elurragatik atzeratu egin behar izan zuten hilaren 2an. Hala, Antzuolako Odol Emaileen Elkarteak beste deialdi bat egin du. Hain zuzen, gaur, astelehena, Olaranen odola emateko aukera izango dute antzuolarrek, 17:30ean hasita.

Gogoratu behar da, baina, zenbait baldintza ezinbestean bete beharko direla: 18 urtetik gorakoa izatea eta 50 kilo baino gehiago pisatzea. Lehenengo aldiz doazenez osasun-galdeketa bete beharko dute.

ELGETA

Bihar, martitzena, ospatuko dute Inauteria Erretiratuen elkarteak

Xalbadorpe elkarteak bingoa eta txokolate beroa iragarri ditu 17:00etan Ozkarbi elkarteak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ona omen da txokolate beroa hotzari aurre egiteko eta bihar, martitzena, merienda ederra egingo dute herriko erretiratuek Ozkarbi elkarteak. Xalbadorpe elkarteak zuzendaritza batzordeak herriko erretiratu guztiak gonbidatu ditu martitzeneko Aratuste-meriendara. 17:00etarako egin dute hitzordua Ozkarbi elkarteak lagunartean arratsalde pasa egiteko.

Bingo jokoa

Arratsaldeari zuku gehiago ateratzeko txokolateaz gain bingo jokoa ere iragarri dute Xalbadorpe elkartetik. Antza gustukoa dute bingoa erretiratuek, eta saio berria egingo dute

bihar Ozkarbi elkarteak. Jokoa hasiko dute arratsaldea, eta bingoa jokoa ondotik banatuko dute txokolate beroa.

Eskolan gaur jai

Aste bukaera berezia izan da honakoa eta ohikoa denez jai egun batzuk hartuko dituzte Herri eskolan. Gaur, astelehena, itxita egongo da eskola, baina bihar, martitzena, normaltasunez emango dira eskolak. Jai egun bakarra hortaz aurtun eskolan. Aratusteek Elgetan eman dute ikusita eta ikusitakoak ikusita neska-mutikoak izango dute zer kontu martitzenean eskolan. Argazki sorta aurkituko duzue ikusgai Goiena.net atarian.



Barikuan guraso elkarteak banatu zuen txokolate beroa. | LZ

LEINTZ GATZAGA

Gastronomia jardunaldien barruan, museora bisitak

'Iturriko gatza, mahaian gozo' izeneko bisita gidatuak abian berriro, Mankomunitatearekin

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

X. Jardunaldi Gastronomikoak jarriko ditu abian Debagoieneko Mankomunitateak otsailaren 25ean, eta *Iturriko gatza, mahaian gozo* izeneko bisita gidatuak eskainiko ditu berriro Gatzagan. Apirilaren 15era arte iraungo dute jardunaldiek eta tarte horretan gatz museo- eta Jakion kontserba enpresara bisitak egingo dituzte -Aste Santuko astean izan ezik, apirilaren 5etik 9ra artean.

Eskaintza berezia

Debagoiena ezagutzeko proposamenen artean daude bisita gidatu horiek, eta aurtun, gainera, eskaintza berezia egin dute: jardunaldietako menu berezia dastatzen dutenendako bisita gidatua debalde. Menu berezi hori Debagoieneko bede-

ratzi jatetxek eskaintzen dute, eta gero bost bisitaren artean aukera egin daiteke. Bisita horietako bi dira, hain zuzen, Gatzagan egitekoak: gatz museoaren ezagutza eta fruta eta barazkien kontserbagintza enpresa -Jakion- bisitatzea; eta museo- eta gatzaren produkzioaren nondik norakoak ezagutzeko.

Eskaintza hori hartu gura dutenek aurrez egin behar dute eskaera mankomunitatera jola -turismo@debagoiena.net eta 943 79 64 63 edo 943 71 89 11-.

Ohiko bisita gidatuak

Gatz museoak, gainera, zapatu, domeka eta jaiegun guztietan eskaintzen ditu bisita gidatuak, eta, hitzordua aurrez egin gero, baita taldeendako ere asteen zehar -665 73 95 49.



zurekin

ZORROTZENEN ATSEDENERAKO

2012ko otsailaren 16tik martxoaren 14ra arte



KOLTZOI MISTOA MALGUKIEKIN ETA BSKOELASTIKOA

pikolin

- Olympia Visco modelo
- Normablock Top malgukiak, biskoelastikoagoak
- 135 x 190 zm
- Barrubiguna, apar biskoelastikoa, aireztapenerako ehunka balbula.

299€

KANAPE ERAISGARRIA, EGURREZKOA

pikolin

- 135 x 190 zm
- Gereziondo kolorea

299€

INTERESIK GABEKO FINANTZAKETA 12 HILABETERA ARTE
Baldintzak kontsultatu.

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Jaurti barik golik egiterik ez dagoela berretsi zuen Aretxabaletak: urrunetik jaurtitako bi gol egin zituen

- ▶ Haritz Igartuak bi gol egin zituen; hirugarrena, Ibai Hernandezek
- ▶ Garaipenarekin 36 puntu lortu ditu Juanan Cruzen taldeak

EMAITZA

ARETXABALETA

3-0

BEHOBIA

ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA
Joko aldetik partidu ona izan ez arren, egin zituzten golak ikus-teagatik bakarrik balio izan zuen zapatu arratsaldea Ibarren pasatzeak. 32. minutuan sartu zuen Haritz Igartuak lehenengo gola: zelai erdian baloia lapurtu eta atezaina aurreratuta ikusi ostean, baloia jaurti eta zuzenean barrura sartu zuen. Gol polita.

Bigarren gola aldageletara joan baina minutu batzuk lehenago egin zuen Ibai Hernandezek. Gainera, hirugarrena egiteko aukera ere izan zuten hurrengo jokaldian, baina 2-0koarekin joan ziren atsedenera.

Baloi luzeak bota zituzten

Etxeko taldea Behobia baino hobea izan zen lehenengo zatian. Hala ere, jokalaria ez ziren eroso ibili zelaian eta pase motzetan oinarritutako jokia ezin izan zuten egin. Baloi luzeak jaurti zituzten, eta diagonalak aprobe-



Aitor Perez UDAko jokalaria baloiarekin zelai erdian gora. | JOSETXO ARANTZABAL

txatu gura izan zituzten, aurkari bizkarra hartu eta gola egiteko.


Bigarren zatian, hirugarren gola egin ostean, apur bat erlaxatu ziren etxekoak. Igartuak egin zuen hirugarrena, area kan-

potik baloia jaurtita. Ondoren, partiduaren erritmoa jarraitzea kosta egin zitzaion aretxabaletarrei eta, ondorioz, nekea nabaritu zuten jokalariek.

Behobiak ez zuen amore eman. Azkeneko hamar minutuetan

hainbat gol aukera izan zituen baina langak etxekoen alde egin zuen. Hala, ezin izan zuten Iker Agirregaribia gaintitu.

UDAk 36 puntu ditu dagoneko eta sailkapeneko zazpigarren tokian dago.



HARITZ IGARTUA
JOKALARIA

"Atezaina aurreratuta ikusi dudanean esan dut; barrura!"

Bi gol egin zituen zapatuan Haritz Igartuak: lehenengoa eta hirugarrena. Ikusgarriak izan ziren biak.

Zorionak. Hiru puntu etxean geratu dira.

Eskerrik asko. Ez da partidu ona izan baina hiru puntu lortu ditugu eta hori da garrantzitsua.

Partiduko lehenengo gola benetan ikusgarria izan da.

Baloia lapurtu dut eta atezaina aurreratuta ikusi dudanean esan dut: *barrura!* Eta hala joan da. Bota barik ez dago golik.

Batez ere lehenengo zatian partidua menpean izan duzue?

Ez, partidua mendean ez dugu hartu... nire ustez, partidu txarra izan da. Behin bideratu dugunean, erlaxatu egin gara eta euren hiru bat aukera izan dituzte gola egiteko. Garrantzitsua hiru puntuak lortzea da. Orain hurrengo lehiari begirra gaude.

OHOREZKO ERREGIONALA

Agorrosingoaren ondoren beharrezkoak zituzten puntuak

Mondrak 2-0 irabazi zuen zapatuan Mojategin Elgoibarren aurkako lehia

A.E. | ARRASATE

Iban Rodriguezen taldeak 2-0 irabazi zion Elgoibarri zapatuan Mojategin. Joan zen astean Bergean galdu ostean, "aste gogorra" pasa dutela aitortu du Rodriguezek. Horregatik, beharrezkoa zuten garaipena. Etxekoak gogotsu irten ziren zelaira eta Gabonak geroztik egiten zebiltzan jokia egiteko gauza izan ziren berriro ere.

Lehenengo zatian husnako berdinketarekin amaitu zuten.

Bigarrenean, golak

Bigarren zatiko hamargarren minutuan egin zuen Mondrak lehenengo gola. Landerrek sartu zuen baloia sareetan, Elgoibarko atezainak eta atzelariak huts egin ostean.

Minutu batzuk geroago, Elgoibarrek izan zuen berdinketa egiteko aukera. Ander Ruiz de Azua atezaina area kanpora irten eta jauzi egin zen, atea hutsik utziz. Elgoibarreko aurrelariak baloia jaurti zuen baina Txaote kapi-

tainak baloia aldentzea lortu zuen.

Gazte mailako Aiti nabarmen-tzeko jokalaria izan zen. Bigarren zatian irten zen zelaira eta haren eskutik etorri zen lasaitasunaren gola. Lehenago, baloia sareetan sartzea lortu zuen baina epaileak jokoz kanpo adierazi zuen. Partidua amaitzeko bost minutu falta zirela, Aitik eskuineko hegaletik barneratzea egin eta atzera erdiratutako baloia Urrak sareetan sartu zuen.



Lander (9) eta taldekideak lehenengo gola ospatzen. | ARANTZAZU EZKIBEL

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloña Mendik eta Bergarak etxetik kanpo jokatu dute eta puntu barik itzuli dira biak

- ▶ Aloña Mendik 1-0 galdu zuen zapatuan Azkoitiko Txerloian Anaitasunaren aurkako lehia
- ▶ Bergara aurretik jarri zen markagailuan bi bider baina 3-2 galdu zuen Trintxerperen kontra

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Aloña Mendi eta Bergara esku hutsik itzuli dira etxetik kanpo jokatuak jardunalditik. Aloñak 1-0 galdu zuen Anaitasunaren aurka.

Gola, 85. minutuan

Aloña Mendik eskura izan zuen berdinketa; izan ere, partidua husna amaituko zela zirudienean,

azkoitiarrek garaipenaren gola egin zuten. Partidua bukatzeko bost minutu falta zirela egin zuten gola.

Andoni Azkargortaren mutilek ondo hasi zuten lehia. Plan-teamendua atzean gogor eustea izan zen eta azkoitiarrek ematen zizkieten aukerak aprobetxatzea gora igo eta gola egiteko. Gustura zegoen entrenatzailea jokala-

rien jarrerarekin. Defentsan gogorlan egin zuten, lekua ondo hartuz eta baloia kontrolatuz.

Partidua aurrera joan ahala, baina, oñatiarrei kosta egin zitzaion aurrera irtetea. "Eurek jarritako erritmoa eusteko gauza ez gara izan", azaldu zuen Azkargortak. Hala, oñatiarrek fisikoki behera egin zuten eta azkoitiarrek aukera aprobetxatu zuten gola

egiteko. Aloña zortzigarren tokian dago sailkapenean, 31 punturekin.

Hasieran, mahoneroak aurretik

Ahaleginak egin arren, Bergarak ezin izan zuen punturik atera Trintxerperen zelaian. Mahoneroak izan ziren markagailuan aurretik jartzen lehenak, baina Trintxerpe markagailuari buelta

emateko gauza izan zen. Lehenengo gola bosgarren minutuan egin zuen Iñigo Machok. Hurrengo 25 minutuak txarrak izan ziren bergararren aldetik. Hain justu, tarte hori aprobetxatu zuten Trintxerpekoek bi gol egiteko. 2-1 bergararrak atzetik zirela joan ziren atsedenera.

Aldagelatik bueltan, jokaldi on baten ondoren egin zuen Trintxerpek hirugarrena (3-1). Ondoren mahoneroak gora irten ziren. 15 minutu on izan zituzten eta Aitor Oregik mahoneroen bigarrena egin zuen. Hala ere, ez zen nahikoa izan lehia berdindu eta etxera punturen bat ekartzeko. Neka Galan entrenatzaileak azaldu zuen ahalegindu zirela, baina lehenengo zatiko ordu erdi txarrak erabat baldintzatu zuela lehia. 29 puntu ditu Bergarak.

LEHENENGO GAZTE MAILA

Aloña Mendik 4-2 irabazi zion Aretxabaletari gazte mailako kopako derbia

Zapatu arratsaldean jokatu zuten Aloña Mendik eta Aretxabaletak gazte mailako kopako lehia. Oñatiarrek etxean jokatu zuten eta horretaz baliatu ziren hiru puntuak lortzeko. Derbi polita izan zen, gol askokoa: sei gol egin zituzten guztira. Aloña 4-2 nagusitu zen. Modu horretan, sailkapeneko bigarren tokian jarraitzen dute oñatiarrek 12 punturekin.



JOSETXO ARANTZABAL

EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

Mondrako neskek zerbait gehiago merezi izan zuten Eibarren

3-2 galdu zuten arrasatearrek Eibarren aurka. Mondrako neskek 0-1 aurreratu ziren, Maitane Roak egindako golari esker. Eibarrek berdindu egin zuen lehia, baina Mondra berriz ere aurreratu egin zen, Roaren beste gol bati esker. Azkenean bi akats egin zituzten arrasatearrek eta, ondorioz, bi gol jaso. Joko aldetik, gehiago merezi izan zuten.


IGOERA FASEA

Arizmendiko neskek 0-0 berdindu zuten Hernaniren aurka

Igoera faseko bosgarren jardunaldia jokatu zuen zapatuan Arizmendik Hernanin. Partiduan ez zen golik izan eta, ondorioz, puntu bakarrarekin itzuli ziren etxera Arizmendikoak. Sailkapenari begira jarrita, laugarren tokian daude Arizmendikoak, 7 punturekin. Datorren astean Zarautz hartuko dute etxean.



Gremioen gida



Osasun zerbitzuen gida



Jatetxeen gida



Profesional liberalen gida

NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAUKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Iragarkia jartzeko, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Lokatza Ziklismo Eskolako txirrindulariak eta ordezkariek, zapatuan, Bergaran egin zuten aurkezpenean. | IRATI GOITIA

TXIRRINDULARITZA

Mahoi kolorea soinean, errepidera irten eta lasterketak irabazteko prest

- ▶ Lokatzak bere taldeak aurkeztu zituen zapatuan
- ▶ Mahoi koloreko maillot berria izango dute

IRATI GOITIA | BERGARA

Denboraldi ona egin zuen Lokatza Ziklismo Eskolak iaz. Jubenilak bikain aritu ziren; esaterako, Mikel Aristik 10 garaipen lortu zituen. Eneko Lizarralde eta Hodei Orobengoa ere fin ibili ziren kategorian berean. Bestalde, kadeteek ere ondo egin zituzten etxeko lanak. Aipatzekoa da Urtzi Muguruzak sailkapen orokorrean lortutako bigarren postua.

Bada, aurtengo denboraldian emaitza horiek hobetzeko edo berdintzeko gogoz datoz txirrindulariak.

23 txirrindulari

Zapatuan egin zuten Lokatza taldearen aurkezpena eta, hain zuzen, joan den urteko lorpenak laburbilduz ekin zion ekitaldiari aurkezle lanetan aritu zen Felix Zubiak. Ondoren, protagonistak eurak aurkeztu zituen. Guztira 23 txirrindulari hartuko dute parte aurtengo lasterketan, alebin, infantil, kadete eta jubenil kategorietan. Banan-banan euren izenak esan eta talde argazkiak atera zituzten, Irala kalean egin

zuten ekitaldian. Jende dezente bildu zen aurkezpena ikustera eta txirrindulariak txalotzera; bazen mozorroa soinean zuenik ere.

Maillot berria eta bateratua

Batzuek, mozorroa; eta txirrindulariek, ekipazio berria. Gainera, nobedadea da zikloturistek eta Lokatzakoek arropa berdina eramango dutela. "Iaz zikloturisten taldeak eta Lokatzak bat egin genuen eta elkartasun hori errepideetan ere islatzea erabaki dugu, mahoi kolorearen bitartez. "Izan-



Zikloturisten maillota. | I.G.

go da ezberdintasun bat, ordea: Lokatzakoek publizitatea eramango dute eta besteek Bergara herriaren izena", azaldu digu Jesus Kortabarría presidente ordeak.

Indurainekin argazkia

Ekitaldiaren amaieran, Juan Mari Oregi Sorluzeko lasterketako antolatzaileak opari bat egin zion taldeari. Zehazki, Migel Angel Larrañaga lehendakariari iazko lasterketako oroigarri bat oparitu zion. Izan ere, Mikel Aristik lortu zuen garaipena eta taldeka Lokatza izan zen hoberena; hura oroitzeko mahonerok Migel Indurainekin ateratako argazkia eman zion.

Lehen lasterketa, zapatuan

Zapatuan, otsailak 25, dute lehen lasterketa jubenil mailakoek: Osintxuko III. Sorluzeko Saria. Jon Aranzabalek adierazi digu gogotsu daudela: "Denboraldi gogorra izango da eta sufritzea ere tokatuko zaigu; ondo entrenatu beharko dugu. Hasteko gogoz gaude jada; garaipen bat lortzeko berriz, itxaron egin behar".

LOKATZAKO TXIRRINDULARIAK

ESKOLARRAK

1. Iñigo Aranburu

INFANTILAK

1. Mikel Larrañaga

2. Aitor Rueda

3. Jabier Santorcuato

4. Unai Prieto

5. Peio Irizar

KADETEAK

1. Martin Telleria

2. Josu Martin Erdabide

3. Aritz Kortabarría

4. Urtzi Muguruza

5. Borja Berroya

6. Jon Fernandez

JUBENILAK

1. Mikel Mujika

2. Iñigo Agirrezabal

3. Julen Irizar

4. Txomin Larrañaga

5. Andoni Lasa

6. Andoni Rico

7. Xabier Gallastegi

8. Beñat Etxabe

9. Jokin Etxabe

10. Asier Taboada

11. Jon Aranzabal

JESUS KORTABARRIA
PRESIDENTE ORDEA

"Denboraldi betea izango dugu aurtengo hileroko lasterketa bat. Txirrindulariak gogotsu daude"

Zein da gaurko aurkezpenaren helburua?

Batetik, Lokatza ditugun taldeak herriari aurkeztea; eta, bestetik, gure laguntzaileak zeintzuk diren erakustea. Horretaz gain, urteko egutegia ere jakinaraziko dugu.

Nolako denboraldia dator?

Nahiko egutegi betea izango dugu. Datoren zapatuan hasiko gara martxan Osintxun jubenil kategoriako lasterketarekin eta gero hileroko-hileroko dugu bat. Hala ere, joan den urtean baino gutxiago izango ditugu, izan ere, Euskadiko txapelketa izan genuen iaz.

Nola ikusten dituzu txirrindulari gazteak?

Ondo, gogorik ez duenik ez dut uste hona etorriko denik. Beraz, lehiarako gogotsu izango direla pentsatzen dut. Bestalde, animatzen den edonor etorri daiteke gugana; gazteak izena ematera animatzen ditut eta helduak lasterketetan laguntzera. Bazkide berriak egitea ere komeni zaigu. Ez nuke amaitu nahi iaz gurekin izan eta aurtengo Eibarko taldean daudenak aipatu gabe, zortetik onena opa diet eurei ere.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Mondrak geroz eta gertuago dauka bere helburua: kategoriaz igotzea

- ▶ Bi puntu garrantzitsu eroan dituzte arrasatearrek
- ▶ Gol eta defentsa akats askoko partidua izan da

EMAITZA

SORALUCE BKE

22-32

FORD MUGARRI ARRASATE

MAIDER ARREGI | BERGARA

Derbiak derbiak dira eta jakinikoa zen partidua gogorra izango zela. "Bergararen aurkako partidua beti dira zailak eta are gehiago etxean jokatzeko dutenean", nabarmendu zigun Ane Herrero. Atakean ondo, baina defentsan hasierako minutuetan ez ziren guztiz fin ibili Ford Mugarrri taldekoak. Hala ere, partidu osoan, Mondra jokoa nagusi eta golak

erraz egiten ikusi genuen. "Lehen 10 minututan defentsan beti moduan irten ez bagara ere, partidua kontrolatu dugu. Garrantzitsua da hasieratik ideiak argi izatea eta denok zertan ari garen jakitea. Gure helburua lortzeko garrantzitsuak diren bi puntu eskuratu ditugu", zioen Herrero. Hala ere, Bergara erasoan gogor eta baloiak lapurtzen ikusi genuen. "Bergararen jokoa ona da eta korrika egitea da euren arma; nahiz eta defentsan kolpe pare bat falta izan zaizkien gaur". Josetxo Muniategi ere badaki hori: "Lehen minutuetan golak egiten hasi gara, baina atakean huts egin dugu eta arrasatearrek golak egiten jarraitu dute; hori moztea oso zaila da, defentsan ez

gara-eta oso fin ibili. *Pasibo* jokoa ez dugu kontrolatu; arrasatearrek denbora eta jokoa kontrolatu dituzte, gainera, partiduan".

Eta azpimarratzekoa arrasatearren bi atezainen papera. Defentsek ez zieten asko lagundu eta eurak bikain aritu ziren. Dena den, Ane Herrero azpimarratu nahi izan zuen Xabi Alzelaik aspaldi ez duela hain ondo defendatu eta ez zaiola ahaztu ikasitakoa.

Arbitroarekin haserre

Josetxo Muniategi ez zen gustura geratu arbitrajearekin: "Bigarren zatian, bereziki, arbitraje oso txarra izan dugu; Batzuenako falta zena guretzako ez zen".



Gorka Uribe jaurtiketa egin guran bi aurkariren aurrean. | JOSETXO ARANTZABAL



JOSU HERRERO
FORD MUGARRI ARRASATE

"Bergarak azkar jokatzeko du, baina ez gara joko horretan sartu. Erasoan ondo ibili gara, nahiz eta lehen denboran defentsan justu samar jokatu dugun".



ANDONI BERNAL
FORD MUGARRI ARRASATE

"Defentsa on batekin irabaztea lortu dugu. Atakean eta defentsan ondo ibiltzeko lagundu digu. Hasieratik gogor egin dugu aurkariak korrika egin ez zezan".



JOSU AGIRRE
SORALUCE BKE

"Aspaldiko arbitraje txarrena izan dugu. Falta txikiak ere ez zizkiguten adierazten; ez da orekatua izan. Defentsan presioa izan dugu; bagenekien gogorra izango zela".



GORKA URIBE
SORALUCE BKE

"Mondrak dituen jaurtitzailerekin oso zaila da defentsa lana egitea. Korrika eginez, aurkari nekatzen saiatzen gara. Azken postuetatik ihes egitea da asmoa".

KADETE NESKAK

Erraz irabazi dute Aloñako neskek etxean

Atzeratutako partidua jokatu zuten bariku iluntzean Aloña Mendiko kadete neskek. Etxean, 26 eta 19 irabazi zieten Elgoibarko neskei. Bi partidu jokatu dituzte eta bakar irabazi dute txantxikuek. Laugarren postuari eusten diote eta bi puntu dituzte momentuz. Gainera, 50 gol sartu eta 44 jaso dituzte.



JOSETXO ARANTZABAL

FEDERAZIO SARIA, GAZTEAK

Aloñak bi goleko aldeagatik garaipena lortu du Eibarren

Otsailaren 5ean jokatu beharreko partidua zen Tekniker Eibar eta Aloña Mendiko gizonen jubenil mailako partidua. Ozta-ozta, baina garaipena eskuratu zuten oñatarrak (26-28). Hala, lehen postuari eusten diote txantxikuek eta, dagoeneko, lau puntu dituzte sailkapen nagusian. Guztira, bi partidu jokatu dituzte eta biak irabazi. 63 gol egin dituzte bi partidutan eta 43 jaso. Puntu bakarrera dute, ordea, Tolosa C.F. eskubaloitzailea. Eibarko Tekniker hirugarren postuan dago bi punturekin sailkapen orokorrean.

FEDERAZIO SARIA, GAZTEAK

Bergararrek bi golengatik galdu dute kanpoko partidua

Sailkapen nagusian, aurreneko bi postuetan daude Leizaran eta Bergarako gizonen jubenil mailako taldeak. Norgehiagoka oso berdindua jokatu zuten bi taldeek. Azkenean, Leizarango mutilek bi golen alde atera zioten Bergarari (33-31), garaipena eskuratu. Aurreratu egin den partidua izan da; orain kategoriako gainontzeko taldeek zer egiten duten ikusi behar da aurreneko postuak nola geratuko diren jakiteko. Momentuz, Bergarako jubenilek bi puntu dituzte. Bi partidu jokatu dituzte eta bakar irabazi.

TXIRRINDULARITZA

"Lehenengo biribilgunean asko arriskatu dut eta hor galdu dut denbora"

Atzo hasi zen Andaluziako Itzulian bigarren egin zuen Markel Irizarrek erlojuaren aurkakoan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

"Ondo ibili naiz, izugarritzko ilusioa neukan, batez ere mutikoa-
ren urtebetetzea zelako, baina bi
segundora geratu naiz", azaldu
zigun atzo, etapa amaieran, Mar-
kel Irizar Radio Shack taldeko
txirrindulariak.

Atzo hasi zuten Andaluziako
Itzulia. Atariko etapa San Fer-
nandon jokatu erlojupeko
proba izan zen, Irizarrendako
etapa egokia. Bada, oso denbora



Markel Irizar. | RADIO SHACK

ona egin zuen: Patrick Gretsch irabazlearengandik bi segundora geratu zen oñatiarra -6 minutu eta 51 segundoko denbora egin zuen.

Gehiegi arriskatu zuen

"Oso motibatuta atera naiz. Lehenengo biribilgunean asko arriskatu dut eta hor denbora galdu dut", azaldu zuen. Etaparen bigarren zatian oso ondo ibili zela eta "sentsazioak oso onak" izan zituela gaineratu zuen. "Ez da bakarrik emaitza ona lortzea, izan dudana sentsazioa ere oso ona izan da", gaineratu zuen.

Iaz lortutako garaipena errepikatuko ote duen galdetuta, samurra ez dela izango esan du: "Geratzen diren etapak ez dira oso onak niretako; hortaz, etapaz etapa joan eta ikusiko dut". Egue-
nean amaituko da itzulia La Guardia de Jaenen.

DUATLOIA

Oñatiko duatloiko izen-ematea dagoeneko zabalik dago; azken eguna martxoaren 5a da

Oñatiko Triatloi taldeak antolatu duen probarako izen-ematea zabalik dago. Interesatuak martxoaren 5a baino lehen eman beharko dute izena www.triatloi.org atarian. Aurtengoa 21. edizioa izango da eta, horrez gain, distantzia motzeko Gipuzkoako txapelketarako eta Euskal-Nafar zirkuiturako puntuagarria ere izango da. Izen-emate prezioa 23 euro da.

PILOTA

Martxoaren 2an hasiko dituzte Elgetako lau t'erdiko txapelketako lehenengo kanporaketak

Elgetako txapelketan Euskal Herri osoko eta Errioxako pilotariek parte hartuko dute. Izen-ematea itxita, 126 pilotarik eman dute izena txapelketan, 23 urtez azpikoak eta kadete mailakoak kon-
tuan hartuta: 66 pilotarik nagusien kategorian jokatu dute eta 60k kadete mailan. Oskarbi elkarteak kideen asmoa da martxoaren 2an hasia lehenengo kanporaketekin.

MENDIA

Pol-pol mendi taldeak datorren aste bukaeran egingo du mendi-eski zeharkaldia Panticosan

Eguraldia eta elur baldintzak onak badira otsailaren 25ean eta 26an joango dira Pol-pol mendi elkarteak kideak Panticosa alde-
ra mendi-eski zeharkaldia egitera. Etzi, eguaztena, egingo dute batzarra, 19:00etan. Bestalde, beterran mendi irteera otsailaren 26an egingo dute -Lizarran, Otxabio eta Alegia artean ibiliko dira-. Txartelak dagoeneko bulegoan daude.

MENDIA

Aloña Mendiko mendi sailak antolatuta Alpeetan egingo dute Aste Santuan mendi-eski zeharkaldia

Martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean egingo dute zeharkaldia. Sei pertsonako bi talde osatuko dituzte. Antolatzaileek esan dute "ibilaldi gogorra" dela, "bai teknikoki eta baita fisikoki ere". Eski teknika ona, fisikoki ondo egotea eta kranpoia eta pioleta ibiltzen jakitea beharrezkoa izango da. Deitu 635 74 88 84 zenbakira edo idatzi alonamendi.mendi@gmail.com helbidera.

SASKIBALOIA

Azkeneko laurdenean egin zion ihes garaipenak Oñatiko taldeari

Natra Aloñak 70-67 galdu zuen SAB Torrelavega taldearen aurka zapatu arratsaldean

A.E. | ARRASATE

Azkeneko laurdenera abantaila-
rekin iritsi arren, Natra Aloñak
ez zuen punturik eskuratu Torre-

lavegaren kantxan. Nahiko par-
tidu parekatua izan zen. Lehe-
nengo laurdenean oñatiarrak
aurretik jarri ziren baina biga-

rrenean ezin izan zuten defentsa
mantendu eta Torrelavegak aban-
taila jan zien. Atsedenera Aloña
zortzi puntu atzetik joan zen.

Hirugarren laurdenean oña-
tiarrek abantaila jan eta aurre
hartu zuten markagailuan. "Defen-
tsan ondo ibili gara eta erasoan
eraginkorrak izan gara", zioen
Xabi Igartua entrenatzaileak.
Zortzi bat puntuko aldearekin
iritsi ziren azken laurdenera; hala
ere, Torrelavegak erantzukizuna
hartu eta irabazi egin zuen.



SAN LORENTZO AUZOA B E R G A R A

Logela bateko etxebizitza

139.000 €-tik aurrera
23.127.654 pta

Bi logelako etxebizitza

168.000 €-tik aurrera
27.952.848 pta

Hiru logelako etxebizitza

216.000 €-tik aurrera
35.939.376 pta

- 1, 2, 3 eta 4 logela, sukaldea barne.
- Garaje eta trastelekuak

Lehen
~~BEZ-a %8~~

Orain
Etxebizitza berria
BEZ-a %4

Etxebizitza
bukaera
2012

Eraikitzailea

INGESLAN
CONSTRUCCIONES



Sustatzailea



Argibidea
eta Salmenta

943 424 430

www.ormak.es



Garikoitz Baños, Movistar txirrindulari taldearen garajearen bizikletak prestatu ondoren. | GARIKOITZ BAÑOS

Garikoitz Baños | Movistar txirrindulari taldeko masajista

"Ziklismoan, gustuko dudana egiten, munduko pertsona zoriontsuena naiz"

- ▶ Garikoitz Baños oñatiarra Movistar taldeko zortzi masajistetako bat da
- ▶ Caja Ruralen egon ondoren, urtebeterako kontratua sinatu du

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Garikoitz Bañosek (Oñati, 1978) profesional mailako ziklismoa barrutik ezagutzeko aukera dauka. Movistar taldearekin urtebete kontratu sinatu du masajista lanak egiteko. Eusebio Untzue da managerra eta bere eskuen artetik pasatuko dira Alejandro Valverde eta Juanjo Cobo, besteak beste.

Movistar taldeko masajistetako bat zara. Talde indartsu batera egin duzu salto.

Bai. Taldeak Movistar du izena orain, baina aurretik Reynolds, Banesto, Illes Balears eta Caisse d'Epargne izan da. Ibilbide luzea duen taldea da, eta oso indartsua.

Nork deitu zizun?

Taldeko pertsonal arduradun Alfonso Galileak deitu zidan. Caja Ruralekin masajista hasi nintzenez deitu zidaten lehen aldiz, baina konpromisoa banuen ordurako. Dena den, denboraldi osoan hartu-eman izan nuen

Galilearekin. Iaz uztailean hasi ginen berriro berba egiten, eta irailean konfirmatu zidaten Movistar taldeak dituen zortzi masajistetako bat izango nintzela. Erronka handia da niretzat. Movistar taldea enpresa handia da. Guztira, 50 bat pertsonak egiten dugu lan.

Argentinan egon zara eta orain Frantziara zoaz. Denbora luzea etxetik kanpo.

Bai, hala da. UCI Pro Tourreko taldeek derrigorrezko proba batzuk

dituzte, Australian hasi eta Pekinen bukatzen diren probak. Eta badaude beste batzuk taldeak dituen beharren arabera aukeratzeko ditugunak. Horrela osatzen dugu denboraldiko egutegia. Nik, oraingoz, Euskal Herriko Itzulira arteko egutegia daukat. Hori egiten dugunean, Italiako Giroa artekoa emango digute.

Oñatin ikusiko zaitugu Movistar taldeko ziklistekin.

Polita izango da nork bere herrian lan egitea. Euskal Herriko Itzulia Oñatin bukatuko da apirillean, eta oso gustura egongo naiz.

Hiru asteko itzuli handietan parte hartuko duzu?

Ez dakit, ez dugulako egutegirik. Baina hiru asteko hiru itzulieta bitan egotea espero dut. Zein

nahiago? Akaso, Giroa. Lankideek esan didate Tourraren antolaketan oso ona dela, baina laguntzaileok lan egiteko ez dela oso eroso. Italiako Giroa asko gustatzen zait. Maila handiko proba da, nahiz eta Tourrak ospe handiagoa duen.

Masajista izanik, masajeak ematen dituzu bakarrik?

Bai, zera! [Barre] Askoz gauza gehiago egiten ditugu: taldearen autoak edo kamioiak gidatu, gosariak prestatu, garbigailua martxan ipini, anoa-postuetan edo helmugan egon... Gure eguneko jarduna bukatzeko, masajeak ematen ditugu.

Alejandro Valverde eta Juanjo Cobo dira Movistar taldeko izarrak. Izar distiratsuak dira?

Oso tipikoa da, baina pertsona normalak direla esango nuke. Nik oraindik ez daukat hartu-eman handirik bi horiekin, baina jatorrak direla esango nuke. Egia esan, harro nago proiektu horretako kide naizelako, eta zoriontsua ere bai. Pertsonarik zoriontsuena naiz une honetan.

Caja Ruralekin Movistarrera salto egin duzu. Baina nola heldu zinen masajista izatera?

Ba, zorigaitz batetik zorion batera salto egin nuela esango nuke. Orain dela hiru urte Oñatiko CEUR enpresan egiten nuen lan, baina itxi egin zuten eta langabezian geratu nintzen. Ordurako banekukan masajista izateko titulu, eta Murtzian bizi den lagun batek, Iñaki Urrozek, zuzentzen zuen Contempolis taldean hasi nintzen masajista lanetan. Kataluniako eta Espainiako egin nituen. Hurrengo urtean, lorerik lore ibili nintzen: Espainiako selekzioarekin, Matxinen Footon-Servetto taldearekin, emakumezkoen Giroan...

Txirrindulari garaian Markel Irizarrekin egon zinen Aloña Mendin. Orain, elkarrekin egongo zarete profesional mailan.

Egia esan, ez dakit proba askotan elkar ikusiko dugun, baina ohorea da maila honetan egotea: Markel bizikleta gainean eta ni masajeak ematen.

Iaz, Andaluziako Itzulia irabazi zuenean han nengoen ni, eta oso polita izan zen. Ea, bada, aurten halakoren bat egiten duen berriro ere.

Bizikleta gainean ibili zinen garaitik ze izen gogoratzen dituzu?

Juanma Garate, Haimar Zubeldia, Andoni Aranaga, Dioni Galparsoro... Oso txarra nintzen, baita nagia ere, baina asko disfrutatu nuen.

Aloña Mendiko harrobian hasia

Gaztetan Aloña Mendirekin hasi zen. "Txirrindulari txarra nintzen. Dohain gutxi nituen. Baina oso gustura ibili nintzen lagunekin bizikletan", esan digu Bañosek.

Orduan, Markel Irizarrekin batera ibili zen Aloñaren maillotarekin, baina ez ziren talde bereko kide izan. "Ni zaharragoa nintzen, baina elkarrekin entrenatzen ginen. Dena den, bion arteko ezberdintasunak nabariak dira. Orain, profesional mailako tropelean egingo dutu topo".



Gari Baños, Aloña Mendiko gainerako ziklistekin. | GARI BAÑOS

"Oñatin bukatzen den Euskal Herriko Itzulian egongo naiz taldearekin"

"Alejandro Valverde eta Juanjo Cobo pertsona normalak dira, jatorrak"

"Giroan parte hartzea gustatuko litzaidake; maila handiko proba da"

"Ziklista txarra nintzen, dohain gutxikoa, baina gustura ibili nintzen"

Larraitz Arando: "Sexu-hezkuntza egiteko modu asko dago"

Gure seme-alaben sexu-heziketa hobeto lantzeko pista batzuk ematen ditu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Osasuntsua edo ez, baina beti egiten da sexu-hezkuntza", dio Larraitz Arando sexologia adituak *Guraso.com* atarirako idatzitako azken artikuluan. 0-5 urte bitarteko haurrengan jarri du honakoan arreta eta dio uste okerra dela sexu-hezkuntzarako txikiak direla pentsatzea. Adin horretako haurrekin ere gauza asko lan daitezkeela defendatzen

du. "Garrantzitsua da gurasook sexualitateaz dugun barne ideia, bakoitzak jasotako sexu-hezkuntza eta izandako bizipenak", dio. Hala, nesken eta mutilen artean oharkabean egiten ditugun bereizketak detektatzeko pista ematen dizkigu. Hitzegiteko modua aipatzen du lehengo—doinua, ahotsaren lodiera, piropoak...—Eta hizkuntza egokia erabiltzeko gomendatzen digu, hala

nola "alua", "larrua jo" edo "masturbatu". Sarri egiten dugun "Ba al duzu nobiorik?" galderak ere zer hausnartu eman dio Arandori.

Arropa eta apaingarri sexualtaileak ere aipatzen ditu; jostailuen aukeraketa; koloreen nahasketa neskendako edo mutilendako denean... Nork bere burua aztertzeke gonbitea egiten du, "ziur sorpresa bat edo beste hartuko



Neska arrosaz, mutila urdinez. | ELFER

dugula", diosku.

Haurraren negarra estaltzeko egiten ditugun saiakerak ere saihesteko aholkatzen digu. "Jarrera honekin negarraren bitartez gauzak azaltzea txarra dela ikasiko du haurrak, eta negarraren bitartez zer esan nahi digun ulertzen saiatzeak on egingo digu".

Derrigorrezko musurik ez eskatzeko gomendatzen digu, eta txikia

izanik ere haurraren umore aldaketak eta intimitatea errespetatzeko.

Arandok ikusarazten gaitu, bestetik, zelako jarrera bereizgarriak ditugun genitalekin. "Alua ia ikusezina da", dio. Gaineratzen du haurrarendako garrantzitsua izango dela gorputza esploratzen ari denean helduongan ikusten duen erreakzioa.



Diabetikoa tratamendua hartzen. | MSHJSB

Minbizi eta diabetes kasuek gora egin dute umeetan ere

Osasunak elikadurarekin lotura handia duela diote, behin eta berriz, hainbat arlotako adituek

L.Z. | ARRASATE

Entzuten ari gara haurrak eta nerabeak oso gaizki elikatuta daudela. Aurreko astean, Arrasaten egiten ari diren hitzaldien harira, Dorleta Martinez hematologoak hauxe esan zuen GOIENAn: "Elikagai desnaturalizatuekin elikatuta daude: ogi zuria, findutako zerealak, gehigarri mordoak duten litxarreriekin... (...) umeek ez dakite zer den behi-esnea, tetra-brika bakarrik ezagutzen dute". Eta bizi-esperantza osasuntsuari buruz

aritu zen. "Gizonek batez beste 32 urterekin eta emakumeek 27 urterekin gaixotasun kronikoak dituzte".

Gaur egungo gaixotasun gehienak elikadura txarraren ondorio direla dio Martinezek, eta beste datu bat ere eman zuen aditzera: minbizi gehien handitu den esparrua ume eta nerabeena da.

Haur diabetikoak

Minbizi kasuek bakarrik ez, diabetes kasuek ere gora egin dute haurren artean; *Consumer* aldiz-

karian jasotzen dutenez, mundu mailan %3,8 egin du gora diabetesak haurren artean.

Duela urte batzuk pubertaroan izaten ziren kasu gehienak. Bada, orain, 5 urtetik beherako haurren artean ere ugartzen ari da diabetesa.

Arrisku faktoreak

Gaixotasunak arrisku faktore ezberdinak ditu; tartean, faktore genetikoak. Baina ingurumenak eta elikadurak uste baino garrantzi handiagoa dutela uste dute ikertzaileek. Ongarri kimikoak, aire kutsatua, jarduera fisikorik eza, loditasuna... gaur egun pisu handiko faktoreak direla diote.

Sentsibilizazio eta prebentzio lan handia dago egiteko; izan ere, diabetesaren kasuan ere detekzio goiztiarra oso garrantzitsua dela diote adituek.

Gorputz hezkuntza aztergai gaur Legebiltzarrean

L.Z. | ARRASATE

Gaur, otsailak 20, gorputz hezkuntzaren gutxieneko ordutegiaren inguruan legez besteko proposamena eztabaidatuko dute Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza batzordean. SOHAT—gorputz hezkuntzaren aldeko taldea— eta COLCAFID—Euskal Herriko kirol eta jarduera fisikoen lizentziadunen elkargo ofiziala— bost urte egin dituzte 175/2007 dekretua aldatzeko lanean. Sinadurak batu, ikastetxeetan datu bilketak egin, Siadeco ikerketa taldearekin batera Hezkuntza Curriculuma eta Gorputz Hezkuntzari buruzko ikerlana egin, talde politikoekin harremanetan jarri...

Gaur, 11:30ean, egindako lana Hezkuntza batzordean aurkezteko aukera izango dute eta arduradunei eskatuko diete beharrezko neurriak hartzeko asteen bi orduko gutxieneko ordutegia ezartzeko, bai Lehen Hezkuntzako, bai Bigarren Hezkuntzako maila guztietan. EAJ, PP, Aralar eta EB alderdiek euren babesa agindu dute.

Elkarretaratzea

Ordu berean eta *Gorputz Hezkuntzaren duintasunaren alde, dekretua aldatu* lelopean elkarretaratzea egingo dute SOHATEk eta COLCAFIDek Legebiltzarrean aurrean.

Potxin eta Patxin pailazoak bihar, martitzena, Arrasaten

Potxin eta Patxin pailazoek pil-pilean dauden gaiak jorratuko dituzte *Ohitura onak* izeneko ikuskizunean. Antzerki, mimo, eskujoko, joko eta elkarriketen bitartez bizitzaren ohitura onen berri emango dute. Garraioa eta elikadura osasuntsua izango dituzte, besteak beste, hizpide Amaia antzokian 17:00etan hasita egingo duten saioan.

Oñatin, berriz, umeendako 'Gramola' ikuskizuna

Bihar Txorromorro taldeko sei lagunek disko-makina—Gramola— ipiniko dute martxan haurren parte-hartzearekin batera, eta zuzeneko musikaren bitartez hainbat musika estilo aurkeztuko dituzte. Agertokia dantzaleku bihurtuko dutela ere esan dute. Emanaldia kiroldegiko pilotalekuan izango da, 16:30ean hasita.

Familia eta hezkuntza izango dituzte hizpide Aretxabaletan

Udalak antolatuta, Agipaseko—Gipuzkoako guraso bananduen elkarte— kideek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eta ezberdintasunak izango dituzte aztergai Arkupe kultura etxean. Hitzaldia bihar egingo dute, 18:30ean hasita. Besteak beste, genero berdintasunean nondik jo izango dute hizpide.



KULTURA



Ai Amatxo! musikaleko protagonistetako bi publikoaren txalo zaparrada jasotzen . | JOSETXO ARANTZABAL



Carmen eta bere gaztetako mutil laguna. | J.A.

Ongi-etorri arrakastatsua eman diete bergararrek Aratusteei 'Ai Amatxo!' rekin

Pilotalekua bete egin zen ABBAren *Mamma Mia*, *Waterloo* edo *Dancing Queen* abestiez gozatzeko

ANDER MONEDERO | BERGARA

Bergarar askorentzat urteroko zita da herriko Udal Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren Aratusteetako emanaldia, eta aurten ere pilotalekua bete egin da *Ai Amatxo!* ABBA talde suediarren kantuetan oinarritutako musikala ikusteko.

Bergarako Udal Musika Bandak lau abestiz osatutako ema-

naldia eskaini zuen. Bertan, hiru pieza klasiko *–Manhattan Skyline*, *Ross Roy* eta *Eloise*– eta *Aratusteetako dantzak* izeneko piezak jo zituzten. Pieza horren barruan, *Pastelero*, *Galtzaundi*, *Iriyarenaeta Praiskuarena* abestien doinuak entzun ziren.

Bergarako musikariek horrela eman zieten hasiera Aratusteei, eta gero ikusmin handia piztu

zuen *Ai Amatxo!* musikalaren txanda izan zen.

Musikalaren protagonistak Carmen eta Mirenen ezkontzaren aurreko egunetan hasten da istorioa. Carmenek ez daki zein den Mirenen aita, baina honek hiru aita posibleak bilatu eta ezkontzara gonbidatzen ditu. Hori ikusterakoan, haserretu egiten



Debako Biraka dantza taldeko kideak egubakoitzeko emanaldian. | J.A.

da ama, baina gaztetako abenturak gogora ekartzen ditu. Momentu horretan, *Mamma Mia*, musikari izena ematen dion abestiaren bertsioa kantatu zuten: *Ai Amatxo!*

Mirenek, berriz, ezkontza aurretiko zalantzak ditu eta horiek gogora ekartzeko, *Dancing Queen* abestu zuten taula gainean. Gero, ama eta alabaren arteko elkarriketan *Chiquitita* abestiaren bertsioa kantatu zuten.

Ezkontzaren eguna iritsita-koan, ordea, Mirenen zalantzak ordura artekoak baino handiagoak direla-eta, ezkontzeko gazteegia

dela erabaki, eta Aitor mutil-lagunarekin mundua ezagutzera joaten da. Ama, berriz, gaztetako denborak gogoratu ostean, ezkondu egiten da orduko mutil lagunarekin.

Bukaeran, txalo zaparrada

Emanaldiaren bukaeran, txalo zaparrada itzela jaso zuten musikari, abeslari zein dantzariak eta publikoaren berotasuna eskertzeko *Mamma Mia*, *Dancing Queen* eta *Waterloo* abestiak berriz ere kantatu zituzten. Irteeran, publikoaren aurpegietan irribarreak nagusi izan ziren.




FERNANDO IBAÑEZ
BERGARA

"Zoragarria izan da. Bergararra naiz eta urteroko zita da Bergarako bandaren eta orkestraren Aratusteetako kontzertua. Aurtengoa, gainera, oso alaia izan da, mugimendu askoko ikuskizuna izan da".



MATI ETA ROSARITO
BERGARA

"Oso ikuskizun ederra izan da. ABBA asko gustatzen zaigu eta pelikula ere ikusi dugu. Bergarako orkestra sinfonikoak urtero eskaintzen du ikuskizun polita eta aurten ez da gutxiago izan. Ikuskizunean parte hartzen duten gehienak herriko lagun eta ezagunak dira. Horrelako musikalek ezin dira herri guztietan egin, meritu handia dute".



ITZIAR ETA GONZALO
BERGARA

"Asko gustatu zaigu. *Mamma Mia* musikala New Yorkeko Broadwayn ikusi genuen eta oso ondo irudikatu dute. Gaurkoa motzagoa izan da, baina oso zaindua. Amerikako Estatu Batuetan ondo; baina gaurkoan, ezin hobeto. Bergaran horrelako gauzak egitea posible dela erakusten digute urtero Aratusteetako emanaldian".



JOXE MARI LARRAÑAGA
BERGARA

"Asko gustatu zait. Ikuskizun honetan ehundaka pertsonak egin dute lan eta, gainera, gehienak bergararrak dira. Ez da erreza horrelako musikalek herriko jendearekin egitea, meritu handia dute".



Miren Gojenola, Mikel Laskurain, Isidoro Fernandez eta Fernando Ruiz. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

Gezuraren sinesgarritasuna

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Emanaldi bikoitza egin dute Ados antzerki taldeko kideek gurean aste bukaeran. Egubakoitzean Oñatin izan ziren eta gu ere hara joan ginen Mikel Laskurain bergararren eta gainerako aktoreen lana bertatik bertara ikustera.

Santa Ana antzokia bete egin zen Henry Wilten gora beherak ikusteko. Mikel Laskurain eta Isidoro Fernandez aktore entzutsuek indar handiz egin zuten lan akusatu eta poliziaren papelean, hurrenez hurren. Emaztea zulo batera botatzeaz leporatuta

Wilt polizia etxean atxilotuta dagoela hasi zen antzezlan. Wilt azaldu beharko du zuloan dagoena ez dela bere emaztea, panpina puzgarri bat dela. Horretarako gertatutakoa azaltzen saiatuko da, baina konturatuko da errealitatea nahiko surrealista

ta dela. Azkenean, gezurra esango du sinis diezaioeten.

Antzezlanak, modu batean, gaur egungo sistema kritikatzeko du: polizia eta sistema eskolarra, batez ere.

Aitziber Garmendiaren lana

Nabarmenezkoa izan zen Aitziber Garmendia gazteak egindako lana. Polizia agente, emakume frantses, institutuko ikasle eta baita irakasle ere. Paper horiek guztiak egin zituen Garmendiak. Freskotasuna eta naturaltasuna

FITXA

ANTZERKIA

WILT; PANPINA PUZGARRIAREN HILKETA**Generoa:** Komedia.**Non:** Oñatin.**Eguna:** Egubakoitza, otsailaren 17a.**Iraupena:** Ordu eta erdi.

erakutsi zituen eta ikusleen artean behin baino gehiagotan eragin zuen barrea. Gauzak adierazteko moduan grazia berezia duela erakutsi zuen; baina, hizkerarekin bakarrik ez, gorputzarekin ere ederto moldatzen dela argi utzi zuen. Pertsonaia bakoitzari ibilera eta gorpuzkera berezia eman zizkion; institutuko irakasleari, adibidez, ipurdi galanta jarri zion. Antzezlanaren amaitu zenean, gainera, detaile berezia izan zuen amarekin: *Zorionak ama* zioen kartela atera zuen, antzezlanaren ikustera joan zen ama zoriontzeko asmoz.

Euskalkien erabilera

Aktoreek nork bere euskalkian lan egiten dute *Wilt* antzezlanean. Isidoro Fernandez eta Fernando Ruiz aktoreek euskara batuan egiten dute lan baina gainerakoek euren euskalkia erabiltzen dute taula gainean. Horrek gertutasuna eta naturaltasuna ematen dizkio antzezlanari, eta ikusleek gustura hartzen dute hori.

Esne Beltzak Bergarako gaztetxoak erakarri zituen egubakoitzean

Trikitixa batzordeak antolatuta 125 bat lagun batu ziren gaztetxean

A.E. | BERGARA

125 bat lagun batu ziren egubakoitz arratsaldean Esne Beltza taldearen emanaldia ikusteko. Taldearen izena eta kontzertuaren ordua kontuan hartuta, gaztetxo asko joan ziren Bergarako gaztetxera. Taula gainean hiru musikari arituko ziren: tronboi jolea, Xabier Solano trikitilaria eta DZ disko jartzailea.

Sound system emanaldia

Esne beltzak sound system erara eskaini zuen kontzertua, formatu txikian. Antolatzaileak gustura geratu ziren, "giro polita" ipini zutela adieraziz. Batez ere, taldearen betiko abestiak eskaini zituzten, eta gaztetxera joandako gaztetxoek gustura entzun zuten emanaldia.

Baina kontzertua bakarrik ez zen izan egubakoitzean Esne Beltzak eskaini zuena; emanaldi didaktikoa ere eskaini zuten. "Musikan urte mordo daramatzate eta euren bizipenak ere kontatu zituzten", azaldu du Aritz Alustiza Bergarako trikitixa batzordeko kideak. Musikariek ikusleak animatu zituzten taula gainera igo eta musika instrumentuak jotzera: "Soinua jo dute,



Esne Beltza taldekoak Bergarako gaztetxean. | JOSETXO ARANTZABAL

platoak nola erabiltzen diren ikasi... musikariek eta ikusleen artean harreman zuzena sortu da", zioen Alustizak.

Trikitixa batzordea, talde moduan, aurten hasi da lanean. Urtarrilean afari bat antolatuta

zuten eta egubakoitzeko euren bigarren ekintza izan zen. Azaldu dute lanean dihardutela aurrera begira: euren asmoen artean dago Joseba Tapia Bergarara ekartzea. Uda aurretik antolatuta nahiko lukete hori.

Bideoan grabatutako koplekin egindako lehiaketa jarri dute martxan

Lanak martxoaren 25a baino lehen bidali beharko dira 'praktikatuaek@gmail.com'-era

A.E. | ARRASATE

Euskal Herriko Bertsozale Elkar-teak eta AEKren *Praktikatu* egitasmoak *Bideokopla* lehiaketa jarri dute martxan. Txapelketa honek helburu bikoitza du: batetik, euskara ikasten edota praktikatzeko dabilzanak bertsozalearen mundura hurbiltzea; eta bestetik, bertsoek euskara praktikatzeko eskaintzen dituzten aukerak erakustea. Ekimenaren sorrera 17. Korrikaren baitan antolatutako *Euskalakari Koplari* txapelketaren arrakastarekin lotzen da. Duela urtebeteo Bertsozale Elkar-tearen eta Korrikaren arteko lankidetzari esker egin zen lehiaketa hura.

Kopla oinarri duen bideoa

Parte hartzen dutenek bideo bat sortu beharko dute, koplak oinarri hartuta. Bi lagunetik

gorako taldeetan bildutako lehiakideek sei koplak hamabira bitarteko sorta bat osatu beharko dute, eta bideo bat grabatu, gai hau ardatz: *Euskaraz bizi nahi dut, dugu, duzu, zaitut...* Kopla horien bidez, egileek "euskaraz bizitzeko nahia" adierazi beharko dute nahi duten eran. Doinua libre izango da.

Bideoan grabatutako kopla sortak *praktikatuaek@gmail.com* helbidera igorri beharko dira martxoaren 25a baino lehen. Saria talde irabazlearentzako bertso-bazkari edo afari bat izango da, bi bertsozaleekin batera, taldeak eta antolakuntzak adostutako jatetxe batean. Epaimahaia Bertsozale Elkartea izango da, baina edonork edukiko du bere gustuko bideoa bozkatzeko aukera *Praktikatu AEK* Facebookeko orrialdean.

Manu Muniategiandikoetxea | Artista

"Interesa bai, baina mugimendu gutxi izan da salmentetan"

- ▶ Ikus-entzunezko euskarrian aurkeztu ditu lanak
- ▶ Askok ibili dira Antoni Tápiesen lanetaz galdezka

GOIATZ ARANA | BERGARA

Manu Muniategiandikoetxea artista bergararra Arcon izan berri da. Bertan jasotako inpresioaz hitz egin dugu berarekin.

Zer moduz joan da feria aurten?

Jendea gauzak galdetzen eta erre-serbak egiten ikusi dut. Dena den, azken momentura arte itxaroten dutenak asko dira eta erre-serba batzuk ez dira gauzatzen, gainera. Salmenta mugimendua geldoa da. Nire galerian, ematen zuen hasieran dezente salmenta gauzatuko zirela, baina hitz emandako gauza asko ez dira aurrera irten. Jendeak interesa erakutsi duen arren, ez da ezer hitzartu. Galeristen aurpegian sumatu da salmenta eskas joan dela.

Zein da eroslearen profila?

Lehen, bilduma handiak saltzen ziren eta erakunde publikoak ziren erosleak: gobernuak, diputazioak... baina, pixkanaka, merkatu hori desagertu egin da. Merkatu pribatuaren unea da orain eta beste era batekoa da hori: etxe arruntetarako obrak erosten dituen jendea dator. Arcon obra txikiak erosten dira, nagusiki; 2 metro ingurukoak. Erosle profilari dagokionez, bilduma onak dituztenak dira eta urtero-urtero obra asko erosten dituztenak.

Idea berritzailea izan duzue.

Bai ikus-entzunezkoan aurkeztu ditugu lanak. Gure galeria Madril bertan egonda, hara eraman

nahi izan dugu jendea; batzuk Arcotik galeriara autobusean ere joan dira. Horrek aukera ematen du galeriako biltegiak ditugunak ere ateratzeko. Ideia ona da, hein batean, baina bere arriskua ere badauka. Izan ere, jendea lanak Arcon bertan ikustera ohituta dago eta, kasu honetan, galeriaraino joan behar izan dute benetakoak ikusteko. Zeresana eman du ikus-entzunezko euskarriak.

Franco ere bertan izan da...

Bai, eta polemika galanta piztu! Eugenio Merino egileak beti ematen du zeresana: iaz, judutar eta Rabinoen artelanarekin, adibidez. Ironiaz eta historiaz berba egiten du lan horrek; obra ondo eginda dago eta teknika ona du. Niri ondo dagoela iruditu zait, baina ez nintean joan ikustera; bestelako lan batzuen bila ibili naiz.

Ze lan eraman dituzu zuk?

Azken urtean egindako lanak eraman ditut: *tondos* teknikaz egindakoak, borobil formako lanak dira. Izan ere, teknika horren gainean ikertzen jardun dut eta nire koadroetan mozketa hori aplikatu gura izan dut, marrazki abstraktuak lortuz. Picassok erabiltzen zuen teknika da. Koadroa ikusi behar da ulertzeko.

Antoni Tápiesen lanak baziren?

Bai, toki guztietan ikusgai zeuden Tápiesen lanak. Espainia mailan lan asko egin zuen galeria askotan eta jendea galdezka ibili da ferian; interes handia piztu du.

Baina pentsa ze prezio izango duten orain! Bere iritzia eta puntu kritikoa nabarmenak izan dira. Abstrakzioa zabaldu zuen; aldaketa politikoa eta artistikoa ekarri zituen lehen mailara.

Besteen lanak gustatu zaizkizu?

Gustuko gauzak ikusi ditut. Warhol edo Picasso gutxi ikusten dira, 800 milioitik gorako lanak dira-eta. Bezeroak ez dira maila horretakoak; bai, ordea, Txillida edo Oteizaren lanak.



Manu Muniategiandikoetxea. | GOIENA

"Arcoko eroslearen profila arte bilduma onak dituztenek osatzen dute"

"Aurten, *tondos* izeneko teknikaz egindako lanak eraman ditut"

'Ilargiaren bi aldeak' antzezlanaz zapatuan Arrasateko Amaian

Antzerkia, dantza eta zirkua uztartzen ditu Hika taldearen *Ilargiaren bi aldeak* lanak eta familia osoari zuzendua dago. Ilargiaren alde banatan bizitzak taupada ezberdinak dituela erakusten du: batean, gaztetxo batek gerrako jolasetan gozaten du, besteak gerra ahazteko jolas egiten duen bitartean. 17:00etan hasiko da saioa.

La banda del abuelo lan berria grabatzen hasiko da apirilean

Malpaso izeneko hirugarren diskoa sarean zintzilikatu eta gero, Arrasateko taldea laugarren lana gertatzen dabil orain: apirilean sartuko dira estudioan grabaketa lanak egitera eta asmoa da maiatzerako edo ekainerako kalean izatea. Kantuen letrak irakurtzeko edo diskoaren izenburua topatzen laguntzeko jo Facebookera.

Azoka txikia kalean

otsailak 24-25

izugarritzko beherapenak

BEDELKAR
BERGARAKO DENDARI, OSTALARI eta ZERBITZUEN ELKARTEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATUA eta TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

Bergaran danetik eta onetik...

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK
BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA /
NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK
AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK
BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK
JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK
URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK
JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

GURE MUSIKA TALDEAK

LOTIS

"Nire-nirea da diskoa, gura izan dudana egin dut, askatasun osoz"

- ▶ Angel Lumbreras gitarra jotzaile oñatiarrak bakarkako diskoa atera zuen abuztuan
- ▶ Askotariko sentimenduak islatu ditu diskoa osatzen duten sei abestietan

MIREN ARREGI | OÑATI

Angel Lumbreras da Lotis. Gaztetako goitizena, bakarkako proiektuaren izenburu bilakatu da orain. Hura bakarrik da Lotis. Hark sortu, jo eta abesten du. Lagash taldeko gitarra jotzaile ohiak *No llueve eternamente* diskoaz egin digu berba.

Lagashekin urte mordo egin ondoren bakarkako disko batekin zatoz. Ezin duzu musika utzi...

Ezin dut utzi, ezin dut. Horrek ez du esan gura egunero sortzen, jotzen, pentsatzen nabilenik, ezta gutxiago ere. Ematen ditut tartekak ezer egiteke. Egon naiteke urte oso bat ezer jotzeki eta bat-batean konposatzeko gogoia sartzen zait... Arraroa da, esaterako, diskoa atera nuenetik ez dut ezer egin.

ZERTZELADA



NO LLUEVE ETERNAMENTE

Estiloa: Heavy, pop, rock...

Egilea: Lotis.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 26,22 minutu.

Heavy sentimendua eta malenkonia

Do It Yourself edo Zuk zeuk egizu leloa punkarekin (eta hardcorearekin) erabat lotua izan bada ere, luzaroan Lagash talde heavyan ibilitako oñatiar honek ere aukeratu du. Berak instrumentu guztiak grabatu eta abesteaz gain, bere kasa atera du diskoa, presentazio txukunaz gainera. Hala, bakarlariarena baino talde (itxurako) emaitza da honakoa. Espainian egin izan den heavyak asko dauka malenkoniarik eta ondo ezkondu ditu biak, heavy oso melodikoa landuz. Badira punteoak, baita baladak eta, harrigarria bada ere, new wave sasoiko melodia duen pieza ere.

IKER BARANDIARAN

Beti izan duzu gogoia bakarkakoa ateratzeko?

Bai, beti gura izan dut. Orain talde baten ere ez nagoenez, pentsatu nuen momentua zela zerbait egiteko.

Desberdina omen bakarrik jotzea.

Ez dauka zerikusirik taldean jotzearekin. Bakarrik zaudenean gura duzuna egiten duzu, ez duzu taldekideen oniritziarik behar, gustatzen zaizuna egiten duzu.

No llueve eternamente da diskoaren izenburua; zer da?

Ez dut konplikatu gura izan. Oso disko xumea, soila da. Horrekin esan gura dut gauza erraza dela, edozeinek jo ditza ke diskoko kantua, ez dago konplikaziorik konposizioetan. Oso letra normalak ditu, ni ne nauzen modukoa da diskoa.

Oso sentimental den itxura hartu diogu.


Ez da maitasun disko bat; hori argi utzi gura dut. Sentimenduak adierazten ditut. Sentimendu guztien artean badira maitasuna adierazten dutenak, baina ez da amodiozko disko bat. Min handia dago, betiere bukaera baikorrarekin. Letrak horren dira sinpleak oso erraz ulertzen direla, hala ere, jende askoren iritzia da amodiozko disko bat dela. Nik ez dut hori egin gura izan eta ez dago "maite zaitut" esaldia abesti bakar baten ere.

Nola hasi zinen diskoko abestiak konposatzen?

Neskalagunari abesti bat egin nion duela pare bat urte. Jendeak entzun egin zuen eta hasi zitzaidan esaten ea zergatik ez nuen abesti gehiago egiten. Horrela hasi nintzen. *Solo tú* zen neskalagunari idatzi niona, eta *Ahora sé* bigarrena. Bi abesti horiekin demo bat egin nuen. Jendeari gustatu egin zitzaion eta abesti gehiago idatzi nituen. Diskoan sei sartu ditut.

No pude dejarlo da azken abestiaren izena. Musikarekin duzun harremanaz ari zara?

Bai, guztiz. Bi zati ditu abestiak: lehenengoan, nitaz eta gitarrak dihardut. Lagash taldeari keinu bat egiten diot. Lagashekin bizi izan genuen etsipenaz hitz egiten dut. Horretaz, eta esan bezala, musikarekin dudana loturaz. Ezin diot konposatzea-



Angel Lumbreras da Lotis. | ANGEL LUMBRERAS

"Sentimenduak adierazten ditut, baina ez da amodiozkoa"

ri utzi. Horri erreferentzia garbia da *No pude dejarlo*.

Asmorik baduzu zuzenekoak egiteko?

Oraingoz ez. Niretzat zerbait egin gura nuen, eta egin dut. Ez dut konplikaziorik gura. Lotura handia da kontzertuak ematen hasteara. Lagashekin urte askoan egon naiz kontzertuak ematen, eta orain ez daukat horretarako gogorik. Beste

barik, konposatzea gustatzen zait, eta egin egiten dut.

Beraz, ez da helburua ahalik eta gehien saltzea.

Ezta gutxiago ere. Ez dut hemendik ezer atera nahi. Diskoa 3 eurotan ipini dut salgai ahal den heinean produkzioaren gastuei aurre egiteko, baina ez da nire asmoa honekin ezer ateratzea. Nire kapritxo bat izan da.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Prezio berria. Aukera paregabea. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberitua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bikomun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. 20 metro koadroko garaje itxia aukeran. 650-01 05 15.

Atxondo. 75 m². 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Berogailua. Berzitatua eta altzariz hornitua. Deitu konpromiso barik eta ikusi. 180.000 euro. Tel.: 655-73 74 47.

Atxondo. 200 m²-ko txaleta salgai. Sukaldea, bi egongela, lau logela, hiru bainugela (bata logela baten barruan), trastelekua. Altzariz hornitua. Berogailua, zoru erradiantea eta aspirazio zentrala. Terraza eta 4.000 m²-ko terenoa. Prezioa: 900.000 euro (negozialariak). Tel.: 615-70 12 23.

Berriz. Pisu salgai herri erdian. 71 m²: egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta ganbara. Bihorma-armairu, berzitu eta eguzkitsua. Aurrealde margotu berria, eta komunitateko gasturik gabe. 193.000 euro. 679-86 17 30.

Berriz. Berriz erdian pisu berria salgai. 80 m². Oso kokapen ona. Guztiz jantzita dago. Sukaldea, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despentsa txiki batez). Berogailua, zoru erradiantea da. Oso eguzkitsua da. 607-52 24 26.

Bolibar. Etxe zaharra salgai Bolibarren. 34 m² x 3. Teilatu berria eta proiektuagaz. 3 gela eta 40 m²ko terraza. 150.000 euro. Tel.: 660-35 80 67.

Durango. Pisu salgai Muruetarren. 90 m². Sukaldea eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela barruan). Guztiz berzitu (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia. Eguzkitsua, bista eta kokapen ederrekoa. Ganbara eta garajea. 686-13 89 09.

Durango. 98 m²-ko etxebizitza oso eguzkitsua: 3 logela, sukaldea-jangela, egongela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m² eta 8 m²-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz bete eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, hormak lau armairu, aluminiozko leihoak, atek eta zoru aldatuta. Garaje eta igerilekuarekin. Tel.: 655-70 46 84.

Elorrio. Zentrikoaren 90 m²-ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, garaje partzela eta trastelekua. 657-79 39 38.

Elorrio. 76 m²-ko etxe berria. Erdigunean. Sukalde ekipatua, 2 logela, 2 komun eta 10 m²-ko trastelekua. Garajea aukera erosteko aukera. Prezioa: 38 milioi. Tel.: 634-45 72 01.

Elorrio. Salgai estreinatze dagoen 162 m²-ko terraza duen atikoa (73 m²). 2 logela, egongela bat, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekua. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea!. 615-75 59 85 (goizez) eta 636-22 49 02 (arratsaldez).

Eskoriatza. Duplexa salgai, 120 metrokoa. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. 679-16 24 96.

Gasteiz. 57 m², egoera onean, kalefakzioa eta ura elektrikoak dira, hegoaldera begira. 1. solairua, 5 ate pisu bakoitzeko, igogailua, eraikinak 20 eta 30 urte bitartean ditu, 2 logela, 2 komun (biak bainerekin), sukaldea (garbigailua, mikroondasa, etab.), balkoia, moketalogetan, parketa egongelan eta baldosak gainontzekoan, banakako garajea, itxia, eskiak gordetzeko tokia, piszina eta belardia urbanizazioaren barnean, aurrean plaza bat dauka, kolunpioekin etab, orain dela urte bat hormak margotu ziren eta zoru aldatu zen, altzariekin. 665-75 78 07. marian.formigal@gmail.com.

Lurreta. Pisu bat salgai Arriandin, lurretan. 78.000 euro. 685-72 80 42.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorenzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. 699-78 47 49.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai trastelekuarekin. Igogailua. Tel.: 675-71 72 83.

Zaldibia. 2008-an eraikitako etxebizitza herri erdian. 81 m². 3 logela, 2 komun, 3 armairu enpotratu, sala, sukaldea eta terraza ederra. Garaje itxia bertan. 199.000 euro. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 626-62 37 92.

Zegama. Etxebizitza salgai Zegaman. Oso etxe atsegina. Erabat berria. 2 logela, sala, sukaldea, komuna eta balkoia aizkorria begira. Garaje itxia. 652-75 51 52.

102. EROSI

Durango. Baserrri bifamiliar osoa erreformatzen dizut, baserrri erdiaren truke, durangaldean. Beste proposamenen bat badaukazu, kontutan hartuko dut. 618-93 62 14.

103. ERRENTAN EMAN

Altsasu. Intxaurren kalean. 3 gela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Interesatuak deitu 630-22 13 41 telefonora.

Bergara. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukaldea. Hornitua eta jantzia. 607-32 74 32.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. 663-77 14 50 / 671-14 99 63.

Bergarako alde zaharrean etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Berokuntzarekin. Guztiz berria. Altzariekin. Ateginia. 629 38 29 96

Donostia. Pisu alokatzen da. Donostian, egia auzoan, jai alai aldean, pisu txiki eta polit bat alokatzen da prezio onean. Sukaldea, egongela, komuna eta logela. Oso argitsua eta dena kanpora begira. 605-72 39 55.

Elorrio. Pisu alokagai herrigunean. 3 logela, 2 bainugela. Trastelekua. Amueblatua. 600 euro hilean. 634-45 72 01.

Eskoriatza. Baserrri ematen da errentan. Guztiz eraberitua. 605-77 51 65.

Oñati. Errekalde 3an etxebizitza ematen da errentan. Igogailua, oso eguzkitsua, guztiz berria, oso ondo hornitua eta jantzia. Hiru logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Nahiago bertako pertsonak. 677-07 19 37.

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da Kale Zaharrean. Hiru logela. Deitu 656 00 84 92 telefono zenbakira.

Olazti. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Interesatuak egin dezatela 620-90 60 95 telefonora.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak
401. Eskaintzak
402. Eskeraak
403. Bestelakoak

4. LANA

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

6. MOTORRA

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Justo Garate Plaza. 80 m². 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
- Azkurrantz 75 m². 3 logela. Berritua. 144.243 €.
- Simon Arrieta 90 m². 3 logela. Balkoia, igogailua, berogailu eta trastelekuarekin.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395 €.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailua eta igogailuarekin. Prezio ona.
- San Lorenzo 67 m². Garajearekin.
- Zubiourre 51 m². 102.000 €.
- Herri Lagunak 60 m². 2 logela. Oso ondo. 160.771 €.
- Zabalotegi 54 m². Balkoiarekin. 96.000 €.
- San Pedro 65 m². 2 logela. Erabat berzitu. Ganbararekin. 122.606 €.
- Burdinata. 104 m². Garajearekin. Oso prezio ona.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000 €.
- Bolu 140 m² duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona.
- Burdinata 53 m². Apartamentua, oso ondo.
- Masterreka 70 m². 2 logela. Igogailua eta garajearekin.
- Bidekurutzetan 60 m² obra egiteko. Oso prezio ona.
- Zubiourre 82 m². Igogailua eta berogailuarekin. 150.253 €.
- Zubieta 240 m², orluarekin.
- Lorentxokan pisuak estreintzeko.
- PREZIO BEHERAPEN HAUNDIAREKIN!!!
- Urteagan pisuak estreintzeko. 195.000 €.
- Bidekurutzetan pisuak estreintzeko. 1,2,3 eta 4 logela.
- Masterreka 104 m². 3 logela. Estreintzeko. Trastelekuarekin. 294.495 €.
- Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.

Antzuola:

- Baserría 200 m². 3 logela. Berria. Garajea. Lur sailarekin.
- Buzintzurri apartamentua estreintzeko. Aukera ona.
- Buzintzurri, Sagasti, Antigua, Zurritegi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aiera eta Errekalde. Etxe onak.

Soraluze:

Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Elgeta:

- Torrealedea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelakoa. 685-42 72 80.

Arrasate. Etxebizitza bila, errentan. Hiru logelakoa. Oso arduratsua. 630-26 13 28.

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Bi logelakoa. 610-99 70 46.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. 618-90 23 66.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelakoa. Balkoi edo terrazaduna, nahiago. Hilean 600 euro ordain ditzaket. Andrea. 617 28 08 07

Donostia. Donostian umerik gabeko bikote bat alokera pisu billa gabiltza. Gros, egia, Intxaurren Alde Zaharra, ategorrietan. Eskerrikasko. belarrak@hotmail.com

Elorrio. Alokatzeko pisu bila nabil Elorrian. Altzariekin. Tel.: 94-658 21 91.

Oñati. Etxebizitza behar dut errentan. Estudio, logela bat edo biko. Venezuelakoa naiz. 608-49 89 76.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Pertsona bat behar da lau gela eta bi bainu gelako pixua osatzeko. etxea oso eguzkitsua da, oso ondo dago eta hiru langile bizi dira bertan. 653-71 44 57.

Arrasate. Etxe osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. 630-71 35 83.

Arrasate. Logela ematen da errentan pixua osatzeko. Jende langilea bizi da bertan. 653 72 43 19 edo 699 11 45 14

Bergara. Logela ematen da errentan pertsona bakar edo bikotearentzat. 699-09 46 26.

Berriz. Logela alokagai baserrri batean. Estreintzeko eta leku paregabea. Aukera, nahiago emakume. Interesatuak deitu telefono honetara: 619-66 58 57.

Durango. Logela bat alokagai durangon. Tel.: 630-76 18 28.

Durango. Mutil gaztea pisu konpartitu batean logela bila. Durangon edo lurretan. Deitu lasai. 658-42 86 12 edo 658-71 16 42 (Malick/Iñaki).

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Bergaran, 15 m²ko garaje itxia salgai Ozaetan. Prezio negoziagarria. 655-72 63 13 / 943-76 50 71.

Berriz. Garaje itxia salgai. 42 m². Ate automatikoagaz. Ura eta argiaren instalazioak, iaztik. Komuna eta bodega txiki bat. 2-3 kotxe. Txokoa sukaldeagaz. 615-75 21 36.

Berriz. Berrizen, Learreta-Markina kalean garajea salgai. Eskola aurrean. Sarrerak errepidera ematen du. 30 m². Interesatuok deitu telefono honetara: 663-39 75 88.

Durango. Garajea salgai. Montoretan, Simply supermerkatuaren ondoan. 2 lerro, autokarabana sartzeko toki aproposa. Interesatuok deitu telefono honetara: 652-76 81 31.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean. 20.000 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 660-45 87 56.

Eskoriatza. 15 metro koadroko garaje itxia salgai Intxaurren 23an. Interesatuok deitu telefono honetara: 679-16 24 96.

Otxandio. Garaje itxia salgai Otxandion, pertsiarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675-71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje itxia ematen da errentan Araba ibilbidean. 678-73 66 54.

Arrasate. Garaje bat alokatzen da arrasaten. Larreako etxean atzetik (Usaetxe enparantzan). 60 euro hilean. Sergio. 678-53 82 48 edo soliveira@hotmail.es

Durango. Kotxe partzela alokagai Askatasun etorbidea 11n. 94-681 39 32.

Durango. Garaje itxia alokairuan Sasikoa inguruan. 75 euro. Tel.: 688-80 70 92.

204. ERRENTAN HARTU

Garajea errentan hartu. Garaje bat errentan hartuko nuke Oñatiko Bidebarrieta kalean. Interesatuok deitu telefono honetara: 626 59 91 86

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Elorrio. Elorrian 170 m²-ko lokala alokagai edo salgai. Oso toki onean, erdialdean. Eskaparate handiekin. Edozein negozio ipintzeko aproposa. Tel.: 94-658 21 01 (dendako ordutegian).

Gasteiz. Azken erabilera: tailer mekanikoa, garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariek eta garajea atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonen mol-datua. Hiri erdigunetik komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzera ere posible da: 800 euro/hil. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana)

Bergara. Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko orduka edo asteburuetan ere bai. 606-54 89 90.

Debagoiena. Tradiziozko sukaldari moroakorra jatetxe edota jaialdi pribatuetan lan egiteko eskaintzen da, ordu edota egunak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672-74 67 69. Said.

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate, Aretxabaleta edo Abadiño. Persona nagusien zaintzarako, garbiketarako edo umeen zaintzarako lan bila. Orduka, gauze edo asteburuetan. Sukaldatu, plantxa egin... Ospitalean, garbiketara eta nagusien zaintzan esperientzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696-75 35 30.

Abadiño. Umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako eskaintzen dit neur burua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697-25 87 24.

Arrasate. Emakume euskalduna. Umeak zaindu eta eskolara eramango nituzke. Orduka plantxa egiteko ere prest nago. Interesatuok deitu telefono honetara: 626-29 98 43.

Arrasate. Aretxabaleta edo Eskoriatza. Andre arduratsua lanerako gertu: garbiketarako nagusiak zaintzen. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. 682-31 97 37.

Arrasate. Neska gertu gaixok eta edadetuak zaintzeko. Esperientziak daukat egoitzatan geriatrria laguntzaile gisa. Gauak ospitalean egiteko prest. Etxe garbiketarako ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 693-40 88 86.

Arrasate. Gizona gertu edozein lanerarako: garbiketarako lokaletan, tabernetan zerbitzari edo bestela. Baita asteburuetan ere. 693-40 88 86.

Arrasate. 53 urteko bertako emakumea edozein lan egiteko gertu: umeak zaindu, etxekolana egin, pertsona nagusiak zaindu eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943-79 60 89.

Beasain. Lan bila nabil, umeak eta adinekoak zaintzen, garbitzen, dendari bezala. Erreferentzia onak dituen neska naiz, interna edo etxera bezala, edo orduka lan egiteko aukera. Deitu: 606-72 28 76.

Bergara. Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Erreferentziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 10 13 94

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketara eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638-59 04 71.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zaintzeko orduka edo asteburuetan ere bai. 606-54 89 90.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanak egin edo nagusiak zaindu zein laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943-71 53 74 / 695-73 87 95.

Debagoiena. 40 urteko emakumea gertu nagusi zein umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono honetara: 620-43 85 40.

Debagoiena. Asteburuetan zerbitzari lanak egingo nituzke jatetxe batean. Esperientzia eta ingelesa. 649-57 70 59.

Debagoiena. Neska gertu sukaldari edo garbiketara lanak egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak eguneratuta daukat. 619-78 63 41.

Debagoiena

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke asteburutan, jaiagunetan edo etxean bertan. Gazez ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638-13 97 28.

Debagoiena. Emakumea eskeintzen da etxeko garbiketa orokorrak egiteko, esperientziaduna. Lanean hasteko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 672-88 01 01.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketakin, nagusiak zaindu zein tabernatan lan egiteko. Egun osoz zein orduka. Interesatuok deitu telefono honetara: 605-41 88 20.

Debagoiena. 42 urtetako emakumea lanerako prest, arraindegian lan egiteko eta janariak manipulatzeko karnetak ditut. Pertsona nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko prest. Automobiladukak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678-98 30 32.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke: nagusiak zaintzen edo denetariok garbiketala lanetan. 699-09 46 26.

Debagoiena. Emakumea esperientziaduna eta arduratsua, etxeko lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680-12 73 16.

Debagoiena. Zaintzailea. Haur hezkuntza ikasi duen 22 urteko neska prest haurrak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 688-88 39 57.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, lanegietan zama lanak egiteko edota garbiketala lanetan jarduteko. 685-42 72 80.

Debagoiena. Neska arduratsua umeak zaintzeko, nagusiak zaintzeko eta paseatzen atera- zeko eta garbitasun lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943-71 53 74, 695-73 87 95.

Debagoiena. Elgeta, Bergara edo Arrasate. Emakume euskalduna gertu lanerako. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-50 02 67.

Debagoiena. Esperientziadun automozio mekanikaria lanerako eskaintzen da. Hidraulika-neumatika eta pisudun makinak ezagutzera, besteak beste. Antonio. 656-69 80 70.

Debagoiena. Neska euskalduna edozein lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 673-41 99 69.

Debagoiena. Neska euskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketala lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Informeak ditut. Disponibilitate osoa. 671-35 22 60.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko, baita etxean bertan bizitzaren ere. Umeak ere zainduko nituzke edo garbiketala lanak egin. Baserrietan ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 669-10 13 94.

Debagoiena. Umeak zaintzeko gertu nago. Aisialdiko hezitzailea naiz. Brigitte. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 664-51 64 98.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Interna edo externa. Lanaldi osoa. Erreferentziak eta esperientzia. 637-14 62 42.

Durungaldea. Asteburuetarako lan bila. Garbiketala, umeen edo nagusien zaintzan. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697-12 64 38.

Durungaldea. Emakume arduratsua nagusien edo umeen zaintzan edo garbiketala lan bila. Interna, externa, orduka edota asteburuetan. Erreferentziak eta esperientzia. 680-29 66 76.

Durungaldea. Neska euskalduna asteburuetan umeak zaintzeko prest, bai egunez zein gabez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628243602

Durungaldea. Emakume arduratsua lanerako prest, pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko edota garbiketala lanerako. Erreferentziaduna. Mugitzeko arazorik ez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660-64 20 98.

Durungaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638-20 34 50.

Durungaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. 689-30 85 82.

Durungaldea. Interna edo orduka lan bila dabilen neska. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketala lanerako. Pertsona nagusien zaintzan esperientzia. 689-98 72 06

Durungaldea. Emakume arduratsua umeen edo nagusien zaintzan edota garbiketala lanerako prest. Interna, externa edo orduka. Erreferentziak eta esperientzia. 659-73 92 65.

Durungaldea. Goizez, arratsalde zein gauzez lan egiteko prest. Garbiketala lanerako edota gazez pertsona nagusiak zaintzeko. 690-68 73 95.

Durungaldea. Interna edo orduka umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeak garbitzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646-20 72 71.

Durungaldea. Nagusien zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Esperientzia eta erreferentziak. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:30ak arte. 633-03 86 09.

Durungaldea. Ipuin kontaketa eta monologo humoretsuak eskaintzen dira. Tabernetan, ezkontzetan, juergetan, Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651-36 97 69. Roman

Durungaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako edota garbiketarako lan bila. 14:00etatik 20:00etara. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638-43 79 01.

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Klase partikularak emateko prest ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 646-53 83 90.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna edo externa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 683-47 28 05.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna. 632-11 77 23.

Durango. Garbiketala edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxeen edo portalen garbiketala, ospitaleko edo etxeko zaintzak eta abar. Jardunaldi osoa edo erdia, gazez zein orduka. Esperientzia. 690-68 73 95.

Durango. Garbiketala edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxeen edo portalen garbiketala, ospitaleko edo etxeko zaintzak eta abar. 16:00etatik 20:00etara. Esperientzia. 646-92 52 15.

Durango. Nagusien, umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Jardunaldi osorako, asteburuetan edo bestela. Erreferentziak eta esperientzia. 681-21 82 30.

Durango. Nagusien zein umeen zaintzan edo garbiketarako lan bila. Interna, externa, orduka edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 619-15 58 04.

Durango. Goizetan umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest nago. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezian diplomatua; neure kotxea daukat. 695-75 23 25.

Durango. Bulegoen, etxeen, zein portalen garbiketarako edo nagusien zaintzarako lan bila. Jardunaldi erdian, aukeran goizez, astelehenetik zapatu eguerdira. Esperientzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676-54 66 91 (Lola).

Durango. Durangoko emakumea orduka etxeko lanak egiteko prest, informeeekin. 94-466 89 26 edo 688-65 90 90. 6

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Durango. Erizaintzako ikasle euskalduna LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularak emateko prest. Esperientziaduna. 685-73 70 15 (Ane).

Durango. Umeak zaintzeko edo partikularrik emateko prest. Magisteritza diplomatua. Ingelesko eta euskerazko titulazioekin. Esperientzia. 657-77 61 71.

Durango. Ingeniaritzako ikaslea LH, DBH eta batxilergoko ikasleei eskola partikularrik emateko prest. Deitu 666-20 78 45 telefonora.

6. MOTORRA

601. SALDU

125eko motorra salgai. Yamaha ybr 125 salgai. Kotxeko karnetaz eraman ahal da, 10.000 km eta egoera ezin hobean dago. Deitu eta probatu. Interesatuok deitu telefono honetara: 676-90 01 05.

Autokarabana salgai. Autokarabana Benimar Sport 310 salgai. 6 plaza. Egoera onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652-76 81 31.

Autokarabana salgai. Autokarabana Benimar Sport 310 salgai. 50.000 km. Hiru urtekoa eta 6 pertsonentzako lekua. Ekipamendu osoa eta oso ondo zaindua. 31.000 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676-61 71 54 edo 676-98 33 06.


Autokarabana salgai. Autokarabana salgai. 2002. urtekoa. 100.000 km. 21.000 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 607-86 32 24.

BMW F 650 gs 2004 33.000km. Gutxi erabiltzen dudalako, BMW F650gs saltzen dot, oso ondo zainduta. Abs, kalefakzioa eskuetan, pantaila altua, warning, Givi maletategia (bi kasko gordetzeko), 3.000 km dituzten erruberrak. IAT-a 2013ko uztailean arte. 44-45eko botak eta XL neurriko kaskoa opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-71 29 31.

Fiat punto salgai. Fiat punto salgai. 2007. Urtekoa. 48.425 km. 8.000 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-74 56 03.

Renault Master salgai. Renault Master 140 zp, 2.400cc, 6 pax combi, 2006koa salgai. 675-18 99 96.

Smart kotxea salgai. Smart fortwo Coupe Passion salgai. 62cv. 48.000 km. Ia berria eta oso egoera onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676-61 71 54 edo 676-98 33 06.



9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALOKAIRUAN

AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, Terraza. Eguzkitsua. 41.560.000 pta.

AMARA Madril etorb. Altua. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 280.000€.

AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Garajea. Trastelekua. 48.500.000 pta.

AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Terraza. 49.500.000 pta.

ZENTROA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 31.200.000 pta.

ANTIGUA 70 m². 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Oso polita. 49.990.000 pta.

ANTIGUA Benta Berri. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 2 terraza. Garajea. Trastelekua.

EGIA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 29.990.000 pta.

LOIOLA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Kanpora. 32.990.000 pta.

HERRERA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Kanpora. 29.950.000 pta.

MARTUTENE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Kanpora. Parkinga. 27.950.000 pta.

ASTIGARRAGA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 25.990.000 pta.

LEZO 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Berritua. 20.750.000 pta.

LEZO Eraiki berria. 2 edo 3 logela. Terraza. Garajea. Trastelekua. 220.000€.

HERNANI Bi etxebizitzako baserria. 3 solairu. Terraza handia. Terrenoa. Oso polita. 490.000€.

ALOKAIRUAK

HERNANI 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza 15 m². 650€.

AMARA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 700€.

GROS 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. 950€.

ELGOIBAR Landetxe berria. 3 solairu. 10.000 m² terrenoa. Oso polita. 1.000€.

www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

Suzuki sj 410 salgai. Suzuki sj 410 hard top (Samurai) salgai. Gasolina. 1000 cc. 45 zaldi. IAT -a urterto. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 667-48 51 66 edo 667-48 54 36.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ahutzak. Salgai, bakoitza bi antxumerekin. 180 euro. 678-25 52 35.

Ahutzumeak salgai. Ahutzume bi saltzen dira Mallabiko Elgetzu baserrian. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-70 91 18.

Artzai txakurra salgai. 3-4 urteko euskal artzai txakur mantsua salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 692-81 90 35. Amaia

Asto arra. 3 urteko asto arra salgai debagoienan. Beltza da eta mantsoa da. Prezio negoziagarria. 655-71 39 27.

Astoak. Zazpi asko gazte, emeak, salgai. 635 73 35 15

Behorrek salgai debagoienan. Behorrek. Bi behor salgai, prezio onean. 695-73 67 61.

Hauntzumak salgai. Hauntzumak haurdun. Azpizuri eta azpigorria. Mugikorra: 688-60 95 60. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-466 81 37

Txakurkumeak. Malinois Belgiar artzai txakur kumeak salgai. 667-74 65 27.

703. EMAN

Artzai txakurra opari. Bi hileko artzai txakurra oparitzen dugu. Nahiduenak deitu 94-681 43 24 telefonora.

Spaniel Breton txakurra. Emea. Usaimen oso onekoa. Bi urte dauzka. Txerto, txip eta paper guztiak dauzka. Diana izenekoa. Zuri beltza. Leku faltagatik ematen dugu. 945 44 54 62, 651 94 96 72

Txakurkumeak. Hilabeteko txakurkume elegantiak opari. 690 79 78 00

Txakurkumeak opari. Azaroan jaiotako txakurkume oparitu nahi ditut. Ama labrador da. Txakur bat, marroia, arra da. Eta bestea, beltza, emea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638-98 59 30

Txakurra erdi opari. Mastin arrazako txakurra erdi oparitzen da. 4 urte, arra. Oso esanekoa, ona. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 616-91 90 61.

8. DENETARIK

801. SALDU

Abadiño. Lursaila salgai Matienan (Abadiño), Arzubia kalean, 2.000 m², erreka ondoan eta bide ertzean. Aproposa ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolaz hornitua. Matienatik hiru minututara oinez. Deitu telefono honetara: 658 75 65 12.

Behoko sua, kristalduna, salgai. Erdi berria. Haize berroa botatzeko zuloekin. 66 x 80 x 50 cm. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619-48 50 58.

Bergara. 16.000 metro koadroko lursaila salgai, 30 urteko pinuekin. Automobilaz bertara iristeko modukoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653-71 66 87.

Bergara. Lursaila eta borda txikiak salgai. Gorla inguruan. Arbolartea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655-91 87 17.

Bernedo. Lursail eraikigarria urturi salgai dago, bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3 minututara baino ez. 308m² eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk dituzte; baita golfeko hotela ere. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana).

Compaq ordenagailua salgai. Debagoienan. Oso egoera onean eta prezio interesgarria. 662-58 52 29 / 943-20 81 17.

Egongelarako aulkikiak salgai. Zure egongelarako zoragarriak diren 5 aulki saltzen dira. Oso egoera onean eta prezio ezin hobean: 60 euro bostak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-72 62 52.

Eskiatzeko materiala. 10-12 urteko umearendako praktika, 36 neurrikoa, eta snow taula salgai, 1,25 neurrikoa, lokailuekin. 656 78 64 64.

Esnea ateratzeko gailua salgai. Esnea ateratzeko gailua salgai. Medela Swing markakoa, merkatuko onena. Egoera onean. Automatikoa. Honekin

batera Avent markako esnea ateratzeko gailu manuala oparitzen da. 60 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 607-86 32 24.

Gitarra elektroakustiko berria salgai. Gitarra elektroakustiko berria salgai debagoienan. Tanglewood model premier twissas. 1012929 seriekoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 620-64 96 37.

Lasterka egiteko zinta salgai. Lasterka egiteko zinta salgai. Pro-form 360 pulstazio. 400 euro (negoziagarria). Interesatuok deitu telefono honetara: 688-64 05 05.

Mahaia eta aulkikiak salgai. Egurrezko lau mahaia eta aulkikiak salgai. Txoko baterako egokiak. Interesatuok deitu telefono honetara: 695-76 84 21.

Monty 202 kamel bizikleta salgai. Pedalikez duten bizikleta horietakoa da. Bizikleta gainean oreka izaten di- da batean ikasten dute umeak eta bizikleta hau erabiltza, ez dago ondorengo bizikletan gurpil txikiak erabili beharrik. Urte bateko erabilpena du eta oso egoera onean dago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-79 51 85. edo idatzi mezua: agonirena@gmail.com.

Mountain bike-a salgai. Mountain bike horia salgai. 3 plato eta 8 pinoi. 6tik 10era urteko ume batentzat. 75 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-682 07 67 (Igor).

Paratxokea. Volkswagen golf 3 autoaren aurreko paratxokea salgai. 50 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-74 51 80.

Piano elektrikoa salgai. Yamaha Clavinova CLP 150 piano elektrikoa salgai. Kontakua: 650-17 22 85 edo strato-kaster@gmail.com

PSP go-a salgai. Debagoienan. Berria. Prezio interesgarria. 943-77 00 26.

"Puf" ak. Oheagaitzen diren bi "puf" salgai. Oheko neurriak 80x190 dira. Jasota daudenean, kubo forma dute. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 39 35

Umea eramateko motxila. «Vaude Jolly Light» umea eramateko mendiko motxila salgai. Estreintzeko, etiketa eta guzti. 100 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-603 25 02.

Umea eramateko. Umea eramateko Jane etxeko kapazoa. Maxi Cosia eta aulkitxoak salgai debagoienan. Oso ondo zainduta. 199 euro. 653-72 22 54, marysea15@hotmail.com

Xurgagailua (aspiradora) salgai. Bigarren eskuko, ia erabili gabekoa. Akaroen aurkako eta kontsumo baxukoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 659-62 02 49.

802. EROSI

Akordeoi kromatikoa. Bigarren eskuko akordeoi kromatikoa erosiko nuke. 120 bajukoa (botoiduna). Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 639 15 40 48

Bizikleta. 4 urteko mutikoarentzat bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649 00 53 42

Bizikleta. Esekidura bikoitzako bizikleta erosiko nuke. Egoera onean dagoen bizikleta baldin badaukazu eta saldu nahi baduzu, email bat bidali mesedez. laguntzen@gmail.com.

Lursaila. Lursaila erosiko nuke Bergara edo inguruko herriren baten. 5.000 euro inguru ordaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 17 09 51

803. EMAN

Bidali zure ordenagailua Boliviara. Bidali zure ordenagailua Boliviara eskolatar. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez balduko dugu Boliviako bigarren mailako eskolatar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 655-71 76 66.

806. GALDU

Eraztuna Bergaran. Ezkontza eraztuna galdu dut. Bi eraztun dirabatean, soldatuta. Norbaitek aurkitu badu dei dezala mesedez 646 05 62 62 telefonora.

Kirol praka Bergaran. Kirol praka beltza, berria, galdu nuen Matxategiko 30 eta 32 artean artean, otsail hasieran. Aurkitu baduzu deitu mesedez. Norbaitek aurkitu badu dei dezala mesedez 943 76 41 31 telefono zenbakira.

Nintendoa Aretxabaletan. Igan dean, otsailak 12, 20:30ean, Nintendo dsi xl bat desagertu zen bere etxean barruan. Mesedez norbaitek aurkitu badu deitu zenbaki honetara: 689 73 64 77

807. AURKITU

Berokiak. Bergarako Agorro-singo tabernan umeen bi beroki agertu dira. Izena daukate idatzita: Ander G. L. Eta Jokin B.

Eraztuna. Antzuolako plazan urrezko eraztun bat aukittu genuen abenduan. Norbaitek galdu badu deitu telefono honetara: 656 76 78 90

Lepokoa Bergaran. Lepokoa aurkitu nuen urtarilaren 19an, egunez, Bergarako Irala kalean. Norbaitek galdu badu deitu telefono zenbaki honetara: 630 12 39 08

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Hernan

Hotmailen spam filtroa Gmailena baino hobea dela erakutsi dute


Apur batengatik da hobea, halere, esperimentu erraz baten arabera

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Ikerketa Microsoftek eskatu dio Cascade Insights enpresari eta Hotmail, Gmail eta Yahoo-ren posta zerbitzuak aztertu dituzte. Gutxiatik, baina Microsoftena atera da garaile Gmailaren *spam-akatzaila* famaren aurrean. Aldea, halere, hamarren gutxi batzuk da. Erabiltzaile izen berarekin hiru kontu sortu zituzten ikerketarako (Hotmail, Yahoo eta Gmailen) eta laugarren bat ez-lako iragazki gabea, hosting hornitzaile baten. Posta helbide horiek blog, Facebook eta kutsatze arrisku handiko gunetan zabaldu zituzten, ehundik gora leku, eta emaitzak jaso bost astetan.

Gutxiko aldea, halere

Honakoak izan dira emaitzak: Hotmailen sarrera karpeta mezu guztien %48,57 zen spama, Gmailen %48,88 eta Yahooren %58,33. Hiruren arteko tartea ez da oso handia eta are txikiagoa da Gmail eta Hotmailen artean. Filtratutako kontuan spam kopurua %64,22 izan da.



Emaitzen konparazio-taula. | GENBETA.COM

Erantzuna

Ikerketa argitaratu eta erreazioak berehala etorri dira. Kalteuena Yahoo izan da eta esan dutenez, euren zerbitzuak spa-

maren %99a iragazten da, metodologiari egotzen dizkiolarik akatsak. Fraunhofer institutuari 2010ean eskatu zituen ikerketa erabili dute argumentu moduan.

Orduan erakutsi zuten Hotmailek baino %40 spam gutxiago jasotzen dutela Yahooren posta erabiltzaileek eta Gmailekoek baino %55, hain zuzen.



Cinetube atariaren zati bat. | GOIENA

Cinetube gunea legearen aurkako ez dela erabaki du epaile batek

J.B. | ARRASATE

Cinetube kasua artxibatu du Arabako Lurralde Auzitegiak web-gunean ez delako edukirik gordetzen eta, ondorioz, handik zuzenean ezin delako ezer jaitsi. Defentsarako abokatuak gainera, sententzia eskuan, adierazi du Jabetza Intelektualaren Legea eta Zigor Kodea aldatu barik, prebarikaziotzat har daitekeela *Sinde Legea* ahalbidetuko duen esku-sartzea.

'Sinde Legearen' bezperatan

Hain zuzen, hilabete barru sartuko da indarrean *Sinde Legea*, Auzitegi Gorenak kautelazko etenaldi bat ez badu agintzen,

behintzat. Martxoaren leian da sartzekoa indarrean lege berria eta Arabako Lurralde Auzitegiarenaren moduko sententziek kolokan jar dezakete neurri berriaren legezketasuna eta gatazka sortu.

Cinetube guneak filmak deskargatzeko loturak eskaintzen zituen, webgunetik kanpoko zerbitzarrietan aurki zitezkeenak, eta webgunetik bertatik, hortaz, ezin zitezkeen edukirik jeitsi, bakarrik edukirik aurkitzeko helbideen zerrenda ematen baitzuten. Orain dela hiru urte salatu zuten Hollywoodeko produkzio-etxe handiek Cinetube, egile eskubideen urraketa egotzita.

Aurki abiatzeko den Google Drive zerbitzuaren irudiak filtratu dira

J.B. | ARRASATE


Dropbox aitzindari – eta momentu arrakastatsuen – izan den lainoko biltegiatze zerbitzuaren loraldia dago uneotan eta Google-ek ere berea eskainiko du aurki. Dagoeneko zerbitzuaren zenbait irudi filtratu dira sarea.

Google Drive izango du zerbitzuak izena eta itxura guztien arabera Google Docsek darabilen diseinuaren oso antzerakoa izango da interfazea. Zerbitzuak ere antzerakoak izan daitezkeela ondorioztatu daiteke, hortaz. Lainoan artxiobak gordetzeko aukera eskainiko du aurki, beraz, Google Drive-ek izan ere, filtrazioak gertatu dira erabiltzaile bati gura barik aktibatuko

diotelako zerbitzua eta hark zabaldu ditu irudiak. Irudi horietan gainera ikus daiteke mahaigaineko gehigarria ere instala daitekeela. Karpeta lokal bat egongo litzake, Dropboxen kasuan bezala, eta karpeta hori lainoarekin eta Google Drive instalatuta dagoen gainontzeko gailuekin sinkronizatuko litzateke.

Konfirmatu barik

Momentuz baina filtrazioa ez dute egiaztatu Google-etik eta guztia faltsua izan daiteke. Gauza jakina da, hala eta guztiz ere, konpainiak aurki gura duela zerbitzu hori abiarazi, lainoko eskaintzan atzean geratzen baitabil Google.



Filtratu den irudietako bat. | ALTI040.COM

Jada 'Angry birds' jokoarekin jolastu daiteke Facebook-en

Facebooken plataformaren barruan jolastu daiteke *Angry Birds* joko ezagunarekin joandako martitzenetik, Apple Store eta Android Marketen izandako arrakasta zabalduz. Sare sozial ezagunaren erabiltzaile guztiek daukate doan jolasteko aukera. Jokoa gaitzetzeko plataformetan aurki daitekeenaren berbera ala oso antzerakoa da eta bestelako berrikuntzarik ez dakar. Facebookekin, noski, sarean lagunekin jolastu eta puntuak ikusteko aukera dago.

Androiderako aplikazioa sortu du Kaixomaitia.com-ek

Euskaldunen arteko harremanetarako webguneak 5 urte bete zituen joandako martitzenean, maiteminduen egunean. Urteurrena ospatu eta Android sistemarako aplikazioa deskargatu daitekeela iragarri zuten. Doako aplikazioarekin jendea ezagutu, zuzeneko txatarekin berba egin ala GPSarekin erabiltzaileak aurkezteko zerbitzuak ipini dituzte martxan webgune ohiko zerbitzuez gain. Harremanetarako gunea da Kaixomaitia.com, doako zein ordainpeko zerbitzuekin.

Iragarle txikiei ere zabaldu dizkie atak Twitter-ek

Enpresa txiki eta ertainei Tuenti Ads izeneko zerbitzuan alta emateko aukera eman die Twitter-ek, Google-en AdSense ezagunaren antzerako funtzionamendua duen plataforma. Zerbitzuan alta emateko formularioa zabaldu dute eta American Express konpainiarekin batera dabilta elkarlanean sare sozial ezaguneko arduradunak. Probatan ibiliko dira momentuz eta izena emandakoen artean batzuk aukeratu eta horiek hasiko dira lanean.

Safari nabigatzailearen erabiltzaileak espiatu ditu Google-ek

The Wall Street Journal egunkariak argitaratutakoaren arabera Google-ek eta zenbait publizitate enpresak programazio kodeak txertatuz Apple-en Safari nabigatzailearen erabiltzaileak zelatatu dituzte. Ofiziala da ze Google-etik dagoeneko jakinarazi dute kode hori kendu egin dutela txertatutako lekuetatik. Sareko 100 leku ezagunenetatik 20etako publizitate espaziotan zeuden txertatuta programazio kodeak eta horien bitartez jarraipena egiten zuen Google-ek nahita.

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



Agur, Mr. House

Aitortu beharra daukat, inoiz ez dut *House* telesaila ikusi. Atalen bat edo beste, baina istorioari buruz ezer gutxi dakit. Hala ere, badakit nor den House doktorea eta ondo ezagutzen dut bere izaera. Horixe da arrakastarik garrantzitsua. Ni bezalako asko ezagutzen ditut. Telesaila ez dutenak ikusi, baina House doktoreari buruz hitz egin lezaketenak.

Gregory Housek zortzi urte daramatza mundu osoko telebistetan agertzen. *Emmy*-ak, Urrezko Globoak... sari ugari eskuratu ditu. Hala ere, pertsonaia horren indarra harago joan da.

Edonork jakingo luke House doktorearen inguruko deskribapen bat egiten, eta ezinbesteko pertsonaia bihurtu da. Hogei urte barru, ziurrenik, Housekin akordatu gara. Telebistaren historian agertuko den izar berria da House doktorea; historian geldituko dena.

Historian geratuko da bai, baina orain, agurtzeko unea iritsi da. Joan den astean estreinatu zuten telesaiaren azken denboraldia eta ekainean betiko amaituko da. Hala ere, batzuek agur esaten dioten bitartean, beste batzuek, ordea, ongietorria emango diogu seguru.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 20



Aretxabaletaren partidua ikusgai

10:40

Ibarran jokatu du asteburuan Aretxabaletak Behobia taldearen aurka, eta hori landuko dugu *Harmailatik* kirol saioan.

- 12:25 Magazinea
- 13:25 Onein
- 13:55 Kantari
- 14:28 Beranduegi.tv
- 14:45 Berriak
- 15:15 Ikusmira
- 15:48 Ur eta lur
- 16:18 Bertso saioa
- 16:43 Berriak
- 17:13 Ur eta lur
- 17:43 28.Klip
- 18:10 Onein
- 18:40 Berriak
- 19:10 Kantari
- 19:40 Magazinea
- 20:40 Harmailatik
- 21:25 Beranduegi.tv
- 21:45 Magazinea
- 22:45 Harmailatik
- 23:30 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA, 21



'Beranduegi.tv' saioa

15:15

Argiak bereziki sare-rako ekoizten duen *Beranduegi.tv* saio fresko, dinamiko eta dibertigarria eskainiko dizuegu.

- 12:30 Magazinea
- 13:30 Harmailatik
- 14:15 Kantari
- 14:45 Berriak
- 15:15 Beranduegi.tv
- 15:36 Harmailatik
- 16:19 Onein
- 16:45 Berriak
- 17:15 Bizitegia
- 17:45 Harmailatik
- 18:30 28.Klip
- 18:54 Berriak
- 19:21 Kantari
- 19:48 Magazinea
- 20:48 Bertso saioa
- 21:11 Magazinea
- 22:11 Bizitegia
- 22:41 Magazinea
- 23:41 Gipuzkoa kultura

EGUAZTENA, 22



Ceciagaren itxiera

19:49

Arrasateko Ceciaga denda itxiko dute 104 urteren ostean, eta horixe izango dugu hizpide eguazteneko *Magazinea*-n.

- 12:20 Magazinea
- 13:20 Ikusmira
- 13:53 Beranduegi.tv
- 14:12 Kantari
- 14:47 Berriak
- 15:17 Gipuzkoa kultura
- 15:47 Onein
- 16:15 Berbetan
- 16:45 Berriak
- 17:15 Altxor Txokoa
- 17:48 Bertso saioa
- 18:11 Harmailatik
- 18:54 Berriak
- 19:19 Kantari
- 19:49 Magazinea
- 20:49 Bizitegia
- 21:19 Magazinea
- 22:19 Berbaz
- 23:19 Magazinea

EGUENA, 23



Olerki topaketaz gozatzeko aukera

22:22

Leire Bilbaok *Scanner* bere liburua Koldo Mitxelenan nola errezitatu zuen ikusteko aukera izango dugu egunean.

- 12:30 Magazinea
- 13:30 Gipuzkoa kultura
- 13:55 Kantari
- 14:20 Bizitegia
- 14:45 Berriak
- 15:15 Onein
- 15:42 Berbaz
- 16:42 Berriak
- 17:12 Kantari
- 17:42 Ikusmira
- 18:15 Beranduegi.tv
- 18:32 Onein
- 18:52 Berriak
- 19:22 Kantari
- 19:52 Magazinea
- 20:52 Bizitegia
- 21:22 Magazinea
- 22:22 Gipuzkoa kultura
- 22:52 Bertso saioa
- 23:15 Magazinea

EGUBAKOITZA, 24



Internet kontuak hizpide

19:23

Internet eta teknologia berrien kontuak izango ditu hizpide Jon Berezibar kazetariak Arritxu Barruso aurkezlearekin batera.

- 12:30 Magazinea
- 13:30 Gipuzkoa kultura
- 13:55 Kantari
- 14:22 Onein
- 14:47 Berriak
- 15:14 28.Klip
- 15:38 Bizitegia
- 16:08 Leku txiki bat
- 16:38 Berriak
- 17:11 Jaiak: Aratusteak 2012
- 17:56 Beranduegi.tv
- 18:16 Berriak
- 18:51 Kantari
- 19:23 Magazinea
- 20:23 Gipuzkoa kultura
- 20:53 Magazinea
- 21:53 Jaiak: Aratusteak 2012
- 22:38 Magazinea
- 23:38 28.Klip

ARRASATE IRRATIA

Aratusteen gainean jardungo dugu gaur Arrasate Irratian

Asteburuan ospatutako Aratusteei buruz hitz egingo dugu gaur, astelehena, 10:30ean hasita. Hain zuzen ere, gurean izango ditugu *Harrizti* Arrasateko komisioko kidea eta Amaia Txintxurreta kazetaria aurtengo Aratuste asteburuak eman duenari buruz berbetan, 107.7an.

'Foxy Leires' taldearen kontzertua ikusteko sarrerak zozketan

Aste honetako *Kooltur otegunak* egitasmoaren barruan, *Foxy Leires* taldeak eskainiko du kontzertua gaztetxean. Bada, hara joan nahi baldin baduzue, sarrerak gurean lortzeko aukera daukazue. Parte hartu 943 25 05 05 telefonora deituta edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.com*-era.

Rosarito Ceciaga izango dugu dendaren itxieraz berbetan

Arrasateko Ceciaga dendak 104 urteren ostean negozioa itxiko du. Rosarito Ceciaga ugazabak Arrasate Irratiaren gonbidapena onartu du eta gurean izango dugu urte haue-tan guztietan izan dituzten kontuen berri ematen. Beraz, herriko historia zati bat gogoratuko dugu astelehenean Ceciagarekin.

TELE-ALBISTEAK

Mozorroen kolore eta alaitasunez jantziko da gaur 'Magazinea'

Asteburuan Debagoienean, herriz herri Aratusteetan jasotakoak, telebistan

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Festa giroa nagusitu da asteburuan Debagoieneko hainbat herritan Aratuste jaiak direla-eta.

Goiena telebistak aurtun ere ez ditu jai horiek galdu nahi izan eta hara eta hona ibili gara herrietako giro paregabea jasozten.

Etxeko txiki eta nagusiak ikusi ditugu mozorrotuta, eta karrozak ere han eta hemen ibili dira. Zuek etxetik gozatu ahal izango duzue goxo-goxo festa giroarekin gaur, astelehena, 19:45ean, *Magazinea* saioan.

Mozorro eta karrozak

Zapatu goizean Arrasaten izan ginen; pregoia ikusi eta mozorrotuta zeuden gazte eta helduei inkestak egiten.

Arratsaldean Eskoriatza eta Bergaran izan ginen, eta horietan ere koloreak eta poztasuna ziren nagusi.

Asteburuko Aratusteak bukatzeko, domekan Aretxabaletan izan ginen, eta, urtero moduan, herritarrek ez ziguten hutsik egin eta guztiz harritu gintuzten atera zituzten karroza erraldoekin.



Gospel taldea kantuan zapatu arratsaldean Eskoriatzan, mozorro-desfilea hasteko zain. | GOIATZ ARANA

Aratusteek emandakoa gaur, astelehena, 19:45ean

Saio berezia egubakoitzean

Aurtengo Aratuste jaien saio berezia eskainiko dizuegu egubakoitzean. Asteburuan jasotakoaz gain, martitzenean ere ospatuko dituzte Aratusteak beste herri batzuetan, eta horietan

jasotako giroa ere erakutsiko dizuegu egubakoitzean eskainiko dizuegun jaien saio berezian. *Aratusteak 2012* saioa ikusi ahal izango duzue egubakoitzean 17:11n eta baita 21:53an ere. Eta baita hurrengo asteburuan ere.


ZORION AGURRAK




BERGARA
Beñat Askargorta Aranzabal
Otsailaren 26an, 5 urte. Zorionak, Beñat! Etxeko txikitxuak bost urte betetzen ditxula? Ze handixa egin zaren! Segi horrelako alai eta maitekorra izaten. Muxu handi-handi bat amatxo eta aitaxoren partetik, eta beste handixago bat Jokinen partetik. Ondo pasatu, potxolo!



ESKORIATZA
Josu Diaz Palomo
Otsailaren 25ean, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik. Ondo ospatu zure urtebetetze eguna, txapeldun!



ARETXABALETA
Aimar Diez Castro
Otsailaren 24an, 5 urte. Zorionak, pirata! Hamaika muxu gurasoen eta Maialenen partetik. Eta noski, baita lagun guztien partetik ere. Ondo-ondo pasatu eta urte askotarako!



ARRASATE
Aimar Gomez Martins
Otsailaren 23an, 7 urte. Zorionak eta patxo bat zure ama, anaia, osaba-izeba eta amamaren partetik. Opari asko jaso eta ondo pasatu.



BERGARA
Ane Alberdi Sanz
Otsailaren 23an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



ARRASATE
Eder Luengo eta Luken Ugarteburu
Ederrek otsailaren 23an, 5 urte eta Lukenek martxoaren 2an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Aisharena.



ARRASATE
Bittor Arriaran
Otsailaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, aitaxo! Milaka muxu eta besarkada handi zuretzat. Maite zaitugu!



ANTZUOLA
Ekhi Cabo Mundiñano
Otsailaren 22an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat gure bihurri txikiarentzat, Inar, aitaxo eta amatxoren partetik.



OÑATI
Haizea Frutos Martinez
Otsailaren 21ean, 5 urte. Bost urtetxo gure sorgintxuak! Ondo pasatu eguna eta txokolatzeko patxo handi-handia danon partetik.



BERGARA
Eider Moncayola Goiti
Otsailaren 21ean, 14 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik. Ondo-ondo pasatu eguna.



OÑATI
June Barrena Bikuña
Otsailaren 21ean, 3 urte. Zorionak, poxpolin! Ondo pasatu zure urtebetetzea. Marrubizko eta txokolatzeko pa handia etxeko, eta bereziki, Markelen, Leirenen eta Eiderren partetik. Pa!



ARRASATE
Felix Ormaetxea Goitana
Otsailaren 21ean, 73 urte. Zorionak, aitaita! Muxu handi bat etxeko guztien eta, bereziki Jon eta Iraideren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Aupa Athletic!



BERGARA
Markel Becerril Anton
Otsailaren 20an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Irati Criado Uribe
Otsailaren 20an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko partetik!



ARRASATE
Maidier Villar Iriarte
Otsailaren 20an, 6 urte. Zorionak, Maidier! Ondo pasatu zure egunean. Musu handi bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Maidier Irazola Mungia
Otsailaren 20an, 6 urte. Zorionak, printzesa. Muxu potolo asko familiaren partetik. Ondo pasatu egun polit hau.



BERGARA
Naiara Luarizaristi Orbegozo
Otsailaren 19an, 24 urte. Zorionak, prexioxa! Hoi earra! Amama mantangorri deitzeko ordua heldu don! Zelako ondo bizitzen dan hire albuan! Zorionekuk bai gu... Ondo-ondo pasatu 24.a eta segi holakuk botaiten! Ez gaitxun sekula aspertuko! Kirtena ez, baina kirtenmitente xamarra bahaiz! Muxu erraldoia gure neskatilarentzat. Gozatu bizitza! Gora Naiara! Pot.



ARETXABALETA
Garazi Aiausti Izarzugaza
Otsailaren 19an, 5 urte. Zorionak, polittari. Ondo pasatu zure urtebetetze egunien. Patxo handi bat etxeko danen partetik.



BERGARA
Iker Perez Marzan
Otsailaren 19an, 3 urte. Zorionak, txapeldun. Musu pila-pila bat ama, aita eta Naiaren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetzea.



BERGARA
Maidier Galfarsoro Arregi
Otsailaren 19an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Olatz eta Peio.



OÑATI
Eider Goñi Arevalo
Otsailaren 19an, urtebete. Zorionak, prezioza. Muxu handi bat familiaren eta, bereziki, Maialenen partetik. Ondo pasatu egun polit hau.



OÑATI
Anartz eta Uxue Murguzur
Uxuek otsailaren 17an, 5 urte eta anartzek 18an, 39 urte. Zorionak, bikote. Ondo pasatu zuen eguna. Marrubizko muxuak biontzat.



ARRASATE
Danel Gonzalo Maria
Otsailaren 18an, 5 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo ospatu zure urtebetetze lagunekin eta familiarekin. Besarkada eta belarritik tirakada handi bat. Aita, ama eta Ander.



OÑATI
Ander eta Maialen Altzelai Santa Cruz
Anderrek 18an, 8 urte eta Maialenek 22an, 6 urte. Zorionak, bikote! Muxu handi bana eta belarritik tirakadak familixakuen partetik!



OÑATI
Liher Sancho Maiztegi
Otsailaren 17an, 8 urte. Zorionak maite zaitugun guztien partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean, mozorro eta guzti!



ARETXABALETA
Danel Lopez Fernandez
Otsailaren 17an, urtebete. Zorionak, Danelxo! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxeko guztien, eta bereziki, Iker, Oier eta Eiderren partetik.



OÑATI
Irati Pelayo Osa
Otsailaren 16an, 4 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
Uxue Bernal Varela
Otsailaren 16an, 4 urte. Zorionak asko maite zaitugun guztien partetik: aitaxo, amatxo, aita, amamak, osabak, izebak eta batez ere zure lehengusina Aiora eta zure anaia Urkoren partetik. Ondo pasatu eguna eta opari asko jaso guztiekin jolasteko! Muxu bat sorgintxoari.




ARRASATE
Erik Delgado Ugarte
Otsailaren 15ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Azkenean heldu da zure eguna. 5 urte! Oso ondo pasatu zure lagunarekin eta familiarekin. Muxu handi bat Ane, aita eta amaren partetik.



OÑATI
Beñat Ugalde Urkiola
Otsailaren 15ean, 14 urte. 14 urte! Zorionak etxeko danon partetik.



ARRASATE
MariaXiao Etxebarria Agirre
Otsailaren 14an, 5 urte. Gero eta handiago, maitagarriago. Zorionak, pixpirintxo, aitaxo, amatxo eta familia guztiaren partetik.



OÑATI
Leire Urrutia Losada
Otsailaren 14an, 25 urte. Zorionak, Leire! Muxu potolo bat zure kuadrilla dana partetik! Espero du eguna ondo pasatu izana Gasteizen eta badakitzu, asteburuan elkarrekin ospatuko. 25 muxu eta besarkada bat, potxoli!



ARRASATE
Lara Gonzalez
Otsailaren 13an, 27 urte. Zorionak, Lara zure 21. urtebetetzean, jeje! Eta muxu handi bat etxeko danen partetik.

JAIOTAKOAK

Jaiotzak

Atal honetan jaiotza baten berri eman nahi baduzu, hiru bide dituzu horretarako:

Internet

Sar zaitetz goiena.net atarian eta *Jaiotza bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da jaioberria Baita Goiena paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezu bat bidali zarionagurak@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, jaiotze data, zenbat kilo pixatu dituen, gurasoak zeintzuk diren eta argazkian norekin agertzen den.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz GOIENAKo ordezkari bat batera.



Urko Bernal Varela

Bergara. 3,400 kilo. Otsailaren 5a. Gurasoak: Alex eta Sonia. Argazkian, Aita eta amarekin.



Nahia Enciso Elkoroiribe

Oñati. 3,860 kilo. Otsailaren 4a. Gurasoak: Santi eta Edurne. Argazkian, Nahia, sehaskan lo.



Andde Dominguez Gomez

Arrasate. 3,660 kilo. Otsailaren 12a. Gurasoak: Ainara eta Beñat. Argazkian, Andde, anaiarekin.



Beñat Larrea Negeruela

Oñati. 3,540 kilo. Otsailaren 12a. Gurasoak: Onintza eta Iñaki. Argazkian, Beñat gurasoekin




June Gomez Ucha

Sopelana. 3,550 kilo. Otsailaren 12a. Gurasoak: Leire eta Natxo. Argazkian, June gurasoekin



Elene Aramendi Fuente

Oñati. 3,850 kilo. Otsailaren 10a. Gurasoak: Maria eta Unai. Argazkian, Elene amarekin.



Miren Zabala Miguelez

Arrasate. 2,900 kilo. Otsailaren 11. Gurasoak: Itsaso eta Hiba. Argazkian, Miren amarekin.



Izaro Maskariano de San Justo

Aretxabaleta. 3 kilo. Otsailaren 15a. Gurasoak: Rakel eta Jon. Argazkian, Izaro amarekin.



Izadi Orobengoa Zabala

Arrasate. 3,310 kilo. Otsailaren 14a. Gurasoak: Itziar eta Mikel. Argazkian, Izadi amarekin



Mara de Goñi Campos

Bergara. 3,180 kilo. Otsailaren 15a. Gurasoak: Nerea eta Ritxar. Argazkian, Mara gurasoekin.



Anne Conde Mujika

Bergara. 2,990 kilo. Otsailaren 16a. Gurasoak: Leire eta Ramon. Argazkian, Anne amarekin.



Hodei Gil Kortabarria

Arrasate. 3,600 kilo. Otsailaren 17a. Gurasoak: Arantza eta Ritxar. Argazkian, Hodei sehaskan lo.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.
EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelak jartzeko orain arteko ordezkari gaitz gain
BERGARAN,
ABENDUTIK AUERRERA
JARDUN ELKARTEA
Errotalde jauregia (kultura etxean)
943 76 08 19

Eskelaren prezioa: 126 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

MEZA

Jose Manuel Zurutuza Goiburu




2012ko otsailaren 18an hil zen, 62 urte zituela.

Haren arimaren aldeko
hileta elizkizuna gaur,
astelehena, otsailak 20,
19:00etan, Bergarako
Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Bixente Markuleta Azurmendi



1917-09-01/2011-02-24

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, otsailaren 25ean, 19:30ean,
Oñatiko Agustinoen elizan izango da.

Aldez aurretik esker on bertaraten zareten guztioi.

AI, ENE!

Interesgarriena ez da dirudiena

Ez dakigu manipulaturatuta dagoen, baina argi dago argazkiko mutila baino interesgarriagoa dela atzeko emakumea. Eroriko da? www.facebookfail.com



AHOBERO

"Gotikoak gizartearen %40 dira; gainerakoak pertsona normalak gara"

PILAR FERNANDEZ | AMA PARTE-HARTZAILEA

¿Quién quiere casarse con mi hijo? izeneko telebista programa zere-sana ematen ari da, batez ere bertan parte hartzen duten amek botatzen dituzten astakeriengatik. Akaso, saioari izena aldatu behar-ko liokete: *Nork eduki gura du horrelako amaginarreba?*
Cuatro

EGURALDIA



Max. 6°
Min. 0°

Zeru-gaina garbituz joango da egunak aurrera egin ahal- la. Izotza botako du. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-02-20

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Itziar Atienza Zuzenbidea ikasi eta euskara teknikaria izan arren, barrenari kasu egin eta aktore ibilbideari ekin zion: 'Vaya Semanita', 'Ai ama!', 'Ipar haizearen kontra' antzezlanak... | TXOMIN MADINA

"Ni neu ere 'la Nere' samarra izan nintzen 14-15 urterekin"

1. "Ai, ama!". Noiz erabili duzu esamolde hori azkeneko?

Atzo gauean bertan: ohera nindoala ispilu bat hautsi nuen, eta hamaika "ai, ama!" bota nituen! Askotan erabiltzen dudana esaera da, gehiegitan...

2. Zer eskaintzen dio Itziar Atientzak Ai, ama!-ri?

Ikusi egin behar du da programek aurrera egin ahal; ni neu ere nire lekua hartzen nabil. Freskotasuna ematen saiatzen naiz; gonbidatua- rekiko konplizitatea lortzen, estual- ditxoetan jarriz, baina beti modu erosoan eta dibertigarrian.

3. Hiru urte egin zenituen Vaya Semanita-n. Markatu egiten du?

Markatu baino gehiago, esperien- tzia ematen du, eta hori nabari dut orain: lau plato egiten ditut astean, eta erronka honi aurre egiteko oso ondo etorri zait *Vaya Semanita*-n ikasitakoa.

4. La Nere izan zen zure perso- naia gakoetako bat. Hura bezalako asko ezagutu dituzu?

Ez hainbeste! Ni neu ere *la Nere* samarra izan nintzen 14-15 urterekin. Baina pertsonaia estereotipatua zen eta irudimena erabili genuen.

5. Gaztelaniaz eta euskaraz, umorea berbera da?

Ez; horixe ari naiz orain esperi- mentatzen. Erreferenteak ezber- dinak dira, hizkuntzarekin ere beste era batera jokatu behar da... Oso polita da hori, sormenerako beste aukera bat ematen du.



JON POZO

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Ausardia banatuko nuke"

"Maite dudana jendeari, eta jendeari orokorrean, bizitzak dakartzan kontuei aurre egiteko ausardia banatuko nioke: norberaren barrenari entzuteko, eta baita kanpoko kontuei aurre egiteko ere. Neure buruari ere emango nioke apur bat".

6. Antzerkian, berdin du antzokia beteta edo erdi hutsik egoteak?

Ez; batzuei *bajoia* ematen die, baina niri ez dit horretan eragiten: jende gutxiago dagoenean funtzio intimoa egiten saiatzen naiz, etorri direnendako askoz bereziagoa.

7. Nola bukatzen du abokatu eta euskara teknikari denak aktore?

Bukatu... akaso tabernan lanean bukatuko dugu! Bizitzak buelta asko ematen ditu eta niretzat oso garrantzitsua da barruan sentitzen dudanaekin bat egitea. Damutu? Ez, nork bere bidea egin behar du, eta hau izan da nire bidea.

8. Abokatu moduan, zer ez zenuke defendatuko?

Uf! Abokatuen lana ez da defendatua epaitzea, defendatzea baizik; bestela, epailearen tokian jarriko ginatke. Borroka etikoa hor dago, baina edozein pertsona du defen- sarako aukera. Ez dago defenda- tuko ez nukkeen ezer.

9. Eta euskara teknikari moduan, zein akatsek jartzen zaitu sutan?

Akatsek baino gehiago, jendearen borondaterik ezak jartzen nau sutan. Jende asko ikusten zenuen urtetan euskara ikasten, erraztasun pilare- kin... eta gero, euskara egiteko orduan borondaterik ezarekin.

10. Astegunetan telebista, aste- buruan antzerkia; eta zuretako astia?

Orain, astelehenetik ostegunerako goiz guztiak libre ditut; Donostiara etorri naiz bizi izatera, eta hiria ezagutzen nabil.

BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE



Atez at(z)e(ra)

Azkenaldian idatzi asko argitaratu dira Goienan gai honen inguru- an, eta, gutxienean, aurrekariak objektiboki azal- du behar direlakoan nago. Alemaniako Berdeak izan ziren *0 Zabor* kontzeptuaren aitzindariak: kontsumotik eratorritako zaborra ahal den neurrian ekin eta, gainon- tzeako berrerabiliz, birzi- klatuz eta konpostatuz. Azken urteotan, 80ko hamarkadan arbuiatzen zuten balorizazio energetikoa gehitu diote kont- zeptuari. Errausketa, berre- rabiltzerik, birziklatzerik edo konpostatzerik ez dagoen zaborra tratatzeko aukera ekologikoa dela aitortzen dute, prozesuaren ondorioz, gainera, argindarra lortuaz. Poztu nau Alemaniako Ber- deen *0 Zabor* ikasgaia hedatzen doala ikusteak pentsaera des- berdineko herritarren artean, baina ikasle eskasak ginatke bilketa metodoaren eztabai- darekin nahita nahastuko bagenu. Bilketa metodoa edo- zein dela ere, berrerabiltzerik, birziklatzerik edo konposta- tzerik ez dagoen zaborrak gure zabor guztiaren herena baino gehiago izaten jarrai- tuko du.

Ondorioz, zaborraren tra- taeran eraginik ez eta, gares- tiagoa eta deserosoagoa izanik, ez al da atzera pauso atez ate- koa?

HEMEN DIRA ARATUSTEAK!

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA
ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORIATZA ETA BERGARAKO ARATUSTEAK
OTSAILAK 20, 19:45



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena